

EIBARKO EUSKARA: GUTXIESPENAREN HISTORIA

Antxon NARBAIZA AZKUE



Euskara
Batzordea

EIBARKO EUSKARA: GUTXIESPENAREN HISTORIA

Antxon NARBAIZA AZKUE



Eibarko Udala
Euskara Batzordea

Izenburua: Eibarko euskara: gutxiespenaren historia

Egilea: Antxon Narbaiza Azkue

Argitaratzailea: Eibarko Udala, Euskara Batzordea

Diseinua eta maketazioa: Koldo Mitxelena Zumaran

Inprimategia: Gertu kooperatiba

ISBN: 84-89696-09-8

Lege Gordailua:

1998ko azaroa

HITZAURREA

Bere sasoian, ondiokan antxiña ez dala, “Eibarren euskeraz erabiltzen dittugu autu guztiak, bai zerukuak bai lurekuak” diño Toribio Etxebarriak. Horrek esaldi horrek esangura sakona dauka, Eibar eta euskeriaren arteko loturiaz jabetzeko.

Orduan sasoian Eibarren industriak sustraixak botatzen ziharduen eta lekukoak badittugu, pertsonak zein produkziño idatzia, lan munduan be euskeria komunikaziño-tresna bizixa zala diñoskuenak. Hori holan izanda, argi dago, Eibar euskeraz bizi zala.

Euskeraz pentsatzen zeban gizartea zan Eibarkua eta, giro horretan, eibarrerak aportaziño eta ekarpenak egin detsaz euskeriari, basarri girotik aparte, erabilgarritasuna eta sasoian sasoiko bizimodura egokitzen laguntzeko, behar izanen arabera sortzeko gaitasuna erakutsiz. Berba batean esateko: eibarrera bidegile izan da.

Esandakoaren harira, gero eibarrerarekin benetan zer gertatu dan eta zein sasoittan ikusteko, Antxon Narbaizaren lana interesgarrixa da behar dan moduan dokumentatua dagualako. Era horretan ordua zala esan beharko dogu, lekuz kanpoko hainbeste iruzkin merke entzun eta gero. Esan beharra dago askotan kritika linguistikoa izaerari lotuagoa daguala arrazoi filologikoei baiño.

Horra hor liburu interesgarri honen hitzaurrean modu labur eta iradokigarrixan esan leikiana. Irakurle zaran horrek, hórren eta beste ideia batzuen erantzuna aurkittuko dozu zalantza barik, orrixotan zihar. Probetxugarrixa gerta dakizula. Eta, zuri Antxon, eskerrik asko zure lan oparo eta eskerbakoa eskaintziarren.

Iñaki Arriola Lopez
Alkatea

Jabier Zorrakin Berrizbeitia
Euskara Batzordeburua

EIBARKO EUSKARA: GUTXIESPENAREN HISTORIA

AURKIBIDEA

1. Sarrera
- 1.1. Bizkaiera eta eibarkera: topikoa eta gutxiespena
- 1.2. Euskalkiak indartu euskara batuaren mesedetan
- 1.2.1. Joerak eta irizpideak. Zenbait lekuko hogeigarren mendera arte
- 1.2.2. Bizkaieraren atzerapenari hurbilketa
- 1.2.3. Bizkaitar idazleak XVIII. mendetik aurrera
- 1.2.4. Gipuzkeraren aldeko joerak. Larramendiren itzala
- 1.3. Txomin Agirreren ekarpena
- 1.4. Gipuzkeratzearen arrazoi batzuk
- 1.5. Hogeigarren mendea. Hizkuntzaz kanpoko arrazoiak: aranismoa
- 1.6. Ahots diskordanteak
- 1.7. Eibarko euskara etxeko eta kanpokoan ikusmiran
- 1.7.1. Eibartar idazleak
- 1.8. XX. mendeko eliza eta politikaren arteko gatazka: Eibarko antiklerikaltasuna
- 1.8.1. Lekukotasun bat: *Garoa*
- 1.8.2. Azkue aintzindari
- 1.9. Eibartar sozialisten euskara
2. Hiri-euskara: etorkizuneko euskara
3. Konklusio antzera

4. ERANSKINAK

- 4.1. "Tsirrist" Eibarren (*Euskalzale* aldizkaria 1898)
- 4.2. Gregorio Mujika eta XVIII. mendeko itzulpena
- 4.3. *IDEARIUM* aldizkariko inkesta bat

Bibliografia

LABURDURAK

- ASJU = *Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”*
EB = *Euskeraren Batasuna* (K. Zuazo 1988)
IBIL = *Ibiltarixanak* (Etxebarria 1967)
LEX = *Lexicón del euskera dialectal de Eibar* (Etxebarria 1963)
RIEV = *Revista Internacional de Estudios Vascos*.....

1. Sarrera

*Gutxiespena*¹

Ondoko lerroetan gutxiespen hitzaz jardungo dugu ia etengabe. Gure gutxiespen honek irakurketa bat baino gehiago izan dezake. Onenean, egon daiteke pentsatzen duenik hemen plazaratzen duguna txantxa astun baten ondorioa baino ez dela. Hots, ez duela merezi gai honen inguruan eztabaidatzen hastea. Ez dela, azken buruan, aparteko arazorik izan euskalkien arteko balorazioaz. Egongo da, baina, bestelako interpretazioa egingo duenik. Lerro hauetan barrena iradokitzen dugun bezala, eibarkeraren gutxiespena beste handiago eta orokor baten barruan antzeman daiteke; hau da, bizkaieraren gutxiespenaren kontestuan. Gauzak horrela, galdera berehala dator: izan ote du hiztunarengan eraginik bere hizkuntz ohiturak aldaraztera heltzeraino? Izan ere, bere hizkeraren gutxiespena hurbiletik ezagutu duen hiztunaren baitan ezin dira faktore psikologikoak baztertu.

Labur esanda, eta hipotesia egia balitz, alegia, bizkaieradun hiztun batek baino gehiagok konplexuz beterik hitz egiteari utzi egiten diotela dioen baieztapena, liburu honen zergatia justifikatua legoke.

Galdekizuna

Lan honetan zehar idazgai dugun gutxiestearen barruan bi galdekizun aurreikusten ditugu. Biok elkarren artean zerikusi edo lotura dutenak direla

¹ Gutxiespen: *menosprecio*, *desprecio*; guttietsi, gutxietsi, gutietsi: *menospreciar*, *minusvalorar*. (Mitx. *Orotariko*...IX-63-64).

ukatu ezin daitekeen arren, banaturik aztertzen saiatuko gara, nahiz eta gertatuko den, egin ditzakegun zenbait hausnarketa bientzako balio izatea. Horrela bada, alde batetik, bizkaieraren arazoa ikusten dugu, eta, bestetik, eibarkera edo Eibarren hitz egin izan den berbetaren auzia. Berritasuna baina, gure lerroen harian aspaldidanik ezagutu izan den bizkaieraren gutxieste tazitoaren barruan, eta, aipatuko dugunaz batera, eibarkeraren gutxiestea agertzen zaigula izango da, XIX. mende hondarrean sortu, eta XX. mende honetako lehenengo urteetan bere euskarri idatzia izango duena.

Galdekizunotan, beraz, eta, hasteko, bizkaieraren inguruan isuri izan diren iritziak laburbiltzen ditugu. Gure asmoa bizkaieraren gutxiestearen problematikari oratzea ez denez zehazki, haren ildo nagusiak erakutsiko ditugu. Bigarrenik, eibarkeraren gutxiestea jorratuko dugu: noizkoa den, bere iturburuak, zer bilakabide izan duen, kontrakoak eta aldeztaileak.

Azkenik, eranskinean, Eibarko euskaraz ez ezik eibartarron gainean mendearen lehenengo herenean luzatu ziren zenbait iritzi ere emango ditugu.

Bi langune

Gure ikerketan bi langune edo plano atzematen ditugu. Bizkaieraren gainean ari garela, argi dago, iraganak erakusten digu, datu objektibo bezala, alegia, bizkaiera idatzia gipuzkeraren atzetik ibili dela. Oso subjektiboa da, ostera, bizkaiera gipuzkera baino euskalki akasdunagoa, trauskilagoa delako

baieztapena.

Gauzak horrela, eta subjektibitate horren barruan, eibarkera bizkaierak osatzen duen sistemaren zati izanik, haren ustezko ajeen parte izateak ez dezake inor harritu. Hipotesi bezala pentsa liteke zenbaitentzat eibarkera bizkaiera txar bat dela.

Datu objektiboen bila, baina, gure helburua iritzi hori, zuzen edo zeharka, zabaldu edo zabalarazi duten lekukoak aurkitzea izango da: horretarako, disziplina desberdin zenbait kontuan izango ditugu. Alderdi soziologikoa, historia hurbila, oro har, eta, noski, hizkuntzaren beraren historia.

1.1. Bizkaiera eta eibarkera: topikoa eta gutxiespena

Contu barri bat zujedidu da

Errebaleco Colean eta andragasteen artean².

Horrela hasten dira Eibarren 1685 urteko abuztuan kantatu ziren *Kopla Zaharrak*. Hasiera ezin esanguratsua gure Herriko mintzairaren espiritua islatzeko. Koplakari anonimo haren bi hitzek: *zujedidu* eta *Colean*, gure azpi-

² 1685ko *Kopla Zaharrak*. Egoibarra, Eibar, 1992.

euskalkia aro modernoan bilakatuko zenaren zantzua ematen digute. Izan ere, aipatu hitzok gure azpi-euskalkia izan denaren isla -berriro diogu- izan daitezke: lexikoaren ardura ez gehiegi alde batetik, horra hor *zuyededu* hori, eta bestetik *Calean* hitza gure euskarak ezagutu duen *hiri-izakera* azpimarratuko lukeena. Garo edo belar usain gutxi izan du hemengo hizkerak; asfaltoari itsatsiagoa egon da beste edozerri baino.

Lanaren helburua Eibarko euskarak -mende honetan zehar uste dut eta ez aurrerago- izan duen gutxiespena -edo txarrespena nahi bada- aztertzea litzateke. Gutxiespen hori bizkaierak nolabait izan duenaren, eta egun ere duenaren (?) barruan kokatuko genuke Eibarkerarekiko areagotua, gure ustez. Eibarko euskara aski urrun aurkitzen da gipuzkeratik baina ia era berean arrotz xamar enbor bereko albo-bizkaiera estandarretik³. Eta *euskalgaito* hitzegiten denaren ustea⁴. Halere konplejorik gabe hitz egin izan den

³ Historian zehar elizbarruti berberean egon izan dira: Eibar, Elgoibar, Aginaga auzoa (Eibarri dagokiona), Plazentzia, Alzola (Elgoibarren auzoa) eta Aizpilgoeta -egun Mendaro herri askearen zati- eta oraintsu arte Mutrikurena zena. Gaur egun Eibarko euskera *zubi-euskalki* den Elgoibarkeratik urrunago dago Plazentzieratik baino, bere kidetasuna Ermukoarekin batez ere gordetzen duela. Markinakoarekingo aldea, ostera -Etxeberritik hasita- aski nabaria da XX. mende hondar honetan.

Ikus honetaz Piquero, S., 1991, *La demografía guipuzcoana en el Antiguo Régimen. Parroquias por corriedos*. 1587-1787.

Bestalde, XIX. mendera arte Eibar Calahorra-La Calzada-ko elizbarrutiaren magalean egona da. Hain zuzen 1862ko apirilaren 28ra arte. Jarraian Gasteiz izango da buru, Donostiakoa osatu arte. Aztergai geratzen da oraindik -guk dakigula behintzat- elizaren eragina -apaizen izendapenaren bidez- eliztarren hizkuntz ohituretan (Ikus 1.4. epigrafea). Halaber, aita Omaetxebarriaren ustetan, zertan oinarritzen den ez badu ere esaten, Eibar Kalahorrako apezpikutegian izan zen artean, ez omen zen gipuzkeraren eragina nabarmendu (ikus bere “Del folklore vasco. Sobre el poema viejo de Arrate”, *Eibar* 1963, abuztua-iraila).

⁴ Konplejo horretaz eta beste hainbat gauzaz mintzo da Villasante (1988:34).

⁵ *Recordando la guerra*. (1992: 164).

berbeta. Toribio Etxebarriak ezin zehatzago bataiatu zuen harako: “vascuence de piezas de aluvi3n”⁵.

Hurrengo itauna Eibarko euskara mordoilo omen denaren oihartzuna nondik etorri den galdetzea litzateke. Eta zergatik. Nork edo nortzuek bultzatu zuten⁶.

Eta honen guzti honen aurrean zer dio herriak? Gauza nabarmena da, bizkaiera hiztunek -oro har- bere euskalkia gutxiesten dutela gipuzkera beti ere *garbiagotzat, dotoreagotzat* joaz. Adibideak ugari dira. Biltzaileen lekukoak jasotzerik baino ez dago. Adostasuna ezin handiagoa da: “Haiena, Tolosa-aldekua, kiputz-aldekua da ona” adierazten diote Candido Izagirreri oiñatiarrek⁷. Eta horrelaxe seguruenik beste hainbat herritan. Alderantzizkoa ez nonbait. Ez da giputzik, nonbait, bizkaiera hobetzat joko duenik.

Kanpotarrak ere ohartuak ziren euskaldunen arteko eztabaida hartaz. Humboldt-ek berak ere bere 1801-eko bidaiaria famatuan horren lekukotasuna jasotzen du: “Pero más chocante es la porfiada disputa, de dónde se habla el vascuence mejor y más puro? Marquina en Guipúzcoa (sic) y Durango en Vizcaya mantienen en esto incuestionablemente la primacía”⁸.

⁶ Duela berrehun urte ere *topikoak* bazirela Mogelen honako hitzek iradokitzen digute. Bizkaiera eta gipuzkera aurrez aurre jartzen zituelarik adierazten zigun bizkaieraren gutxiesleak, berak “máximas populares” deitu zituenetan oinarritzen zirela beren argudioen sostengu. Arbuiatzaileak ezjakinak izateaz gain: “no haver hecho jamás el menor estudio sobre su inteligencia” salatzen ditu (*Cristaubaren icasbidea edo...*1987: 89).

⁷ BRSVAP XXIII, 1967: 158.

⁸ *Los Vascos*, Auñamendi 103. zkia, Donostia, 1975, 71.

Jarraian gipuzkeraren eta bizkaieraren arteko harremani gainbegiratu bat emango diegu, eta, ondoren, XX. mende honetan eibarkeraren inguruan esan direnak papereratuko.

1.2. Euskalkiak indartu euskara batuaren mesedetan

Beharrezko oharra

Gure lanari ekin baino lehen esan beharra dago ez gatozela euskalkiak *versus* euskara batua eztabaida zahar, eta guretzat antzu, berbizte asmoz. Ez. 80ko hamarkadan zalantzak izan baziren arlo honetan, egun, esan daiteke, gipuzkeraren batuarekiko hurbiltasunak besteongan sortarazten duen begittankortasunaz kanpo, euskalkiaren funtzioa askoz zehatzago ikusten dela. Azken urteotan ugaritu diren herri-aldizkari askok frogatzen duten bezala, -batzuek, egia esan ez gehiegi, batuan baitatoz ia oso-osorik-, euskalkiaren esparrua garbiago ikusten laguntzen dute. Alfontso Irigoyenek 1992an esan zuen legez:

Beste alde batetik, euskara batuaren onartze zabala ezagutu delarik, zer gertatzen da euskarak bizi-bizirik dituen euskalkiekin? Ene ustez ahaleginak egin behar lirateke ahal denik eta bizien iraun dezaten euskarak berak iraun dezan nahi baldin badugu, zeren euskara biziko bada euskalkiek ere bizirik iraun beharko baitute, euskalkiak desagertuko balira euskara batua bera ere desagertzeko arriskuan gertatuko bailitzateke.

Irigoyenen azken pentsamendua eztabaidagarria izan daitekeen arren - euskarak bizirik iraun dezake euskalkirik edota azpi-euskalkirik gabeberaren nahi nagusia, hots, euskara batuaren eta euskalkien osagarritasuna, euskaldun guztiok izenpetzen dugula pentsa daiteke. Euskalkiak bizirik nahi ditugu euskaldun askok beren batbatekotasuna, berbetaren freskotasuna, beraietan baino ez baitu aurkitzen.

Lan xume honen asmoetako bat, beraz, euskaldun hiztun gizabanakoak bere herriko mintzairaren nolabaiteko berreskurapen beharraren konzientzia izan lezanekoa litzateke. Bada baina bilakaera hori oztopatzen duen zertzeladarik. Tokian tokiko berbetek ez dirudi gehiegi estimatzen direnik. Guri dagokigun kasuan, batez ere. Izenburuan aipatzen den bizkaieraren gutxiespen hori badirudi ez dela oraindik ere itzali eta hona egin nahi genukeen ekarpen sotila. Aspaldidanik ahantzia zirudien iritzi hau nahita edo oharkabean berritzultzen ari dela somatzen baitugu. Urteek eta euskaldunon gure historiaren ezagupen handiagoak apaldu badute ere, hor hemenka entzuten dira oraindik ere bizkaieraren txarrespenezko esamesak eta beroien artean noski gure eibarkera ere -nola ez!- aipagai da. Duela ez asko entzun nion gure irrati-gizon bati -inolako intentzio txarrik gabe seguruenik- telebistan -maizegi bere ustez- entzuten zuen bizkaieraren *antza* hitzaren inguruan jardunean. Kexu edo sentitu nuen. Bien bitartean irrati-telebista ofizialetan txokokeriak eta erabilera gaiztoak ez dira gauza bakan.

Mende hasieratik ezaguna dugun hiperbizkaiera hura norbaitek gogoan balu bezala, halako *gipubatu* urri eta gatzik gabeko bat sortuz eta emeki-emeki zabalduz doa *esparru* horretan barneratzen den oro homologatuz⁹. Etnozentrismo kutsuko zerbaitek nonbait gurea baino existitzen ez dela pentsatzera eraman ohi gaitu besteak bizi direnik ere pentsatu gabe. Denon arteko euskaraz aberastu behar dugu gure mintzo komuna txokokeriatan erori gabe. Lekua eskatzen du, bada, bizkaierak ahozko komunikabideetan bere esparrua hartzen duten telebista-irratietan bai eta eskola-ikastoletan¹⁰. Euskara bat guztiontzat baina nork bere ekarpena egitea zilegi joaz. Hori guztion komunikaziorako behar duen hizkuntzaz. Eta horren parean tokian tokiko euskalkiak indartuz, horrela jardunez euskara bera aberasturik aterako baita.

Ez gara baina, berriro diogu, inondik ere euskara batua *versus* euskalkiak planteatzen ari. 1986 urtean hainbat euskaltzaile biltzeko aukera eta ohorea izan zuen Eibarrek. Bertan, gauza interesgarriak entzuteko parada izan genuen¹¹. Hango ponentetako batek J.L.Davant euskaltzainak zuberera eta batuaren gainean zioenaz bat gatoz: “Biak behar ditugu, elgarren laguntzaile

⁹ *Hiper* edo *erdigipuzkera* bat aipatzen du J.A.Lakarrak: “Bizkaieraren lekua” (1992: 31)

¹⁰ Honetaz guzti honetaz ikus, besteak beste, Laura Urubururen “Bizkaieraren egoera O.H.O. eta B.B.B. Irakaskuntzan” (1992: 47) non bizkaieraren irakaskuntzak eskoletan dituen arazoak aipatzen diren ama-hizkuntzaren uzteak euskara berari inolako mesederik egiten ez dion frogatzen delarik. Halaber Igone Etxebarriaren “Bizkaiera Euskal Irrati eta Telebistan” (Ibid.: 55); eta azkenik Roman Berriozabalen “Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusitik Bizkaierari ematen zaion tratamendu sozio-politiko” (Ibid.: 59).

¹¹ Liburu batean bildu ziren hango hitzaldiak: *Euskara Euskalkiak*, Eibar, 1985.

da osagarri”.

Biek bizi behar dute. Ez du baina batak hil behar bestea jori eta aberats bizi dadin. Osogarriak ditugu. Ez luke etsaigorik izan behar. Bakoitzak bere esparrua ongi finka baleza. Liburu berean (1986: 145) Txepetxek Iñazio Agirrerri adierazi zion bezala: “hizkuntz standarrek estatu espazioa hartzen dute, beste hizkuntza standarrekin borrokatzeko, eta euskalkiek berriz, eskualde eremua”. Arazoa beste nonbaitetik dator: (...) “Baina gure kasuan euskarak (batuak) nazio eremurik ez duenez gero, eskualde mailan ari da borrokan euskalkiekin; gaztelania eta frantsesarekin egin ordeztu”.

Eta euskalkia aberastuz guztion euskara aberaste-lan honetan bada alor bat lehenbaitlehen gauzatu behar duguna. Eta ondoko hau hasieran esan dugunaz lotzen dugu. Hain zuzen, beti euskaraz bizi izan denaren belaunaldiaren *oihartzuna* jaso behar dugu. Joaten ari zaizkigu zaharrak eta beraiekin *esate, mintzatze-era* bat liburuetan maiz jasotzen ez dena. Beraien prosodia, esakera..., gureganatu behar ditugu gure mintzoa -beti ere *ahozkoaz* ari gara- ez dadin horren *ortopedikoa*, horren motel eta gatzik gabea izan. Laburbilduz, bada, hona gure ustez danon zeregina dena: alde batetik, gure herri edo eskualde harremanetarako euskalkiak edo azpi-euskalkiak landu eta gorde ditzagun. Bestetik, ez dezagun gure euskara baino ez dela existitzen dioen uste horretan temati jarraitu. Eta azken hau euskaldun *zahar, burugogor* xamar horientzako mezua izan liteke. Hau guzti hau adierazi ondoren egin dezagun historia apur bat gure testuetan zehar.

1.2.1. Joerak eta irizpideak. Zenbait lekuko hogeigarren mendera arte

Epigrafe honen izenburuari loturik, XX. mende arte bizkaieraren gainean izan diren iritziak eta jarrerak laburbiltzen saiatuko gara. Bigarren ahalegin batean herriko azpi-euskalkiari lotuko gatzaizkio, amaitzear dagoen gure mende honi lotuz zeinetan ikusiko dugun legez hizkuntzaz kanpoko arrazoiak agertuko baitira auzia nolabait *polarizatuz*.

Adierazi berri dugunaren ondoren, esan daiteke, lehen susmo bezala luzatuz, euskarak, oro har, mendetan zehar -guk dakigunez XVI. mendetik hasita- erdararekiko defentsan etengabeko apologian jardun duen bezala, horrelaxe aritu izan dela, kemen eta helburu gutxiagoz jakina, bizkaiera, gipuzkera eta, bidenabar, implizitoki euskararekiko¹². Horra nola emaromaro eraikiz datorren gipuzkeraren gailentasun intrinsekoaren topikoa.

Bizkaierak gipuzkerarekiko egoera diglosiko batean funtzionatu izan duela

¹² Ez da horrelako aipamenik falta izango bizkaitar autoreengan. Obra tajuzko bat dutenen artean, behintzat. Horra hor adibidez Mogelen hitz aspertu luzea aipatu berri dugun bere *Cristaubaren icasbidea*-ri damaion hitzaurrean. Hitzaurrea zeina ia-ia barkamena eskatzera datorrela dirudien aipaturiko katezismoa *bizkaieraz* idatzi duelako. Bi orrialde luze eskaintzen dizkio gaiari -defentsatik erasora- kirol terminoak erabiltzea zilegi balekigu. Giputz hiztunen erdirakoikeria damu du: “Solo si, que el Guipuzcoano es mas afectuoso, y su tal qual ventaja consiste, en que asi los Vizcainos, como los Navarros les oien con gusto, y le entienden quando por el contrario, no se entienden estos mutuamente”. Arrazoi bat bada, nonbait, gipuzkeraren alde. Enparauok ondo ulertzen dugu bera, gipuzkeradun ez garenok, ostera, gure artean dihardugunean elkar ulertzen ez dugun bitartean. Baina, halere, eta orain dator eraso: “Lo que yo puedo decir es, que el Vizcaino usa de mejores reglas (asi lo han confesado, los Guipuzcoanos *inteligentes, é imparciales*)”. (azpimarrak nereak dira). Beraz, badirudi hemezortzigarren mende haren hondarrean bazela euskalkien arteko egokitasunaz eztabaidarik. *Cristaubaren icasbidea edo doctrinia cristiania*, 88-89. orrialdeak, Euskaltzaindiaren edizioa, 1987.

esan behar da. Historikoki, gure hizkuntzaren mikromundu honetan gipuzkera, nolabait esateko arazo, gertakari *oihartzunezkoak* zabaltzeko erabilia izaten zen, enparauzkoak, kofradia, auzo, herri edo eskualdeko hizkera bertara soil-soilik mugatzen ziren¹³.

Baina hitzak hitz gipuzkeraren aldeko uhina, ezin boteretsuago agertzen da historiaren harian. Ez soil-soilik giputz idazleen eskutik. Gainerako euskal idazleak zein eta hainbat euskaralari atzerritar ildo horretatik doaz. Gipuzkera hobesteko irizpide batzuk ematen dira. Subjektiboak al dira? Nola neur hori?

Koldo Zuazoren *Euskararen batasuna* deituriko lana jarraitzen badugu, inbentario gisa, konturatuko gara han, gipuzkera ederretsiz biltzen diren arrazoirik gehienak frogagaitzak direla. Euskararen batasuna aitzaki gure historia hurbilean isuri izan diren iritzi andana handi haren laburbiltzea eginez hona zer ateratzen zaigun -beti ere gipuzkerarekiko-: bizkaierak hiztegi urriago du (besteak beste: Bonapartek eta Campionek). Bere hiztegiak *nahaste* handia omen du, hitz arrotzez betea (Gorosabel historialariak

¹³ *Aldatza igaro ta
zelai landa baten
Birjiña ta Semia
Atsegin hartutzen
Lirio berdez jantzirik
dago Arraten altaria
haintxen kantatzen dabe*

*Zerura gura neuke,
zerura boladu,
aingeruak balidakez
heguak prestadu.*

ederki Salbia.

*Arrateko Ama Birjinari bertsoak, Itzaldiak, P. Larrañaga jasoak in
Euskal Esnalea, 1926.*

XIX. mendean). Sinkopa ugari ditu (Larramendik, Archuk). Horra arrazoirik subjektiboenak. Izan ere nork frogatu dezake bizkaierak gipuzkerak baino *erdarakada* gehiago duenik? Zein bizkaiera hartuko luke dioena frogatu ahal izateko: idatzizkoa ala mintzatua? Azken kasu honetan zein herritakoa? Laburtzapen asko omen ditu. Hemen garbi dago hizketa-mailaz ari dira. Zein euskalkik ez du laburtzapenik?¹⁴

Nik: *eman bixko* esaten badut ez naiz ez dakit nongo euskara arraroa hona ekartzen ari. Getariako Azkizu auzoko baserrietan entzuna: *eman behar dizkio* da, nonbait. Eztabaida antzu gerta liteke alde horretatik edozein hizkerak hori baitu bere baliabideetako bat. Euskaldun hark beste bati *litzal*goa zela esan zionean bezala Afrikako soldaduskan. Bestea gehiago galdetzen ausartu ez eta gau osoa pasatu omen zuen hausnarrean non arraio ote zegoen herri hura asmatu ezinean. Biharamunean: *Idiazabal* entzun zuenean desagertu ziren haren zalantzak. Dioguna nolabait berrestera dator tolosar idazle izan zen Jon Andoni Irazustaren adibidea. 1946an argitaratu zuen *Joanixio* eleberrian agertzen diren fenomeno fonetikoak kontaezinak dira¹⁵.

Halaber guztiz subjektiboak dira noski, harako bizkaiera *gogorra*,

¹⁴ Bizkaierak -Archurentzat- sinkopa ugari izatez kanpo -egun laburtzapenak esatea egokiago litzaiguke- beroiek nahasgarri dira: ... "causent souvent de la confusion".

¹⁵ Asimilazioak, bokal arteko kontsonantearen erorketa...Hona sailtxo bat:...*ordun, guztin, buruk, berrik, txikigia*; harrigarriagoak dirudite baina, erratak ez badira behintzat: *bao, oaze, mia, baan*, (baino, oinaze, mina, baina) (1991: 109 eta hh.)

dorpea, trauskila diotenak (Jean Etchepare medikuak esaterako). Hortik landa zenbait iritzi oso bitxi gertatzen dira hara nola harako *bizkaitarrek* besterena errazago ikasten eta ulertzen dutelakoa (Madariaga, Arana). Soziolinguistikaren ikuspegitik oso erraz uler baitaitezke.

Beraz, bizkaieraren hiztunak ikasle prestua dirudi. Bada zerbait behintzat! Bestalde ikasi ez ezik, gizon-emakume hauek gipuzkeraz hitz egiteko *joera* ere badute. Puntu honetaz geroago luzatuko gara. Baina bizkaierari ez zaio aukera gehiegirik ematen. Aspaldidanik -Humboldt-ena salbuespentzat har daiteke, kontuan izanik Mogel izan zuela bide-erakusle Bizkaian zehar-,¹⁶ bizkaierarik dotoreenaren ikur izan den Markinako euskara¹⁷ bera ere, *sendoa, errotsua* da, baina ez pentsa *Gipuzkoakin antz eta kidetasuna* duelako da hori nonbait, norbaitek iradokitzen digunez¹⁸. XX. mendera arte itxaron behar izango dugu arrazoi zentzuzkoak entzun ahal izateko. Beroien artean paradajikoki, *elukubrazio* ezin handiagotan sarturik jardun zuen bizkaitar idazle batek Soloeta-Dimak, hain zuzen, ematen dizkigu bildurik guri beroietako batzu arrazoi aski objektiboak

¹⁶ “Pero más chocante es la porfiada disputa, de dónde se habla el vascuence mejor y más puro. Marquina en Guipúzcoa (sic) y Durango en Vizcaya mantienen en esto incuestionablemente la primacía”, (*Los Vascos*, 1975: 71).

¹⁷ Gure arora itzuliz Gotzon Garatek ere bere baserririk baserriko euskara biltze lan horretan Markinako euskarari irizten dio *euskal egituren* aldetik hutsik gutxienik duena. Bizkaierari dagokionez neskata baten simila jartzen digu: *aurpegi itsuska* omen du, baina: “bihotza, birrikak, gibela, osasuntsu dituen neskata”. Badaki gainera zergatik zenbaitek gipuzkera bizkaiera baino *goxoago* jotzen duen: *fonema leunagoak* hartzen dituela eta *belarrietarako goxoago* omen da. (1988: XV).

¹⁸ Onaindia'tar J. “Aita Prai Bartolome, Euskal-Idazle, E.G. 1955. (*EB* 1988: 155).

iruditzen zaizkigunak: “El gipuzkoano -dio- es hablado por un mayor número de personas, (sic) el más céntrico, el más afín a los demás dialectos, y el de más influencia sobre todos”¹⁹.

Honekin amaitzeko azpimarratu egin behar da 1936 urtea bitarteko euskararen batasun beharraz bizkaiera hobesteko agertu ziren idazle gehientsuenak aranazaleak eta, gehienetan, *pisu gutxikoak* genituelako bere garaian euskal letretan²⁰. Hor ditugu: Gaubeka'tar Bitor, Iñaki Aba Txoliñoduna, Manuel de Egileor...Prestijiodunak -nolabait esateko- hara nola Bittor Garitaonaindia zaldibartar antzerkigile ezaguna gipuzkeraren alde azalduko dira idazteko garaian behintzat²¹.

Honetaz guzti honetaz garai hartan eta gerra ostean -gehienetan batasunaren aitzaki- sortu zen kasuistika ezin handiago izanik lantxo honen asmoetatik

¹⁹ *Ensayo de la unificación de dialectos baskos*. (1922: 6). Ildo beretik zihoan esaterako Belastegigoitia'tar Perderika gipuzkeraren alde bere arrazoiak plazaratzen zituenean: Arrazoi geografikoak: “Euskal-Erriko erdian aurkitu ta artuemon geyen duan Gipuzkoako izkelgia bada”. Horrekin batera erraztasuna dago berori ikasteko zeren: “Gipuzkeraren berezko ezbardintasunak (diferencias esenciales) oso txikiak dira”. Azkenik, eta hau bai dela grabea garaiko bizkaitar idazleentzat: “Bizkaitar irakurleai -Gipuzkerak, alegia- gaur geyenetan idazten dan bizkayera garbiak baño neke gitxiago emango die”. Garaiko garbizalekeria neurritz kanpokoaz ari dela dirudi. Ikus: *Euskera*, 1922, “Euskerearen batasunatzaz”, 106-110. orrialdeak, batez ere.

²⁰ Bizkaieraren aldeko idazle haiek, bada, garbizalerik amorratuena ziren.

²¹ Garitaonaindia *Argia* astekariaren sortzaileetako bat izan zen 1921ean. Gipuzkeraz idatzi ohi zuen. Irakur esaterako bere: *Ipuin Laburrak umetxoentzat*, Editorial Vasca, Bilbao, 1922.

²² Oraindik ere bizkaiera gutxien duten gipuzkeradun idazleak gehiago dira alderantzizkoak baino. Euskalkiak batasunik gabe bere horretan jarrai zezatenen aldeko sutsua izan genuen aita Mokoroaren iritziz: “Y lo que con los escritos guipuzcoanos ocurre a un vizcaino, ocurre igualmente a un guipuzcoano respecto a los escritos vizcainos. (Y también es preciso confesar que hay guipuzcoanos que desdeñan leer escritos en euskera vizcaino, y acaso sean más éstos que aquéllos)” (1971: 81)

urrun geratzen da²². Halere laburbilduz esaten ausartuko ginateke Euskaltzaindiaren Arantzazuko Biltzarraren inguruan (1968) eta ondotik hezurmamitzen joanen dela neurri handi batean, batzuetan saihesten bidetik bestetan zuzen harira joaz, -esaterako aditzaren batasunaren inguruan- euskalki egokienaren eztabaida. Bataren eta bestearen aldekoek beren *datoak* mahai gainean jartzen dituztelarik ²³.

²³ Ikus esaterako””Aditzaren kodifikazioa”, in EB 403.

1.2.2. Bizkaieraren atzerapenari hurbilketa

Bizkaierak *aje* ugari du. Lehenengo eta behin bere batasunik eza nabaria da. *Besteak* baino beranduago idatzirako jauzia egin izanak ere badu zer ikusirik, noski. Guri, XX. mende honen azken hatsetara iritsi zaigun bizkaiera, alegia, oso desberdina da haran batetik bestera, herri batetik aldamenekora. Arratiatik, Bermeora, Elantxobetik Eibarrera, eta hemendik Leniz aldera bertara ere esaterako alde handia dago²⁴. Egia da gainerako euskalkiengatik ere gauza berdintsua esan daitekeela, baina, halere, bizkaierak ez du gipuzkerari asko edo gutxiago onartzen zaion batasunik. Eta badirudi barreiatze hori gehituz joan dela Aro Modernoan. Bestalde bizkaiera euskararen bazter-euskalkia da²⁵. Beste muturreko zuberera bezala, gehien urrutiratu dena erdiko euskalki den gipuzkeratik (?). *Bazter* horrek²⁶ arkaismo hitza dakarkigu nahi eta ez gure lokietara. Arkaismoak adierazi nahi du erabilgaitz, alperriko, maiz egunera jartzeko zailtasuna.

²⁴ Nahiz eta Campi3n-Broussain txostenean besterik esaten den. Bonaparteren euskalkien sailkapena dela eta, A taldea deitzen duelarik bizkaiera honela diote:

“El grupo A comprende al vizcaino solo, el m3s homog3neo, compacto y denso de todos. Eta aurreraxeago: Sus tres variedades son tan poco abultadas, que apenas frisan al calificativo de sub-dialectos”. Azken adierazpen hau kategorikoegia iruditzen zaigu. Izan ere goian aipatzen ditugun herrietako euskalkien arteko aldeak fonetikan, morfo-sintaxian, aditzean bertan, lexikoan, entonazioan, ez baitira txikiak. “Informe de los se3ores acad3micos A. Campi3n y P. Broussain. A la Academia de la Lengua vasca. Sobre unificaci3n del euskera” 1920an idatzia eta *Euskera*-n 1922.ko ilbeltza-epailan jaso (5. orrialdea).

²⁵ “”El dialecto vizca3no es un dialecto lateral” zioen Tovar-ek (1959: 172)

²⁶ Ez da kasualitatea, gure *bazter*-euskalki bien gutxiespena gertatzea. Euskararen sistema fonologikorik konplexuena duen zubererari dagokionez, Txomin Peillenek lapurtarren mespretxuaren lekukoa jasotzen du. “Bizkaitarrei bezala “euskal gaizto” sentimendu bat sortu, euskararen atzerakadaren zio bat izan dena Zuberoan”. (EB 1988: 163).

Bizkaieraren berezitasunaz

Bizkaierak gainerako euskalkiekiko dituzkeen desberdintasunak haizatu izan dira zenbait aztertzailearen aldetik. Euskalki bitxia, oso bestelakoa omen da, halako moldez non Uhlenbeck batek, esaterako, *beste hizkuntza bat* delako iritzia - euskararen sistematik kanpo- idazten ausartuko den. Iritzi horrek Tovarren eta gero Mitxelenaren kontrajarpena ezagutuko du. Tovarrek, lexiko mailako zenbait arkaismoz kanpo, ez dio bizkaierari antzintasun berezirik ikusten. Euskalki batek beretzat bakarrik dituen formak beste batean ere ager daitezke testuak arakutzen badira, hara nola *-gi-* aditz erroa zeina gipuzkeraz ere agertzen den. Fonetikan ere berdintsu hainbat berezitasun batzuen *larre* eta bestean *larra* ez dirateke oso aspaldikoak. Aditz formak bestalde: “La mayoría de las formas verbales, de aspecto tan característico en vizcaíno son de origen moderno” (1959: 173). Hori guzti hori adierazi ondoren honako ondoriora iristen da: “No tenemos en el vizcaíno un resto de otra lengua afín al vascuence oriental, que en la convivencia, como resultado de una progresiva asimilación, se ha reducido a ser un dialecto del euskera común. Se trata de un dialecto bien caracterizado, pero, en definitiva, no independiente”. (Ibid.: 174). Eta aurrerago: “Creo sinceramente que la pregunta que nos hemos hecho al comenzar está respondida: la personalidad del vizcaíno, bien probada entre los dialectos vascos, no supone en modo alguno descendencia

²⁷Ildo honetatik jarraituz, J. A. Lakarrak, ustez bizkaieraren altxorreko omen liriatekeen 19 tasun morfologiko beste hainbat euskalkitan ere agertzen direla erakusten digu (1992: 15).

del lengua distinta”²⁷ (Ibid.: 175).

Mitxelenak berak, bestalde, bizkaiera gainerako euskalkietatik urundu nahia bazegoela erakutsi zigun. Hain zuzen, hura bereizteko ahalegina halamoduzko metodologia batez egiten zen, salbuespenei orokortasuna emanaz eta berdintasunak zokoratuz.

Garia eta lastoa banandu behar horretan Mitxelenaren ekarpena, bada, ezinbestekoa izan da. Laburbilduz, lexikoan hainbat hitzen kokapen zehatza eginez zein eta gramatikaren beste esparru gehienetan²⁸. Zehatz eta mehatz, batez ere mende honetako fenomeno den hiperbizkaieraren bilakaera aztertzerakoan. Bizkaierari eta, bidenabar, euskarari berari kaltea baino egin ez diona. Bizkaiera-hiztunak trogloditatzat hartzen gintueneko joera²⁹. Altubek bere garaian Azkue kritikatzan zuen honek idatziriko *Morfologia*-ri egin zizkion oharretan³⁰. Izan ere, lekeitiarrak zaharragotzat jotzen zituen zenbait adizki, hara nola, aditz laguntzaile diren: *dauz*, *dodaz*, eta, berriz, *ditut*, *ditu*, *saihestu*, gipuzkeratik erakarriak izan omen zirelako³¹.

²⁸Ikus horren gainean bere *Estudio de las fuentes del diccionario de Azkue*, Bilbo, 1970.

²⁹ Honela zioen, Mitxelenak: “desde hace años, acaso desde finales del siglo pasado, ha hecho estragos el deliberado empeño de confundir el vizcaíno con lo que yo he llamado [... hipervizcaíno, formado con sólo aplicar la regla que sigue: algo es vizcaíno de lengua si y solamente si sólo aparece ahí y falta en las demás variedades de la lengua (de la cual se sigue suponiendo, sin embargo, que es dialecto el vizcaíno); si no se alcanza esa perfección extrema, siempre deseable, algo es vizcaíno en la medida en que no es vasco común” (ASJU 1981: 300).

³⁰ “Observaciones al tratado de Morfología Vasca” (*Morfología*, 1969-III, 110).

³¹ *Logikak* horrela eskatzen omen zuelako, zioen Mitxelenak, Altubek 1936 aurretik esan zuena, nolabait, berretsiz. Eta segidan: “horrexegatik beragatik, *dautso*, *daust* erabili behar omen dira Bizkaian *deutso*, *deust* zokoratuz, “orainaldiak a behar duelako”. Batasunaren bidean gutxietsi dituzte Bizkaian Euskal herri osoko ditu (z) eta bere kideak “giputzak direlako” “Asaba zaharren baratza” (1972: 72).

Horrela, bada, Mitxelenak, Lacombe, Uhlenbeck eta Gorostiagak ez bezala, bizkaiera euskararen enbor bereko adartzat jotzen du. Egungo euskalkiak, oro har, piramide baten beheko zabalean legozke. Zenbat eta atzerago jo historian orduan eta hurbiltasun handiago aurkitu genduke beraien artean³².

Bizkaieraren literatur ekarpen urria

Bizkaieraz idatzi edo Bizkaian beren bizilekua duten idazleek, batez ere, beti azpimarratu ohi dute bizkaieraz idatzitako literaturaren ekarpen urria. Arrazoiak era askotakoak diren arren, nabarmen geratu zen oso euskara batua osatze garaian-zein garrantzi gutxi izan duen bizkaierak gure hizkuntzaren *norabidean*. Pisu gutxi iraganean pisu gutxi orain ere euskara batua osatze honetan. Lurrez hedadurarik handiena zuen berbeta -hegoaldeko goinafarrera desagertu zenetik-baina oso gutxi aintzat hartua. Egia da, aurreratu bezala, bertoko ekoizpen idatzia XX. mende arte ez dela zuberotarrez eginikoa baino askoz handiagoa; oso hurrun

³² Euskalkien arteko hurbiltasunaz ohartzeko Kapanaga eta Betolaza irakurtzea baino ez dago. Gurean bertan, 1685eko Kopletan ere: *ditu, ditus, ditue*, baino ez dugu irakurtzen. Zenbait urte gero, 1691n, Nicolas de Zubia durangarrak bere *Doctrina christiana*-n: *cituzala, citueyan* (*eban* eta *eben*-en pluralgile), *dituzala*, etc., erabili zituen. Beste horrenbeste esan daiteke *egin* aditz laguntzaileaz; lapurteraz ere jasotzen dena. Gipuzkeraz, esaterako, Gerriko goierritarrak (1740-1824) egun bere euskalkikoak joko ez genituzkeen adizki zein erabilera morfo-sintaktikoak erakusten zizkigun; hara nola, zenbait aditz-forma: *deguiobela, deguiogun, deguien*; aditz izena *-ten* egitea: *ecarten, irteten, ipinten*. Zein eta perpaus konpletiboetan *jakin + (e) na*: *Il bear duguna gucioc daquigu*.

Cristau Doctrina Guziaren esplicacioaren Sayaquera Euscarazco Platica edo doctriñetan partituric. Don Jose Ignacio de Guerrico. Mutiloaco Beneficiadunac eguiña, Tolosa, 1858.

³³ Esaterako, 1545-1879 bitarteko aroa hartuz euskal literaturaren produkzioa bizkaieraz 26 liburukoa baino ez da. Zuberera baino (14) gailentzen ez duelarik. Oso goitik geratzen dira Sarasolak orduan nafar-gipuzkera (76) eta nafar-lapurtera deitzen zituenak (78) (1975: 108).

gipuzkera eta nafar-lapurarrarengandik³³. Xumea edukiz eta mamiz. Erka bestela *Viva Jesus* katexima anonimoa eta Axularren *Gero*. Badirudi bizkaieraren patua besteen atzetik ibiltzearena izan dela. Zantzuak ez dira nolana hikoak. Mogelek berak esaterako bere lehen lana gipuzkeraz idatziko du. Eta urte batzuk gero Añibarrok Axularren *Gero* bizkaieratuko du *Gueroco guero* izenaz (RIEV 1925). Bizkaiera *egunera* jartzeko ahalegina. Zenbaitentzat bizkaiera *gehiegi* lantzeak - XVIII. mendean esaterako- ez zirudien komenigarri³⁴.

1.2.3. Bizkaitar idazleak XVIII. mendetik aurrera

Aztergai dugun lan honetan Juan Antonio Mogelen irizpidea ardatz eta bazterrezintzat jo behar dugu. Bera izan baitzen bizkaitar idazleen artean lehenengoa *lexikoari* eta esapide jatorrei garrantzi handia eman behar zitzaizela adierazi ziguna. Bera izan zen bizkaieraz argitaratu beharraren ezinbesteko preminaz ohartu zen lehenengoetakoa: “¿Por que no há de tener la Vizcaia algun monumento eterno, ó fixo de su lengua?” Nahiz eta horrela aritzeak zer dakarkion jakinaren gainean izan: “despreciando las mofas, que harán algunos Guipuzcoanos (que las estoi adivinando) con sola la brebe lectura de cortas lineas, hé resuelto sacarle en el dialecto de este Señorío”. Baina ez pentsa! Bere

³⁴ Bere irizpideetan pertsona orekatutzat jo dezakegun Villasante jauna ere Mogelen garaia aipatzean, haren bizkaieraz idazteko hautapena zela eta, guk ulertu ezin dugun *apriorismo* batean erortzen da: (..) ”se aplicó al cultivo del dialecto vizcaíno. En realidad, esta excesiva cotización del dialecto (azpimarrak gureak dira) del localismo y del provincialismo no parece que a la larga resulte favorable a la causa de la lengua vasca, y tal vez Moguel no dejó de presentirlo”. (1961:207). Ez ote gogorregi bizkaierarentzako? Egia da Mogelen garairako Larramendiren eskolako Kardaberaz, Mendiburu etabar nolabaiteko gipuzkera baten haritik bideratuak zihoaztela. Baina egia da, baita ere, Hego Euskal Herrian behintzat eredu jakin eta segururik inork ez zuela.

lana *erdi-alperrikakoa* gera ez dadin *justifikatu* egin behar izango du: “Mas con la esperanza de vertirle nuevamente en el Guipuzcoano, para que un mismo libro corra en los tres dialectos Labortano, Guipuzcoano y Vizcaino, y se eche de ver de formar sustancialmente una verdadera sociedad de Irurac=bat”. Beraz, *zentruan*, *erdian* gipuzkera dago, eta besteek gur dagie³⁵.

Bizkaiera nahi zuen loratu Mogelek baina ez nolana hikoia. Eibarren jaio baina euskalkiz apur bat urundu egin zitzaigun Mogelen beraren pertsonaia hura datorkigu gehienoi burura. Gure zulo honetako euskara, bada, hiritarra den aldetik (=urbanoa alegia) beti egon izan da -eta nongoa ez?- Peru Abarkarengandik baino Maisu Juanen euskaratik hurbilago³⁶. Zer esanik ez, markinarrak bere tesia sendotzeko ematen dion zentzu hiperbolikoaz ohartzen bagara. Ez dugu ahaztu behar Mogelek Maisu Juanengan ezpaineratzen duen hizkera, lexikoa -batez ere- autoreak berak asmatuak dirudiela neurri handi batean behintzat; hiztun horren *euskelgaiztoa* nabarmentzeko seguruenik³⁷. Izan ere -eta eretxira hartuz- *non* arraio esaten ote zen: *desberguenzea*, *erremientia*?)³⁸.

³⁵ *Cristaubaren icasbidea edo...* Juan Antonio Moguel: “Prólogo al lector”, 90. orrialdea.

³⁶ Fray Bartolome eta Mogelen artean dagoen aldea, *Euscal errijetaco...* eta *Peru Abarka* aurrez aurre jarriaz behintzat izugarria da lexiko mailan. Egia da Mogelen beste zenbait obraren jitea ez dela hain jaso (esaterako maiz aipatzen ari garen *Cristaubaren icasbidea* herritar elizkoiak ongi uler dezan egina) baina halere merezi du gure ustez aintzakotzat hartzea. Izan ere Fray Bartolomeren prosa-hitzak Maisu Juanengandik askoz hurbilago daude ezen ez Perurengandik. Mogelek ez baitzukeen onartuko esaterako: *cansauta*, *descuido*, *diversinoia*, *condicinoiac*, *popuerzacua* (=erd. por fuerza); eta honelako hitz andana erdaratikoak.

³⁷ Tinta ugari isuri izan du Mogelen tesiak. Kupidagabekoenetakoa eibartar-markinar abadearekin Federico Krutwigek “el vasquismo de Abarka” deitu izan du. Ikus *Pierre Lafitteren oroimenez*, Euskaltzaindia, Iker 2, 1982, 320.

³⁸ Batez ere *erremientia* bitxi hori inolako lege fonetikorik jaramon egin gabe. (*Peru Abarka*, 1970: 19)


Bestalde, bizkaieradunek eurek beren gabeziak azaleratzen jarraitzen zuten. Bere iritzietan gizon orekatutzat jo dezakegun Añibarro damu da bizkaitarrek gipuzkeradunek Larramendi izan zuten moduko gidari bat ez izateagatik. Bilarotarrak bide batez haren *Arte*-a goraltzen zuen (1969: 7).

XIX. mendean aita J. M. Zabala bilbotarraren aditz-bildumak 1848an argitaratu zen *El Verbo regular Vascongado del dialecto vizcaino* izenekoan (1927), bizkaiera badela, bizi dela -balio duela, alegia- frogatu nahi bide du. Aipatu liburuan ehundaka adizki biltzen ditu hainbat eta hainbat seguruenik bere garaian erabiliak, beste asko, oster, bere bereko uztatik erakarriak hain era nabarmenez non bizkaieraren -batez ere- *arkeologorik* handienaren iritzi -Azkuez ari gara noski- nekez jo daitezkeen herrikoak. Azkueren *Morfología Vasca* Zabalaren aipuz beterik ageri da, haren lan eskergaren laudorio eginez maiz, baina era berean bilbotarraren hainbat aditz-formaren lekukotasuna zalantzan jarritz³⁹.

³⁹Nahiz eta Añibarrok esan, gipuzkerak bizkaierak baino aditz trinko gehiago zituela Aranaren zerrendak zalantza asko sortarazten zituen. Honela zioen Azkuek: “He preguntado con insistencia en varios pueblos por las familiares de *etorri beite véngase* y *etorri dedin* para que venga. Nadie ha sabido darme *etorri beyeitek* y *beyeiten*, *yadin* y *yadinan* que figuran en las páginas 145 y 147 de Zabala, ni otra alguna”. (628. orrialdea *Morfología Vasca* II. liburukia). Aurrerago 778. orrialdean -berriro ere *Hi eta No* -ko flexioak ditu aztergai- ondoko hau diosku: “Con todo -y dicho sea con todo respeto-, muchas de las flexiones familiares que figuran en esta página, como las de varias otras, parecen deducidas, no populares”. (Azpimarrak gureak dira). Aipagarri bestalde Gipuzkoako Herri Agintarien diru ematea Zabalaren lanak argia ikus zezan. Hura garai hartan Zarautzen baitzegoen misiolari. Gipuzkoan bertan gure historian izan ditugun agintarien jokabide arras desberdinaren lekuko da -gehienetan okerrerako- arestian aipatu dugun Gerriko segurarra zeinek bere bizitza luzean zehar ezin izan baitzituen bere *Sayaquera*-k argitaraturik ikusi.

1.2.4. Gipuzkeraren aldeko joerak. Larramendiren itzala

XVIII. mendean Larramendiren eragina aipatu izan da gipuzkera idatziaren akuilari legez, batez ere fedekide zituen Mendiburu eta Kardaberazengan. Baina denok dakigunez andoaindarraren itzala askoz zabalagoa izanen da. XIX. mendean jarraitzailerik sutuenak izanen baditu ere, bere Hiztegi mardularen arrastoak gureganaino iritsiko dira.



Manuel Larramendi

Baina gure aztergunera itzuliz, Larramendik berak euskalkiak euskararen aberasgarri direla esango digu 1745ean argitarazi zuen bere *Diccionario*-n: “El Bascuence, pues, es mas perfecto con sus dialectos, que sin ellos, assi por lo dicho, como porque es mas copioso, y abundante”. (“De las Perfecciones” 1984: XXVJ).

Bere kezkarik nagusiena -gero *Diccionario*-n agerteraziko duena- lexikoa da. Eta da, hain zuzen, beraren ustez, bizkaieradun eta gipuzkeradunen arteko hizkuntz harremana gehienbat oztopatzen duena. Eta Don Quixote-ren zita bat ekarriaz⁴⁰ frogatu nahi digu hitz sinonimoak erabiltzea irtenbide ona izan

⁴⁰ “Eructar, Sancho, quiere decir regoldar, y este es uno de los mas torpes vocablos, que tiene la Lengua Castellana, aunque es muy significativo: y assi la gente curiosa se ha acogido al latin, y al

daitekeela: “Esto (arestian aipatu euskal hiztunen ulertuezina) nace no solo de ignorarse la diferencia de terminaciones en el verbo, y nombre, y otras partes de la oracion, sino tambien de ignorarse, y no ser usuales en un dialecto una gran porcion de voces, que se usan en el otro. Pues, este embarazo es, el que se quita poniendo sin distincion las voces del Bascuence, para que todas se hagan comunes à todos los dialectos, y todos se entiendan con suma facilidad” (Ibid.).

Halere, 1729an argitarazi zuen *El impossible vencido*-n eta *Diccionario*-n esan zituenak parekatuz badago alderik. Esaterako bere eskualdeko mintzaira onenatzat dutenen ustearen kontra dihoanean. Lehenengoan bere tesiaren aldeko Quintiliano latinetiko zita luze bat erakarri ondoren hona zer dioen:

Lo que aqui refiere Quintiliano sucede a muchos Bascongados, que solo tienen por buenos, y elegantes los dialectos de su Provincia, y es enfermedad comun de los que hablan qualquier language, que admite muchas variaciones segun la variedad de las Provincias, en que se habla⁴¹.

Grinaren eritasuna ei da, baina ba omen du sendabiderik, ez erraza edozein modutan:

Pero es enfermedad de la pasion, que debe curarse con dos onzas de razon, y de inteligencia. Ya veo, que la curacion no es facil; pues aunque es una

regoldar dice eructar, y à los regueldos eructaciones. Y quando algunos no entiendan estos terminos, importa poco, que el uso los irá introduciendo con el tiempo, que con facilidad se entiendan, y esto es enriquecer la Lengua, sobre quien tiene poder el vulgo, y el uso”. (Ibid.: XLVJ).

⁴¹ *El Impossible Vencido. Arte de la lengua vascongada* (1979: 12)

dosis tan corta, es receta que vale mucho, y cuesta mas, ni tiene el vulgo caudal para tanto.

(Ibid. 14-15)

Beraz, aise ulertuko luke edonork auziaren zergatia, baina horretarako adimena behar. Aipamen hau amaitzeko hona zer dioen beti ere euskalkiak gorai patuz:

Yo seguiré en este punto el juicio de Quintiliano, que todos los modos de hablar de las Provincias de Italia, los tenia por Romanos: y assi yo tengo tambien por bellissimos à todos los dialectos del Bascuenze, no solo por que son propios, y no pegadizos de otra Lengua, sino mucho mas por que son muy arreglados, y consiguientes, y con raíces fixas, y seguras.

(Ibid.)

Baina euskalkiak eder eta landu-beharrekoak badira ere, bere horretan, ez zen, orduan, beraien artean, komunikazio handirik Larramendiren iritziz. Hain zuzen, Hiztegiara joaz guk *El impossible*-tik jaso dugun lehenengo puntua, nolabait, berretsi egiten du dioelarik esplizitokoki: “Aunque uno, y otro sepan v. gr. ambas voces *donguea*, *gaistoa*, que significaban malo, el Bizcaino jamás quiere usar del *gaistoa*, ni el Guipuzcoano del *donguea*”⁴² (Salaketa honetatik, eta ñabardura interesgarria izan daiteke, salbu omen gara: “los rayanos que participan de ambos dialectos”) (“De el Bascuence” 1984: XLVIJ). Are

⁴² Euskalkien *impermeabilitate* honi buruz mintzo zen Peñafiorida Kontea bere *El Borracho Burlado* operaren hitzaurrean, baina oraingo honetan giputz hiztunak eurak ere aher direla euren artean

gehiago, elkarren arteko gutxiespena nabaria da: “El Guipuzcoano oyendo hablar al Bizcaino *gura dozu, ez jaramon, astu yataz*, etc., empieza à reirle, y hacer ascos. El Bizcaino hace lo mismo, oyendo al Guipuzcoano *nai dezu, ez malmetitú*”. (Ibid. : XLVJ)

Bigarrengo ebazpen modura *El impossible*-n ez bezala, oraingo honetan gipuzkeraren alde argi eta garbi azalduko da: “el mejor, mas inteligible, y gustoso”. Ez berak bakarrik bestek ere hori omen diote: “y pudiera dar testigos desto en los otros dialectos, que assi lo confiessan”. Arrazoi objektiboak ere ba omen daude gipuzkeraren alde: “el unico, que por todas partes está rodeado de paises Bascongados, de Bizcaya, Alaba, Navarra, Labort, y por esso ha podido conservarse con mas cultura, y esplendor en lo hablado”. Objektiboa da baita Larramendi bera parrafoa amaitzerakoan: (...) “yà que no en lo impresso, en que nos hace ventajas à todos el labortano”.

Ez gara luzatuko gipuzkeraren alde agertzen dituen *tasun*-ak aipatzen: “la expression es mas airosa, facil, y muy dulce”, edota : “ni se sincopan las voces por precipitacion, ò mala costumbre” moduko iritzietan gelditzera. Zergatik

adierazteko: (...) “mi primera idea fue de que toda esta Opera fuesse en Vascuence; pero luego me saltó la dificultad del Dialecto, de que me havia de servir en ella. Si me valia del de Azcoytia huviera sido poco grato à todo el resto del País hasta la frontera de Francia, por la preocupacion (azpimarrak gureak dira) que tienen contra el Vascuence, ó Dialecto de Goi-erri, y si queria usar del Dialecto de Tolosa, Hernani, San Sebastian, exponia à los Actores à hacer ridiculos”. Beraz, badirudi *preocupacion* hori *prevención* bezala ere ulertu behar dela. Hots, nork bere txokoko hizketa defendatzen duela beste edozeinen aurretik.

El borracho burlado., “Advertencia del autor”, Eusko Legebiltzarraren argitalpena, 1991, Gasteiz. *Oposicion* deitzen du bere aldetik Larramendik: “con que los de un Dialecto nacen, y se crian contra los de dialecto diferente”. (*Diccionario*, “De las Perfecciones” XLVJ).

eze oraingoan oinak lurrean dituela Donostiako hizkeraren berri ematerakoan hara zer esatera ausartzen den: “En San Sebastian se ha introducido el abuso de confundir dos relaciones transitivas del verbo activo, y por decir *esango didazu*, dicen ridiculamente *esango nazu* dirasme, como si el me del Castellano fuera acusativo como en *matarasme*”. Aurrerago, ostera, donostiarren alde egingo du: “Exceptuando estas dos nulidades, se habla en aquella Ciudad con grandissimo aire, y distincion, y una expresiva, que les es particular”⁴³. Gustu kontua, bada, baina adibiderik ez.

Azpimarragarri gertatzen da -gero Kardaberazek ere iritzi horri helduko dio-alegia, gainerako euskaldunok gipuzkera hobeto ulertzen dugunaren baieztapena (=“el que se entiende con mas facilidad por qualquier Bascongado”).

Laburbilduz, bada, esan daiteke Larramendirengan irakurtzen dela gero jarraiko mendeetan edozenbat aldiz agertuko den baieztapena -esplizikoki zein implizitoki- hots, gipuzkeraren *berezko* nagusitasuna.

⁴³ Bilboko euskara itzulingururik gabe aipatua da: (...) “en Bilbao se habla mal, pero no assi en sus cercanias”. (Ibid.: XXVIIJ).

Kardaberaz

Ikus dezagun orain nola bizkaiera -idatziz- gutxiesteko joera, nolabait esateko, *barrukoa* ere baden. Aurretik, Mogel baino berrogeitamar urte inguru lehenago Kardaberaz ernaniarrak -Larramendik ez bezala- laudorioz bete zuen bizkaiera:

Bizkaiko itzegiteko era ta armoniak. Besteak bezeñ ondo, ta gauzaren batzuetan bearbada obeto, izkeraren legeak an gordetzen dituzte.

(1964: 68)

Halere *arazoa endogenoa* da, nonbait, zeren: “bizkaitarrak berak, askok beñtzat, gure dialektoan berenean baño predikatzea naiago dute” (Ibid.)⁴⁴. Eta ez hori bakarrik. Kardaberazek bizkaierari zion begirunea etsenplu bidez frogatu nahian bi liburu bizkaieratu zituen. Beroietako batean *Jesus, Maria, ta Joserren devociñoco Libruchoric...deritzan lanean* (1973) “iracurle bizkaitarrari” izeneko hitzaurrean bada pasarte interesgarririk. Ondo irakurri, idatzi eta ahozkatzeko horretan (!) halako konpendiotxoaz luzatzen digu bizpahiru orrialdetan barrena. Bertan bizkaitar irakurlea lagundu nahi du: “bacust iracurten asco chito lotuac direala: eta verba guztiac, eta bacocho euren gustora ezbadacuste, bertan espantuac artu, ta nastuten direala”. Bere helburu

⁴⁴Hemen ere bere maisuaren iritziaren kontra doa. Gogora Larramendik arestian zioena. Han esaten dugunaren osagarri, Larramendik “dificultad casi invencible” dela dio euskalki desberdinen artetik hitzak jasotzearena (“poner sin distincion las voces del Bascuence, para que todas se hagan comunes à todos los dialectos, y todos se entiendan con suma facilidad”). Gure mende honetan Orixek defendatu zuen euskalki guztiak batzeko metodoaz badu antzik.

didaktikoari jarraitzen dio ondoko oharrak emanez: “Amudio” esan, edo “Amodioa”, guztia bat da”...Irakurtzera ohitua ez dagoen bizkaitarra gidatu nahi du, bada, horregatik bere gomendioa: “Ez arren señaic leguez icaratu”.

Jarraian datorrenak irakurlea lasaitu gura duela dirudi: “ezpada guizonac leguez juizioaz bata besteric atara, ta ondo iracurri, ta erraz verba eguin bear dozu⁴⁵. Azken ohar hau zer zentzutan egina dagoen ezin esan. Hitzaurrea “maisuc ondo eracatsi bear dabe” ebatziz amaitzen du. Ezer iradokitzen al digu testu honek? Ez, ez dakigunik. Hots, garaiko euskal irakurlearen -kasu honetan bizkaitarraren- egoera halamoduzkoa.

Arestian aipatu arren kronologian Kardaberazen ondoren datozkigun Juan Antonio Moglek eta Añibarrok bizkaieraren *eguneratze*-premina era desberdinez ulertu bide zuten. Baina ondo pentsaturik *arazo* bat bazegoela plazaratu zuten. Eta horrela da. Juan Antonio Mogel bere lehen lana *gipuzkeraz* idatzi zuelarik onartzen ari zen -implizotiki behintzat- bizkaieraren *oihartzun* apalagoa gure letren munduan⁴⁶. Eta oraindik gogorrago dirudiena. Villasantek dioskunez bere elizkideak gipuzkeraz idatzi zuelako oso samindurik agertu omen zitzaizkion eta *horregatik* bizkaieraz idazteari ekin omen zion⁴⁷.

⁴⁵ *El Impossible Vencido*, (1979: 12)

⁴⁶ *Eracasteac*. Ikus Luis Villasante: *Historia de la Literatura vasca* (1979:206).

⁴⁷ (Ibid.). Bestalde, arestian aipatu dugun Añibarrok Axularren *Gueroco Guero* bizkaieraz jarritz, euskalki honen arestian adierazi dugun landua izateko premina hori azpimarratzen zuen. Itzultzaileen esparru honetan pertsonaia berezitat jo dezakegu Gregorio Arrue (1811-1890) gipuzkoarra, itzultzaile emankorra, besteak beste, *Peru Abarkaren* gipuzkerazko itzulpena egin zuena. Zertzelada honek Mogelen lan hark sortarazi zuen jakinmina adieraz dezake.

Gure elizgizonek euskaraz idaztearen zergatia azaldu behar ohi zuten beren liburuen hitzaurreetan. Areago bizkaieraz egiten bazuten. Frai Pedro Astarloak -filosofoaren anaiak- bere *Verbaldi*-ei egin zien sarrera-eskaintzan beste zenbait gauzaren artean bizkaieraren beste patu baten berri ematen digu. Alegia, bere batasunik ezarena. Seguruenik euskalki literarioa bilakatzeko beste oztopo bat gehiago bilakatu dena -nahiz eta Astarolaren adibideak guztiz axalekoak diren-. Zail ikusten du, bada, Bizkaiko herri bakoitzeko eran gauzak adieraztea, eta “guchiago escrivieta”. Izan ere, “leku batzubetan dinue, bacocho: beste batzubetan, bacotza. Erri baten garija, beste baten garia”...Baikor da halere, nahiz bere baikortasun hura harrigarri iruditzen zaigun orain: “Vizcaico erri ascotan predicadu dot euzqueraz, eta gustijetan esan deuzte, ondo, eta ondo aitu dabeela esan dodana”.

Ikusten dugu, bada, egoera. Alde batetik gipuzkeraren indarra nabaria dugu hizkuntza nola edo hala jorratzen zen leku bakanetan. Honen parean bizkaierazko zenbait elizgizon beren euskalkia landu beharraz ohartuak daude, arestian ikusi bezala. Baina lekuko idatzi askok bizkaieraren bidea malkartsua dela erakusten digute.

1.3. Txomin Agirrereren ekarpena

Zein euskalki gailentzen zaion zeini, eztabaida egiazki ilauna dugu, baldin eta eztabaida arrazoi subjektiboetan oinarritzen badugu, orain arte bezala. Garbi ikusi zuen hori Txomin Agirre apaiz eta idazle ondarrutarrak. Datozen orrialdeetan Txomin Agirrereren *Garoaren* zenbait pasarte kritika-bide bilakatuko baditugu ere, ez da horrelakorik gertatuko



Txomin Agirre

hark euskararen euskalkiez eman zituen iritziez. Bakoitzari berea eman behar zaionez esan dezakegu Agirrek ezin hobeto asmatu zuela euskara *hobearen* auzian bere *Kresalan* argitaratu zuen hitzaurrean.

Eleberri hartan egin zion hitzaurrean oso ongi jo zuen harira gure ustez⁴⁸. Hitz-atari labur baina trinkoan Agirrek ezin garbiago utzi zituen gerta zitezkeen euskalkien arteko eztabaida-puntu guztiak:

1.- Euskera aberatsa da baina “bere aberastasunak toki batean esiturik eztagoz, Euskalerra guztian zabalduzik daukaz”. Eta aurrerago zehaztu egingo digu non: “Bizkaia’n legez Gipuzkoa’n, Gipuzkoa’n legez Naparroa’n, Naparroa’n legez Frantzia’ko anaien artean”.

⁴⁸ *Kresala*, Kuliska Sorta, Zarautz, 1954. 1906an liburu eran argitaratu zen, baina 1901etik *Euskal Erria* aldizkarian irakur zitezkeen.

Baina bizkaiera zehazki nolakoa den ere adieraziko digu. Bere laztasunak badituela, diosku ondarrutarrak; halere:

2.- Hemen ez du inork harrotzeko motiborik:

(...) eztot esan gura Gipuzkoa'koa edo beste lurralde batekoa bardiñagoa, samurragoa edo akats gitxiagokoa bada edo ezpada. Gaur, bizkaitarrez lantxo au egitean, Bizkai'ko akatsak idoro ditut; biar, gipuzkoatarrez zerbait egiten ba'dot, ba-dakit Gipuzkoa'ko izkuntzearen utsuneak billatuko ditudana.

Gauzak garbi beraz. Baina are garbiago jarri nahi ditu jarraian, euskaldunon *gabeziak* nondik datozen zehaztu nahi digunean:

3.- Euskalduna ezikasía da bere hizkuntzan:

(...) antziñetatik dabil gizonen auan; baña liburuen orrietan oraindaño atzo goizekoa da ta izkiratzallien lumeak ikutu, palagu, txera ta leunketa egin dautsa gaur artean.

(azpimarrak gureak dira)

Irtenbidea nork bere euskera baztertu gabe besteena ikasten saiatzea da. Euskarak euskal hitzun guztion beharra baitauka.

1.4. Gipuzkeratzearen arrazoi batzuk

Aurreratu dugun bezala (ikus 1.2.1. epigrafea), bizkaiera gipuzkerarekiko harreman diglosikoan bizi izan da. Lekukoek aditzen ematen digutenez maiz beheko funtzioetarako gordetzen zen⁴⁹.

Bestalde, orduan euskalkiak kultoaren bidez batu zitzakeen erakunde bakarra Eliza genuen. Baina denok dakigunez, irizpide zuzenez garai hartan, hark apaiz bat herri zehatz batera bidali aurretik bertako euskalkia aintzakotzat hartzen zuen gehienetan. Baina Eibar bezalako muga-herrietan, badirudi, euskalkiari baino gehiago probintziari begiratzen zitzaiola⁵⁰.

Ez zen baina beraiengan bakarrik joera hori ikusten. Notableen aldetiko *gipuzkeratzeko* joerak aski hedatua dirudi. Bergarako Udal Artxiboan Iñaki Zumaldek aurkituriko 1783ko itzulpena esaterako ildo horretatik doa. Euskaratzailea bergarar bat izan zela esaten zaigu⁵¹.

⁴⁹ 13. oin-oharrearaino aipatu dugun legez.

⁵⁰ Eibarren XX. mendean izan diren apaizen euskalkia bizkaiera izan da, agian, nagusi, baina bere jardura gipuzkerarantz jo duela esan daiteke. Gurea bezalako muga-herrietan, badirudi elizkizunak, inertzia esplikaezin bati jarraiki, gipuzkeraz egiten direla aspaldi honetan. Aztertu gabe dago elizgizonen joera horrek zein mailatan lagundu zuen herriaren gipuzkeratzean. Pentsa daiteke lexiko berri batetik ez zela pasatuko. Gipuzkeratze horrek, bestalde, ekarri bide zuen hainbat idazlek esaten zuten harako bizkaierazko hiztunek *besterena* hobeto ikastearena. Kardaberazek aipatzen duen bizkaieradunek gipuzkeraz egin behar hura hemen kokatu genuke.

⁵¹ Argi dago aipaturiko itzulpena ez daitekeela gipuzkera soiltzat jo. Edozein modutan garaiko bergaraera mintzatua aski desberdina izango zelakoan gaude. Ikus *Bergarako euskera*. (1988: 317-322).

Adierazi bezala, bada, orain arte bizkaieraren hiztunek bizkaieraz ez idatzi nahiaren egiaztapena izan badugu, badirudi egiaztapen hori gizartearen maila *ilustratuetan* behintzat hezurmamitzen dela. Nahiz eta egia esan, ezin zehatz daitekeen hizkuntz faktorerik ala bestelakorik ere baden. XIX. mendean, hain zuzen, kanpotik datorren gizaseme batek, Bonaparte printzeak, lekuko ezin bikainagoa ematen digu. Bere kolaboratzaileetako bat zen Bruno Etxenikeri 1863an luzatzen dion gutunean bergararrek beren buruak giputz garbitzat (= *de purs guipuscoans*) jotzen dituztela eta ez omen zaie -beren euskalkiari buruz- “biscayen et non pas guipuscoan de Vergara” entzutea gustatzen harro baitira beren gipuzkoartasunaz (= *ils se piquent de l'être...*)⁵². Printzeak baina, Bergarako herri arrunta eta baserritarrak behintzat bizkaieraz mintzo direla ohartarazten dio bere gutunkideari (= *le bas peuple et les paysans*).

Ikusten da, bada, *muga-herri* zenbaiten aldetik halako asaldura zegoela, alegia, bizkaieraz egiten zutela eta, esaten zitzaientean bizkaitartzat joko ote zituzten. Nonbait probintziaren mugak euskalkiarenak ziren haientzat. Euskalkia eta probintzia nahastu ohi zuten⁵³.

Gipuzkeratzearen ustezko arrazoen bila jarraituz, ondoren dioguna

⁵² “Cartas escritas por el príncipe L.L. Bonaparte”, *R.I.E.V.* IV-257, 1910. Julio Urkijok ere iritzi hori zuen R. Trebitsch etnologo austriarrari 1913an esaten zion bezala: (...) “Kulturadun jendeak gipuzkeraz hitz egiten du eta herri xeheak, berriz, bizkaieraz” in Lopez de Arana: “R. Trebitsch: euskal hizkuntzaren eta musikaren grabazioak” (1913) *RIEV* 1998- 77, 97-117.

⁵³ Egun ere, Gipuzkoako bizkaieradun askok bizkaieraz egiten duten gainerako hiztun gehienak beste berbeta batekotzat joko dituzte.

ñabardura txikia izan daiteke baina komeni da hemen azaltzea. Korronteak gipuzkeraren nagusitasun tazittoa agertzen zuen. Haren alde egiten zuen beti bultza gure Probintzian. Esate baterako, herriz herri ospatzen ziren Euskal Festa edo Lore Jokoetan gipuzkera eskatzen zen literatur sarietan parte hartzeko (ugarienak ziren artikuluetan, olerkien sailean, ostera, edozein euskalkitan idatz zitekeen). Horrela aritzen ziren 1896an Arrasaten, 1905ean Bergaran, 1907an Elgoibarren edota 1908an Eibarren, nahiz eta ikusten dugun bezala, bizkaieraz nagusiki hitz egiten den eskualdea izan. Argi dago bere herriko euskalkia bizkaiera bazen nekez aurkeztuko zuela bere burua idazlegai batek.

1.5. Hogeigarren mendea. Hizkuntzaz kanpoko arrazoiak: aranismoa

Ikusi dugu -zertzeladetan bederen- bizkaieraren bilakaera historikoa. Baina XIX. mendearen bigarren aldiari, emeki-emeki bederen, hiri-usaina badario, are gehiago XX. mendeari non gizartea aro berri batean murgildua ikusten baitugu. Arazo sozialak lehenengo aldiz neurri eta hedadura handia hartzen doaz XIX. mende bukaeratik jadanik *huelga* hitza oso ezagun bilakatuko zaielarik langileei. Bizkaian sortuz doan sozialismoaz batera euskal abertzaletasuna sendotzen hasia da Bilbo abiapuntu duelarik. Mugimendu sozial hori zela eta, Bizkaia garai hartan puntakoa bilakatuko da ez Euskal Herrian soil-soilik bai eta Estatu mailan ere. Bertan hartuko du indar handia Pablo Iglesiasen alderdi sozialistak, bertan alderdi komunistaren eragileetako bat izango zen Facundo Perezagua luzaz arituko.

Bestalde, garaiko giro sozialera itzuliz, esan XIX. mendearen azken aldian etorkin kopuru handia hartuko dutela Bilbok eta bere inguruak. Etorkin erdaldun horiek nekez euskaldunduko dira. Politikagintzari dagokionez, haietako asko Elizari laket ez zaizkion alderdietara hurbilduko da. Giro nahasia bada Euskalerrriaren ardatz ekonomikoa zen Bilbo eta bere inguru hartan.

Baina euskararen patuak beste nonbait doala dirudi. Hogeigarren mende hastapen hartan hizkuntzaren jatortasuna lexikoaren garbitasunean, batez ere, mugatzeko joera areagotu egingo da⁵⁴. Gero ikusiko dugu Gregorio Mujikaren irizpidea XVIII. mendeko itzulpenaz XX. mendeko giroaren adierazgarri. Euskalarien multzo nagusi batek baietsiko duena. Hainbat idazlek nork *garbiago* idatzi zuten, itxuraz, jomuga. Eta gizakia izanik harri berean behaztopa egin ohi duen animalia bakarra aditza bera *dotoretu* eta *mamutu* egingo da. Eleizalderen *Morfología de la Conjugación Vasca Sintética* (1913) edota Soloeta-Dimaren aditz *jostaketak* (1922) erakusleihu bikainak dira.

Euskara, helburu, agian, onak zituen jendearen esku egon zitekeen, baina euskaltzale haiek nagusiena ahanzten zuten, gure hizkuntzaren etorkizuna hari etengabea zihoala, hots, aurrekoek eraiki zuten oinarrietatik aurreikusi behar zutela, hau da, ezagutzen ziren agirietatik (literatur idatziaren tradizioa, alegia). Ez, oster, irrealtasunez beteriko ikuspegietatik.

⁵⁴ Lexiko kontu honetan ere pentsa liteke erdaratiko hitzak *neurritz kanpo* botatzeak hiztun horrengan suma litekeen nagitasunaz landa, euskaldunon artean *azkarrago* ulertzeko bidea ere izan zitekeela. Larramendik ematen digun adibidea lekuko. Erdarazko *cansar*-en euskal ordaina aipatuz: “Aricatu se usa en Bizcaya, unatu en Labort, necatu en Guipúzcoa, **cansatu** en todas partes”. (*Diccionario* 1984, primera parte, “De las perfecciones”, XLVJ). (Letra beltzak gureak dira).

Baina, tamalez, horrelako jardunbidea zutenak ez ziren edozein. Euskaltzainak hainbatetan, Eleizalde bezala. Giroak, bada, nahasia zirudien. Bizkaieraren egoera zailak, bertan erdara jazartzen ari zitzaiolako, eragin handiagoa izango du. Irudi luke urteek eman dezaketen perspektibatik begiratzuz euskararen berreskuperenerako mugimendua deslai doan askatu berri duten zaldia dela. Anabasa handik eta hemendik⁵⁵.

Baina aranazaleen garbizalekeria hizkuntzaren gerorako kaltegarriena bazen ere ez zen bakarra. Izan ere, bazen hizkuntza *erabiltzeko* beste era bat: maileguak zituzkeen testu *zahar* susmagarriak gupidagabe eralgiak edo baztertuak izaten ziren. Aspalditik zetorren joera: Larramendik berak bere garaian gutxietsia zuen

⁵⁵ Azkuek berak ere jarrera *inkisitorea* zerabilela ematen du eta ez *linguistiko* soila gure ustez behar zukeen legez. Bizkaiera *peto* baten bilatze horretan hara zer esatera ausartzen den bere *Morfología*-n: “Creo haber usado más de una vez en mis escritos flexiones como ekarri zeiala y zeiala que lo trajese él y lo trajesen. Las había oído en la familia, procedentes sin duda de Mundaka. Al consultar al pueblo vi que, por fortuna (azpimarratua gurea da) en todas partes rechazan ese prefijo z”... (*Morfología* 758. orrialdea). Beraz gipuzkeraren *kutsadura* dugun herriok ez dugu zereginik. Ezin konta ahala z-dun flexioak aurki daitezke gure azpi-euskalkietan. Bat aipatzekotan Plazentziako eliz-atarian aurkitzen zena 1790. urtean ezarria. Ez du interes berezirik hemen osorik ematerik baina hona dakartzan hiru adizkiok: (eman) *ceban*, *cebala*, (eguin) *cituban*.

⁵⁶ Nicolao Landuchio-ri buruz ari dela beste zenbait gauzaren artean hona zer dioen: “En el tercero (italiarraren euskara-espainola hiztegiar ari da) que es le Bascongado, no ay nombre alguno de Autor, pero se conoce serlo el mismo Nicolao, en la Letra”. Eta aurrerago: “el tal Nicolao tuvo intencion de hacer tambien un Vocabulario bascongado; y que no sabiendo la Lengua, se valió de Bascongados, que le deparaba la suerte, y estos fueron poniendo los correspondientes que se les ofrecian. Pieza por cierto muy despreciable, (azpimarra gurea da) y que mas se compuso para irrision, que para honor del bascuence. Muy mal escrita en la Ortografia, llena de barbarismos: le faltan interrumpidamente hasta la ltera S muchas voces obvias, y desde la S todas, menos tres, ò quatro”. (*Diccionario*: “De las Perfecciones” XXXVJ).

Landuchioren hiztegia bere hiru hizkuntzatan eginiko hiztegian jakinarazten digunez⁵⁶. Ezagunak dira, baita ere, gure mende honetan Julio Urquijo edo Azkue beraren irizpideak⁵⁷. Ikusten dugun bezala, hizkuntzaren historiaren ikuspegi zientifikoak ez zuen inor aurreikuspen okerretatik libratzen.

Garbizaletasunera itzuliz Bizkaian edo bizkaieraz nahi bada Sabino Arana ardatz duen garbizaletasun sutsu hark irakurketa bat baino izan lezake⁵⁸. Egia da bestalde horrelakoetan jarraitzaileak aintzindaria baino sutsuagoak bilakatzen direla. Hori horrela, ez zioten bizkaieraren patuari mesede handirik egingo *bizkaieraz idazten zuten* garbizale guzti haiek, gainerako euskalki guztietan baino ugaritsuagoak, Koldo Zuazok azpimarratzen duenez⁵⁹. Arriandiaga gogoratzea baino ez dago. Ildo beretik Eleizaldeak berak *Euskal*

⁵⁷ Ikus esaterako Urquijo jaunaren iritzia *Kaniko eta Belxitina* pastoralari buruz. Kurioso da Gregorio Mujikak darabilen kalifikatibo berbera darabilela bilbotarrak aipatu lana epaitzean: (...). "Por otra parte, las pastorales está escritas en un vascuence tan detestable que de muchos de sus párrafos podría decirse con justicia, lo que Azkue afirmó de de algunos catecismos vasgongados: No es necesario traducirlos, porque ellos son traducción de sí mismos". Azpimarra gurea da. Jakes Oihenarte, *Kaniko eta Belxitina*, Kriseilu 18, Lur (Irakur Gabriel Arestiren hitzaurre mamitsua 7-14. orrialdeak)..

⁵⁸ Bilbo inguruan oraindik euskaraz mintzo ziren auzo haiek (Deustua, Begoña...) begibistan zituen Aranak. Haien euskarari mordoilo iritziko ziola segurtzat jo daiteke. Premonizioa bailitzan Abandoko maisuaren *Lecciones de ortografía del euskera bizkaino*-ren argitalpena eta Emiliano Arriagaren *Lexicón bilbaíno* urte berean argitaratu ziren, 1896an. Pentsa daiteke halere Sabino Aranak bere herrikidearen obraren berri izango zuela. Hizkuntza biren artean *kontaktoa* dagoenean *kutsatze* horrek zer dakarkeen ikusirik Abandokoaren *garbizaletasun*-asmoak edo besterentzat *txukuneria* -Azkueren hitzetan esateko- are gotorrangoak izango zirela pentsa daiteke.

⁵⁹ EB 1988: 169.

⁶⁰ Agindu edo mandamentu eran apailatuak datoz eta arestian aipatu dugun hizkuntzaz kanpoko eta barneko arrazoiak nahasten dira. Seigarrenak honela dio: *Euzkera ez nastu*. Zazpigarrenak: *Euzkerarentzat errdel-itzik ez lapurtu*. Zortzigarrena eta bederatzigarrena militantziaren alde eta *biraoen* kontrako aldarrikapen dira. Hurrenez hurren: "Errdaldunen aitziañan, aldiya danean, Euzkera aldeztu, edo Euzkeraren alde-egin. Esakun naiz itz loikorrik Euzkerara ez ekarri. Euzkeraren garbitasun orbangabea iraun-erazo". Eta *agintzok* amaitu ondoren hona Eleizalderen erregua: "Euzkeraz egin, Euzkera iraun-erazo, garbitu ta zabaldu". *Euskal Esnalea*, 1908-11.

Esnalean argitara ematen duen dekalogoak: “Euzkeltzale zintsubaren agintzak” orduko atmosferaren berri eman diezaguke⁶⁰.

Bizkaiera haren norabide ezaren adibide ugari aurki daiteke. Hain zuzen, hizkuntzari prosa orekatu, ulergarria bideratuko zion literatur garapenean ez zen, nonbait, pentsatzen. Aitzitik, norbere ideologiaren zerbitzuan egongo zen euskara bilatu nahi zuten. Mendearen lehen hereneko Bilboko aldizkariren bateko *euskarazko* artikulu arrunt bat irakurtzeari *ekitea* froga bikaina dugu. 1900etik 1936 bitarteko aldian, Gerra Zibila bitartean, alegia, euskalgintza garbizale-giroan murgildua izan zela adieraz daiteke, egin nahi litezkeen ñabardurak barne. Nahaste hartan, beraz, euskaraz irakurri nahi zuen euskaldun erdi-analfabeto gajoak ihesi egiteko moduko panorama zuen. 1933ko uztailaren 30eko *Euzkadi* egunkaritik muestratxo bat baino ez dut hona ekarriko. Norbaiten heriotzaren berri -ez ote trajikomikoa?- ematen duen eskela da. Egun horretako euskal (?) artikuluetan errazena askogatik. Honela dio:

Donokiratu da. Etorri dadixala gorpubaren lorrera. Eta enparau senidiak euren adizkidiari eskatuten dautse gaur arratsaldeko laugarrenean (sic) etorri dadixala gorpubaren lorrera Sondika’ko Iztartza-auzone (Ola)’tik Jon Ugutz Deunaren ertxadoneraño ildegiratu dagijentzat ⁶¹.

⁶¹ R gangordunak egungo grafian ezarri ditugu. Bestalde, garbizaletasunaren espresio idatzia hitz-andana laburrenean ere ager zitekeen. 1912an Bermion itotako arrantzaleen oroimenez E.A.J.-ko ordezkariak ezarri zuten oroitarriak honela omen zioen: “Neure gaizkalia bixi dala ziñesten dot”, *Euzkadi*, 1912, 437. zkia.

Zail zen horrela euskal prosa sendo bat bideratzen hastea. Nazionalismoak bulkarik handiena zuen probintzian egiten zen prosarik gehiena ulertezina zen. Egoera hark jakineko hausnarketara garamatza: hizkuntzak neutroa behar du. Hots, hiztun guztientzako lanabes. Politikaren *idealismoa* hizkuntzara eramatea gizakien borondatearen eragile bezala onuragarri izan daiteke baina ez, inondik ere, hizkuntzaren egiazko egoera ezagutzeko. Aranismoak bere aurretik euskaraz idatzi izan zenari muzin egiten zion bere interesetan ez bazetorren. Bere *ukitua* utzi-nahi hartan, Aranak, Larramendik sorturiko neologismoak alboratu egiten zituen gero, ostera, berak, maiz Astarloaren prozedurari jarraiki, bere bereak sartzeko⁶².

1.6. Ahots diskordanteak

Hizkuntzaren inguruko auzian bi arrazoibide nagusi nahasten ziren: lehenengoa, hizkuntzaren beraren izakerari zegokiona, hain zuzen, aipatzen ari garen hizkuntzaren garbizaletasunari. Bigarrena, hizkuntzaren bilakaerarekin zerikusi zuena. Hots, euskararen osasun ona, ezinbestez, erlijioarekin lotzen zuena. Harako euskaldun> fededun aspaldiko axioma. Arrazoibide biak bat zetozen puntu batean: biek hizkuntzaz kanpoko jatorria zuten, biak hizkuntza minorizatueta gertatu izan diren fenomenoak ditugu. Bigarrenaz geroago arituko garenez, aipa ditzagun, labur bada ere, eta lagin bezala,

⁶² Sabino Aranaren prozeduraz eta adibideez, ikus, batez ere, bere *Lecciones* (1980-2, 810-982), “Egutegi Bizkaitarra” (1980-2, 983-1015) eta “Umiaren lenengo adizkidia” (1980-2, 1016-1066).

nazionalismoaren beraren barrutik euskarari ematen zitzaion tratamenduaz bere ezadostasuna agertu zuten bi izen.

Altube eta Garate oso ezagunak ziren euskal letren munduan. Biok Eibar eta bere ingurua ezin hobeto ezagutzen dutenak. Bata Arrasaten jaioa, bestea Bergaran. Sebero Altube eta Justo Garate. Biak, poligrafoak, politikagintzaren alorrean ere jardungo dutenak⁶³. Garatek, guri orain dagokigun auzian, lexikoaren alorrean egiten ziren demasakeriak kritikagai izan zituen edozenbat artikulu eta argitalpenetan. Altube, berriz, Azkueren haritik, euskarak berez bazituen, ba omen zituen, hizkuntz mekanismoak apailatzen eta erakusten saiatuko zen, arestian aipatu dugun Azkueren antzera beste era bateko garbizale joera hartuko zuelarik⁶⁴. Baina Altubez geroago mintzatuko gara bere Eibarko hizkerari buruz ematen dituen iritzietan. Bertan argi geratzen da euskarak sortzen zituen hitz berriei buruz berak zuen filosofia, arlo horretan behintzat, batere garbizale ez zena. Garaterengana itzuliz esan dezakegu arrazoi askorengatik euskara eta euskalgintzan gizon *atipikoa* izan den bergarar idazleak zehatz eta mehatz azaltzen duela, gure ustez, Gerra-aurreko jokabide haien nondik-norakoa. 1935. urtean Madrilen argitara eman zuen *Ensayos euskarianos* lanean hona zer dioen ezaguna duen bere ohiko ironiaz:

⁶³Lehenengoa alkate izan zen Gernikan; bigarrenak, Garatek, Gorteetarako diputadutza lortuko du. 1931n, hain zuzen, Eibar ere barruan hartzen zuen Bergarako hautesbarrutian, sozialista eta errepublikanoen hautes-batasunaren barruan; Garatek ANV alderdiaren izenean, 2382 boto lortu zituen. Leizaola nazionalista, 627, eta Julio Urquijo, tradizionalista, 613, oso urrun geratu ziren (Unanue, 1990: 141).

⁶⁴ Bere obra gailenak *Erderismos* (1929) Villasanteren eta Mitxelenaoren ohar kritikoak jasoko ditu.

Eso de querer imponer a estacazos determinadas heterografías -como bien dice Unamuno aunque exagerando la nota- y neologismos malos e innecesarios a veces en nombre de pretendidas infabilidades científicas, será muy bueno para hacer un gran rebaño, pero no para captar a ninguna persona que se tenga por algo.

1.7. Eibarko euskara etxeko eta kanpokoan ikusmiran: Leienda beltza eta apologia

Eibarko euskarak izan duen leienda beltz horrek mende honetan du sorburu. Edozein txolartetan, eta euskara kontuan, gurea barregarri geratu izan da nor nongoa den aipatzen hasi orduko. “Hau dok tienpua trigua maduratzeko” moduko esapideak jarri ohi dizkigute nonahi belarri aurrean. Gurean inoiz esan izan ez den *sasi-euskara* asmaturikoan honelako bitxiak entzun behar izaten ditugu⁶⁵.

Eibarko euskal langileriaren munduan, beraien itzulpen automatikoaz kanpo, halako hitzak azkar definitu beharraren premia bazela ezin uka. Lehenengo aldiz euskarak arrapalada betean zetozen era askotako izen haiek irentsi behar izango zituen. Izan ere, nola esan: *partido obrero*, *sufragio universal*, *elector* etabar luze hura? Eibartar sozialismoaren egunsentian, gizon-emakume haiek erdaraz, hainbat eta hainbat, analfabeto funtzionalak ziren garaian -eta euskaraz oso-osoak⁶⁶- estualdi haietan zuzen jotzen zuten harira itzulingururik gabe. Entzun dezagun

⁶⁵ Ikus *adibide* gehiago T. Etxebarriaz ari garela.

⁶⁶ J. Azurmendi (1977: 62).

berriro ere Etxebarriaren testigantza. Horra beroietako lekuko ezin bikain bat: *pueblua* dakar bere Lexikoian, eta honela definitzen du: “Apareció en el léxico socialista para acentuar el sentido más amplio del *demos*, que consagró el sufragio universal”. Eta honelako adibidea damaigu euskaraz: “Len errixa ziran jauntxuak eta zer-galdu eukenak; gaur *pueblua*, ogetabat urte dittuen auzoko guztiak” (Lex. 633). Kanpotiko hitzari, beraz, hizkuntza hartzailean ez zuen harako eremu semantiko berri bat eman nahi zitzaion.

Hitz idatzien historian eman izan dira lehen eta orain hizkuntzaren bortxatze halakoak. Historiak ezagutu dituen matxinada eta iraultzetan arras arrunta izan baita, urte gutxiren buruan lexikoango zentzu-aldaketak, asmakizunak etc. Hor ditugu, esaterako, gugandik hurbilen batzuk aipatzegatik: Frantses Iraultza Burgesa, Espainiako Gerrate Zibila etc. Ildo horri jarraituz *obrerua* ere sasoi horretantxe sortua da betidaniko bihargin hitzari beste kutsu bat eman nahirik (Lex. 577).

Izendatu ditugun bi hitzok eibarkeraren gutxiespenaren arrazoietakoa batera urreratzen gaituzte, hau da, gure euskararen prozedurara hitz arrotza hartzerakoan. Gauza jakina baita hizkuntza batek mailegua datorren bezala hartzen duenean, egokitze fonetiko minimorik gabe, hizkuntza hartzailea ez dela aberasten. Baina pentsa daitekeen legez, Eibarko euskarari leporatu izan

⁶⁷ Lekuko bat aipatzen hasi eta A. Kandido Izagirre biltzaile nekagaitzak ematen diguna egoki datorrela iruditzen zaigu. Bere “Tolosako euskeraren iztegirako gaiak” deitu lanean eta Tolosako euskara garbiena omen denaren iritziaren inguruan hara zer dioen: (...) “lanak izango lirake garbiena zein dan erabakitzeke. Erderakadak erruz entzuten bai-dira emen ere. Bat bakarra jartzeko, ta bera aundientxoa, **onbretxaparrua** esaten dute “espantapájaros” adierazteko”. Eta ez pentsa bilketa hori Tolosako kale-zuloan egin zuenik. Inondik ere ez. Berak ongi zehazten digunez: “Uzturre-azpiko Tolosarra ta Ibarreko baserritarra artu dizkiet. Beste zenbait, Belauntza ta Leaburukoai”.(BRSVAP XXIII-1967; 157. orrialdea). (Letra beltzak gureak dira).

zaion *akats* horretatik ez da inongo euskara libratzen. Inongo euskarak ez du gainerakoei eskaintzeko eredurik⁶⁷.

Bakoitzak bere astoari arre esan ohi da. Gure Iparraldean ere aspaldidanik zekiten nonbait non mintzatzen ziren euskaraz *egokien*. Honela zioen P. Urtek bere *Biblia Saindua*-ren itzulpenaren hitzaurrean: “De toute la Cantabrie françoise ou l’on parle le meilleur basque c’est dans la province de Labour qu’on nomme Laphurdi et surtout à St. Jean de Luz et à Sara”⁶⁸. Antzera mintzatu zen Etxeberri Sarakoa bere herriko euskararen bikaintasuna jasoz: “iÿatu naicen herri guztietan, bethi entÿun iÿatu dut (bat-bederac entÿun ahal iÿatu duqueen beÿala), guztiec aho batez aithor hau, eta laudamen bera emaiten diotela Saraco escuarari”. (EB: 154). Edota autore berak *erakutsi* nahi duenean: *bere eskuara* (Sarakoa noski) *garbiaren edertasuna*⁶⁹. Laburbilduz, bizkaiera-gipuzkeradun hiztunez ari bagara ere lan honetan barrena, beste horrenbeste gertatzen zen lapurteraren ustezko nagusitasunaz zubererarekiko⁷⁰.

Hemen noski pentsatu beharra dago idazle haiek beren txokoko euskararen

⁶⁸ P. Urte, *The earliest translation... Introduction*, Vinson-en edizioa, Oxford-eko Unibertsitatea, 1894.

⁶⁹ *Lan Hautatuak*, Lur Kriseilu, Donostia, 1972-21, 139.

⁷⁰ Txomin Peillenek adierazten zuen bezala, 26. oin-oharrean aurreratu dugun legez.

⁷¹ Esaterako, plaentziatarren euskera beren ahoskera bereziarekin *txa-txa* eta *sa-se-si-so-su* ugariz: *Ensun, esan dotxat* (=entzun, esan dotsat); edota makina bat txiste eragile izan den harako: Ziklismo lasterketan: “Nun datok baina guria? Asian dator” (=Atzian dator). Plazentziako *hautxerri*-euskera, beraz, bai eta ermutarrena -azken hau gurea baino *gogorragoa* omen- zeinen ahoetan honelako esaldi sinesgaitzak jartzen diren: “Hi ama, Osvaldo Bilbora joan don”. Amari hika eta txakurrari zuka egiten omen diote eta.

ohiko laudoriarekin batera, herri hura euskara egiazki maitatzera bultzatzeko xedea ere bazutela. Bestalde, euskara gaiztoena bilatze horretan, *herri-pentsakera* zegoen, inorena beti txarrenatzat jotzen zuena, alegia. Eibarkoak, Plazentziakoari egiten dio destaina, eta honek Bergarakoari; azken honek ere aurkituko du noren lepo barre egin etc. etc. Gurea baino traketsagorik badelako tema zentzugabeko honetan eibartarrok geuk ere *uste* izan dugu besteren kontura barre egitea zilegi dela⁷¹.

Eibarko euskararen tresnatasuna

Baina iritzi azken buruan guztiz subjektiboez aparte, Eibarko euskarak ezagutu izan duen ikurrik argiena bere praktizitatea izan da. Gauzak, hiri-kontestu batean, euskaraz esateko grina, nahiz eta adierazi nahi dugunak euskal ordainik izan ez. Villasantek darabilen hitz batez adierazteko *tresnatasuna* izan ohi zuten kontuan gure aiton-amonek eta horregatik *dena* euskaraz emateko aztura guztiz osasungarria⁷². Hain zuzen, gure Euskal Herri honetan faltatu izan dena aspaldidanik. Goiko-klaseen, sarritan *euskal* boterearen harietan sarturik zeudenen erdaraz bizitzeko zaletasuna ez bezalakoa. Horretaz kezu zen lan honetan maiz aipatuko dugun Gregorio Mujika bera:

Euskalerrian zerbait diran gizon geienen artean, erdera besterik ez da aditzen, esaten dutenez euskera arrantzale ta baserritarren izkera dalako,

⁷² Luis Villasante, 1988: 55.

⁷³ Elgoibarko Euskal Jaietan 1907an “Euskeraren alde” deitu hitzaldian. (*R.I.E.V.* I-544-547). Iritzi berekoa zen, denok dakigunez, Lizardi.


kalte beste gauzarik egiten ez duen izkera bat dalako! ⁷³

Eibartarrak, ostera, eta gure mende honen hasieran bertan adierazi den bezala, euskaraz, orduan, *takian da potian* egiten zuen. Hitza nola dotore zitekeen pentsatzen hasi gabe. Bestalde, esana dugu hasieran bizkaieraren aldetik gipuzkera bere *gainetik* zegoelako ustekizun horrek bultzaturik halako defentsa edo behintzat apologia xume bat nabaritzen dela. Arestian aipatu adibideak lekuko. Beste horrenbeste esan daiteke Eibarko euskararen gainean. Eibartarrok -Iturriotzen artikuluaaren parrafoan bereziki ikusiko dugunez- beren euskalkia goratzen hasiko dira, *besteen aurrean omen* dituzten bitxitasun eta edertasunak goraiatzatzen.

Hurbiltze laburra egin ondoren goazen orain gure euskararen inguruan protagonismo handiago izan duten zenbait idazle aipatzera. *Mezu* bat ageri da edozein modutan guztiongan, eta *konstante* batekin: Eibarko euskarak merezi du. Ez da besteak baino eskasagoa. Inoiz goraiatzatze handia egitera heltzen dira. Goraiatzaileetariko batzuk guztiz ezagunak dira eta, lehen eta orain ere, sona handikoak ditugu: Orixe, Altube, Omaetxeberria. Beste batzuk *herri-mailango* idazleak deituko genituzkeenak: Iturriotz, Etxebarria; nahiz eta berek burutu zuten lana oso estimagarria eta laguntza handikoa izan gure azpi-euskalkiarentzat.

Seber Altube

Seber Altube euskaltzain arrasatearraren irizpidea arrazoindua dator. 1960an Eibarren Euskaltzaindiaren Biltzarrean J. A. Mogeli gorazarre egin zitzaionetik, ondoko hau zioen: “Eibartarren euskera gramatikaz, garbi eta jator izan da beti; gaur ere bai; baiña iztegitik mordoillo fama ematen diote askok. Fama ori ere ezta egiazkoa⁷⁴”.



Seber Altube

Haren hitzak parafraseatuz *gure* euskara *izan litekeenik ere onena* da hiztegi mailan eibartarrok jokaera *errealista* izan dugulako. Bere hitzetan esateko: (...) ”kanpotik eta zetozkien gauza berriak kanpoko izenarekin berarekin artu, au batzuetan; beste batzuetan ongi zamar zerizkien euskal izen zaarrak edo zarberrituak ezarri” (Ibid.). Gainontzekoan ez du akatsik. Bere lanaren lehen pasartea, beraz, eibartarren euskara aitzaki harturik garbizalekerien kontrako aldarrikapena bilakatzen da. Haien ahaleginak ustel dirateke zeren: “Izkera bat, mintzaira bat, errian zabal ta indartsu bizi danean ango itzak, garbikeriz aldatu nai izatea alperrikako lana dala”. Beraz eibartarren arbolak *azala* du behar bada inoiz,

⁷⁴ Seber Altube, “Eibartarrak eta euskera”, (1960: 61).

ezer izatekotan, erdaratikoa, baina *bihotza*, *sena* ezin jatorragoa. Hauxe da, hain zuzen, egun zenbait ikertzailek izan ohi duten irizpidea. Garcia Calvok berak:

Hay ciertamente grados de subsunción (en lo subconsciente) de las varias partes del aparato de la lengua: a grandes rasgos, puede reconocerse que el sistema de fonemas o el arsenal de índices (prosodias, reglas de orden, desinencias y aun partículas) yacen en la capa más profunda.

Eta hiztegia hizkuntzaren azalean ageri dela baietsiz:

(...) En el nivel más superficial y cercano a conciencia está el vocabulario semántico (no las otras palabras, como negación, interrogativos, mostrativos o cuantificadores, que pertenecen al nivel profundo de los índices) y los Nombres Propios⁷⁵.

(Hain zuzen, egungo *basko* askorena: kexu dira euskara batuak ekarri omen duenaren erdarazko hiztegiak -berek ez dakite, sarri, euskaraz- baina hori bai, euren seme-alaben izenak ezin euskaldunagoak dituzte. Hauek ere hizkuntzaren *epidermisan*, *azalean* geratu ohi dira).

Ez ote horixe bera Altubek zehaztu ez baina egiazki iradokitzen ziguna?

Alegia, hiztegia *manipula daitekeela* -barka hitza- baina funtsezkoena

⁷⁵ A. García Calvo, in *Hablando de lo que habla, Estudios de lenguaje*, Editorial Lucina, 1989, Zamora. Batez ere I. kapitulua: “Lenguaje”, 18 eta hh.

hizkuntzaren muina ukigaitza dela? Zio horrekin idatzi zuen, gure iritziz, Eibarko euskararen goraiamena⁷⁶.

Nikolas Ormaetxea *Orixe*

Hogeigarren mende honetan eragin handienetakoa izan duen idazle giputz-nafarrak txera berezia izan zion bizkaierari. Berak aitortzen duenez Bizkaian igaro zituen ia zortzi urteetan bizkaiera ikasi eta lantzeko astia izan zuen⁷⁷. Jakin badakigu bestalde bizkaieraz idatzi ere idatzi zuela. *Tormes-ko itsumutila* izenaz klasikoaren bizkaierazko itzulpena lekuko dugu. Artikuluak ere edozenbat.

Eibarkerari dagokionez, 1960. urtean Karmel aldizkarian (1960) argitaratu zuen artikulu labur batean gure azpi-euskalkia laudorioz bete zuen. Juan San Martinen *Zirikadak* umorezko pasadizo-liburua aitzaki harturik hura

⁷⁶ Villasanteren ustez -bere hitzak irakurriko ditugu- “bi puntu edo sailetan azaldu da batez ere garbizaletasuna, hots, lexiko edo hitz garbien sailean, eta sintaxi, edo zehazki esateko, hitzen ordenazioan, joskera deitzen dugun horretan, alegia” (Villasante, 1988: 45-46). Baina, egia esan, gailen agertzen dena garbizaletasun mailan lexikoa da. Nahiz eta Altube eta besteren ahalegina handia izan enparauzkoaren gainean (Ikus esaterako bere perpausei buruzko ordenaz bere *Erderismos* lan mardulean adierazi eta piztu zen eztabaida).

Gerra aurrean bertan bazen jenderik *garbizaletasuna* lexikoan baino beste zerbaitetan lehenago jartzen zuenik. Hara nola Mokoroa gaztea. *Euskeraren etorkizuna* deitu lan laburrean, euskararen orduko premiarik nagusienak azaldu nahiz hara zer dioen: “¿Baño ez ote litzake lenbizi jauregi zar orren ormak osatu, sendotu eta indar-berritu bear? Esan nai det: arrotz-usai ta kutsu guztiak gutxika gutxika erabat kendu. Ganeko apainduria, itz berrien asmatzea geroxeagoko lana dala iruditzen zait”. (93. orrialdea). Hurrengo orrialdean bere ikuspuntu guztiz berezia laburbiltzen digu tolosarrak: “Guztien buruan, eta esaldi labur batez garbiago adierazteko: lenbizi mamia bear diogu landu euskerari, nere ustez; urrena erderakada, iñaurkin edo zaburrak bildu ta surtan ere; eta itz berri apañak sortzea, azkenengo”. Mokoroa'tar J.M. kalasanzdarra (1928).

⁷⁷ Bizkaieraren aldeko hitzaldi sutsu batean honela dio: “Beste Euskalerrriak be ezaututen dabe

goraipatzen zuen honela:

Amar urteotan idazle barriengandik urten daun liburuetatik -ez dodaz guztiak irakurri- au bakarra irakurri dot atsegiñez, eta atsegiñ andiz.

Egilearen -San Martinen- aitorpenari erantzuten diolarik -alegia, honek hurrengo liburua agian *kiputxez* egingo duelakoan- Orixek bere ohiko teorietako bat aplikatuz: *-nork bere euskalkia landu beza-* bere horretan jarraitzeko aholkatzen dio. Non aurkitzen duen Eibarko euskara erakargarria ondoko hitzez laburbilduko dugu: “Hitzez eta esaeraz oso ugaria da, eta izan litzakeen mordoillokeriak barkatuak daude liburua errirako egiña delako”. Era berean, gure aditzak asko egin lezake batasunaren alde: “Olango amar liburu Euskalerrietan an emen batuak asko egingo leukie aditzaren batasunerako”.

Baina Orixeren goraiamenik handiena hitanoak darama: (...) “Batez ere tota-no darabil ederto. Gaur Gipuz-Gipuzkoan zenbat ete dira berbeta au adituko dabenak? Etxaide aita, Euskalzainburu dana, Eketa, eta beste Quijote’ren bat. Bertoko i’ka ere galdu dabe emen geienak, eta zelan artu besterena?”

1.7.1. Eibartar idazleak

Jose Gisasola (1829-1907). Astarloaren hariko bat

Jarraian zenbait eibartar idazleren iritzia jasoko dugu. Iritziak dira noski eta, pentsa daitekeenez, dena da goraiapatze eta omenaldi beren jatorriko euskarari. Halere, interesgarri deritzogu bakoitzak egiten dituen ekarpenak ezagutzeari.

Jose Gisasola -Vicente Agirre Gisasola sendagilearen idazle-izengoitia- 1829an jaioa eta 1907an Eibarren bertan zendu zen pertsonaia interesgarria dakargu oraingo honetan⁷⁸.

Bizitza guztia bere herrian igaro izan zuen eibartar hau Larramendi zein Astarloa-zale itsu-itsua izan zen⁷⁹. Azken honetaz ondoko goraipamenak egiten baititu: “El más fiel intérprete que ha tenido nuestra lengua, el que mejor ha sabido poner de relieve la fidelidad con que vemos retratados en el bascuence los sentimientos naturales del hombre en la infancia de las sociedades”. 1883ko ekainaren 8an Manterolari bidali zion gutunean bere herriko euskararen defendatzaile sutsu agertu zen. Kexu da Arturo Campionek idatzi duen *Ensayo sobre leyes fonéticas* lanaz. Gorazarre dagio iruindarrari, baina jarraian iparraldeko euskalkietan inspiratu delako bere arrenkura agertzen dio, izan ere beste euskalki haiengatik dio: “conceptúo como los más corrompidos del bascuence”. Eta jarraian bere herriko euskara goraipatuko du: “Perdone, pués, esta amistosa censura...el que viviendo considera su dialecto como uno de los más nativos y puros que se hablan en la euskal-erria, y que no puede, por esta razón, vérlo sin cierto disgusto olvidado en obras tan importan-

⁷⁸ Hemengo bere bizitzaren gaineko datu nagusiak J. San Martinek bilduak dira (*Eibar*, 1959-27, 10-11).

⁷⁹ Argitara eman zuen liburuaren izena gogoratzea baino ez dugu: *Tentativas de reconstrucción de nuestro lenguaje natural y el problema de la palabra* (Eibar, 1898). Horretaz kanpo Manterolaren *Euskal Erria* aldizkarian idazten zituen euskal etimologiei buruzko artikulua ditugu (ikus bibliografia). Bonaparte printzearekin ere izan omen zuen harremanik. Ikus *EGAN* 1972, XXXII. Juan

tes como de hecho lo es, el ensayo sobre leyes fonéticas á que me refiero”.

Aipamen luze xamar honetan ikusten dugunez, Gisasola bere herri-euskararen aldezaile fidela izan genuen. Ez gaude, egia esan, filologo baten aurrean, edonolako hitzi halako etimologia bitxia aurkituz, Astarloak esanak berretsi nahian datorren apologista berantiar baten aurrean baizik. Baina hura baino urte dexente geroago. Horregatik Unamunok arestian aipatu dugun bere liburua irakurri zuelarik honako hau esan omen zuen: “Su libro es a la lingüística actual, lo que la astrología de antaño fue a la astronomía de hoy. Lástima de ingenio mal empleado”⁸⁰.

Toribio Etxebarria

“Eibar’ko euskeria, euskeraz erabiltzen dittuelako an bizi-moduko autu guztiak, erderakada geixagokua beste alde batzuetakua baño; nun erdera zaldunera jokatzen dabe, ataittik aurrerako gauzetan” (Lex. 358).



Toribio Etxebarria

Etxebarriaren hitz horiek ezin zuzenago doaz auziaren gunera -hogeigarren mendean oraindik ere- Etxepareren harako *jalgi hadi plazara* betetzen ez zela

⁸⁰ Arrazoia eman beharra dago oraingoan Unamunori, Gisasolak *Euskal Erria* aldizkariko artikuluetan, etimologia bitxi haiek eztabaidatzen ez dituenean, gure azpieuskalkiko hitz eta erabilera bakan baina interesgarri batzuk eskaintzen baitizkigu.

ikusten baitu. Izan ere *ataittik*, -ataritik kanpora alegia- erdara *zaldunera* jo ohi du euskaldunak salatzen du eibartarrak.

Guztiz ezagunak ditugu Toribio Etxebarriaren lanak eta ekimenak; ez gara bada hemen horretaz larregi arituko. Zertzelada zenbait baino ez ditugu emango. Erabat autodidakta izan zen gizaseme hark adibide politta eskaini zion euskaldungoari bere Venezuela-ko exilio behartu hartatik euskarari eman zizkion ordu luzeen bidez. Toribioren figuraren berezitasuna bere ideologiak damaigu: euskaraz obra mardula idatzi duen lehenengo sozialista izatearekin batera, Espainiako Estatuaren batasunaren proiektuan sinesten duen pertsona dugu.

Baina hizkuntzaren ikuspegitik jarraituz, gure herrikideak ere ez dio bere azpi-euskalkiaz esaten denari entzungor egingo. Bere obra kapitala: arestian aipatu dugun *Lexicón del euskera dialectal de Eibar* zein eta nagusiki bertsoz idatzi zuen *Ibiltarixanak* bere herriko euskararen inguruko zuzen edo zeharreko aipamenez josiak datoz.

Etxebarriak ez du isilduko bere herriko euskara -besteak diren bezalatsu esango genuke guk- motza, ataritik kanpo ozta-ozta irteteko gai dela adierazten duelarik: “Zertako -iñoiz deste esaten- Eibar’ko euskera laburrian bertso-gintzan buru austia” (“Galtzia balitza be”...Ibil.: 378). Hurrengo batean halako *mea-culpa* bezalako bat jaurtikiko du; *armozua* hitzaz ari delarik: “gosarixa, voz recesiva en Eibar, a causa de la generalización viciosa del erderismo” (Lex.: 155). Honelako esamoldeak: “erderismo que se debiera evitar, voz que

ha sido avasallada por un erderismo, voz que se ha naturalizado” etc., oso arruntak dira Lexikoian. Jakina, Etxebarriaren asmoa, euskara ahal denik eta garbiena erabiltzearena, alegia, ez dugu askoz ere hertsia goa izan ohi den garbizalekeriarekin nahastu behar. Idazleak zilegi du berari egokien irizten dion hizkera erabiltzeko, ez baina, euskal letretan mendearen lehenengo herenean maiz gertatzen zen bezala, irakurlea erdarara jotzera behartu zerbait ulertuko bazuen.

Eta egoki datorkigu, bada, Toribio Etxebarria aipatzeak Eibarko euskarari leporatu izan zaion *keria* hori zer bilakabide izan duen aditzera emateko. Esana dugu *eibarkera gaiztoaren* mitoa ideologizatua agertzen dela gure mende honetan. Zergatik eze kanpotik eibartarron hizkera -oro har- mordoilo dela esan ohi bada, *barrukoen* artean, arestian aipatu ideologizazioa medio, aje hori herriko sozialistei egozten baitzaie, beraiek balira bezala *errudun*.

Euskara erdaldunduaren erakusgarri ematen diren adibiderik gehienek, giro zazkar, ezain eta nahasi baten irudia erakutsi nahi digute. Gutxietsi nahi duten euskara bera bezain itsusia. 1.8.1. epigrafean ikusiko dugun *Garoaren* pasarte bikiak dirudite. Edozein adibide on zaie:

Mosku'ko kalietan masa obrerua atropellau ebenian. (...) Gobierno centralari

⁸⁰ Arrazoia eman beharra dago oraingoan Unamunori, Gisasolak *Euskal Erria* aldizkariko artikuluetan, etimologia bitxi haiek eztabaidatzen ez dituenean, gure azpieuskalkiko hitz eta erabilera bakan baina interesgarri batzuk eskaintzen baitizkigu.

protestia dirigitzeko manifestaziñua inponentia egin biauau, pueblua masan uniduta ta bandia encabesan dala.

Bada horretaz gehiago T. Etxebarriaren *Viaje por el pais de los recuerdos* liburuan. *Txikillana* honen (Amuategi deituraz) ausardia aipatzerakoan esaten du: “Perteneía a esa casta de vascos desenvueltos a quienes no rompía el discurso la duda de un sinónimo y menos el tropiezo de una sílaba”. Eibartik kanpo ere ibiltzen zenez, bere propaganda zabaltzen suposatzen da, oso ezaguna zen albo-herrietan. Hain hartu zuten bere mitinak ospe handia non askotan bereak ez ziren *bekatuak* berari egozten baitzitzaizkion: “Amuátegui víctima preferida y propiciatoria, cargaba con frases y solecismos que no eran suyos”. (*Viaje*, 224).

Aipatzen ari garen Akilino Amuategi Atxa-z (1876-1919) zertxobait esatea merezi luke. Herriko *Banda la Marcial*-en bombardinoa jotzen hasi zen 12 urte zituela eta ia hil arte beraren partaide izan zen. Pertsona guztiz popularra garaiko egunkariak harrotzen baditugu behintzat. Batzuentzat barregarri gerta zitekeen, behar bada, bere jendaurreko jarduna baina bera entzutera joaten zirenek ondo hartzen zutela dirudi. Hona aletako batzuk: “Seguidamente hizo uso de la palabra el concejal socialista del Ayuntamiento de Eibar. Habló en vascuence y se expresó con gran energía siendo interrumpido su discurso con

⁸¹ *Cien años por el socialismo*, Ed. Pablo Iglesias, Madrid, 1979: 18.

frecuentes y entusiastas salvas de aplausos”. Edo beste hau: “Mitin en un pueblo de Vizcaya: El concejal socialista Amuategui dirigiendo la palabra en vascuence a los reunidos, obteniendo tal éxito, que fue llevado en hombros”⁸¹. Tamalez haren heriotzaren urruntasunak eta bizikide izan zirenen ekarpenik ezak beraren berbaldien hitzik ez ezagutzea ekarri digu.

Gizarte giro nahasi bezain interesgarri hartan Amuategiren garaiko testurik luzeena ezagutzen dugu. 1901eko *ADELANTE*-n, Eibarko sozialisten aldizkarian dator. “Caleco biarguiñac basarricueri elesiñuen gañian” du izenburutzat eta datarik gabe dator⁸². Eta esan beharra dago orduan zuen helburua, alegia, baserritarren botoa bereganatzea kaleko langileen hautagaien alde oso ondo lortzen zuela panfleto egileak. Euskara jator, joskera garbi batez egina da, ohiko erdaratiko maileguak sartzen dituela, baina beti ere testu guztiz ulergarria lortuz.

Eibarkeraren gutxiespenaren auzian, kanpokoen aurrean eibartarrok denok baturik egin ohi zaio aurre *irainari*., eta gure artean? Arestian aipatu dugun

⁸² EIZIE elkartearen aldizkaria den *SENEZ*-en eman zuen argitara B. Azpirik (1991-1, 118-119).

⁸³ Eta horrela da. Eman ohi diren euskara traketsko adibideak *haien* munduarekin zer ikusirik dutela suposatzen baita. Agertu ditugun lekuko idatziez kanpo, ahoz-ahozkoak: zehaztugabeko garaietako manifestazioak, mitinak aitzaki. Hasi kanpotik etorririko politikariaren pasadizoa, zeinak mitina euskeraz entzun ondoren Udaleko idazkariak ea itzuliko zion -hori galdetzea ere!- galdetu zionean berak honela erantzun omen zion: “No, no deje, no se moleste que ya entiendo”. Edota arestian aipaturiko *Txikillana*-renak.

Halere, 114. oin-oharrean aipatzen dugun Celaya izeneko haren aitortpenak euskara garbiaren kezka sektore askotara zabaldua zegoela susmarazten du.

⁸⁴Eibartarron artean ez ezik, kanpotarrek ere ezagun zuten bereizketa hori: “El Eibar creyente y el Eibar anticlerical” (*Idearium*, 1935-399)

bezala, bada halako uste bat edo, gehienetan azaleratzen ez dena, eta, jakina, sozialista ez direnek kanporatu ohi dutena, *errua* beraiei leporatzen diena⁸³. Seguruenik, mende hasierako goitar eta behetar haien arrastoa dateke⁸⁴.

Hogeigarren mende honetako euskararen nolakotasunaren historia gehienetan hitzaren inguruan ibili da jira-biran. Giro apologista oraindik itzali gabe guztiz, gerra osteko autore askok *euskararen garbitasuna* izan dute goiburu.

Honen guzti honen aurrean ez da, beraz, eibartarron errua euskaldunok, oro har, hitzari -lexikoari- garrantzi *gehiegi* eman izateagatik. Ikusi dugun bezala, Larramendirengandik -gutxienez- datorren joera⁸⁵. Hizkuntza minorizatua izateak euskararen alor hori jende askok gehiegi baloratu izana ekarri du. Aspaldiko apologisten planteamenduekin loturik datorrena. Izan ere, euskararen bertuterik handiena bere antzinatasuna omen zelarik, askoren aurreikuspenetan eta *besteen* aurrean ustezko bertute hura frogatzeko, hots, normalki euskaraz ez zekien jendearen aintzinean *hitzera* jo behar, nahi eta ez, *beraien* izenak *gure* lanabesen bidez interpretatu ahal izateko. Pozak XVI. mende urrun hartan egin ohi zuen bezala. Eta beste hainbatek geroago.

⁸⁵ Euskal Hiztegitza bi izen handiren artean egon izan da gure garaira arte. Alde batetik Larramendi eta bestetik Azkue. Honek ezin bil hark biltzen zuen balizko neologismoa. Halaber, Azkuek bere aldetik galbahe berezi bat ezarriz noiz erdaratik hitza jaso behar den erabakiko du, gehienean herriarengan oso sustraiturik dagoela deritzon; hara nola: *eskola*, *maisua*... Edozein modutan gure hiztegitza zutabe aski eskasak ezagutu dituen *etxola* izan da. (Ikus artikulu adierazgarria: “¿Léxico perdido, léxico inventado?” Julio Caro Baroja in *Homenaje a d. Odón Apraiz* 1982, 107-116).



Antonio Iturriotz

⁸⁶ Ez da behar bezainbeste balioetsi Eibarko euskarak bere umiltasunean sortu zuen dinamika. Hitz teknikoan sailean *politikoekin* ez bezala maileguak euskal itxura hartzen zuela ezin uka: Esaterako frantsesetiko *échantillon*> txantxilloia; *bec d'âne, bedane*> bedana. *Smith* pistola marka ezaguna> esmita. Etabar, etabar.

⁸⁷ Hain izan zen handia Debarroko langileen migrazioa non 1797. urtean Oviedon bilduriko Arma fabriketako *diputatuen* eskarietako batek honela zioen: “Que a causa de que la mayor parte carece de inteligencia en el idioma castellano, mayormente las mujeres, se hace indispensable un confesor instruido en la lengua Bascongada, y un cirujano de las mismas circunstancias”. Luis Adaro Ruiz-Falco, 1986, *Los comienzos de las fábricas de municiones gruesas de Trubia y de armas de Oviedo (1792-1799)*. Instituto de Estudios Asturianos, Oviedo. 414.or.

Antonio Iturriotz (1900-1984)

1936 urtea geroztik Ameriketara exiliaturik bizi izan zen eibartarra. Barojaren itzultzaile, besteak beste. Ohi denez bere herriko euskararen alde zerbait idatzi zuen Mexikoko deserritik. Hasteko, hona hemen haren hitzak. Aipamen luze samarra bada ere, uste dut ongi datorrela hemen adierazteak, hain zuzen, eibartarrok beti harro egon izan garen gauza baten gainean dihardu eta. Alegia, gure *euskara teknikoaren* -nolabait esateko- *jatortasuna*⁸⁶. Eta ez hori bakarrik. Iturriotzek adierazten digunez, Asturias aldera lehenik XVIII. mendean, jarraian XIXaren hasieran frantsesengandik ihesi, eta mende honetan zehar geroago bertara jo ohi zuten eibartarrek eraman omen zituzten hainbat hitz⁸⁷:

⁸⁸ Ramiro Larrañagak armagintzaren historiarako ekarpen ez gutxi egin duen gizonak bere lan batean ere honela dio. Laburbildurik emango dugu: “Hace unos años se comisionó a un mecánico ajustador de la Fábrica de Artillería de Placencia de las Armas, para que fuera a Trubia a reparar un cierre de cañón. Una vez allí y en su puesto de trabajo precisó una sierra de mano dirigiéndose al compañero más próximo, asturiano él, solicitando la herramienta, y éste, a su vez, dijo en alta voz a otro: ¡Oye trae un epaiki! Sorprendiéndose el placentino, el de Trubia le aclaró que allí se denominaba así a la sierra manual”. *Aportación Vasca a las fábricas de armas de Asturias*, San Sebastián, 1974.

⁸⁹ Langintzan erabili izan diren operazio, tresna etabarren izenak euskaraz eman izan direlako harrotasuna beti eraman du berekin eibartarrak. Etxebarria, Iturriotz, eta beste hainbatek bezala exilioan bizi beharra izan zuen Luis Ormaetxea *Isasi*-k. Ordudaniko egunkari eta astekarietan aldian-aldiko idazle, hona zer zioen *Tierra Vasca* aldizkarian 1958ko irailean,- hasieran Iturriotzen argudio bertsuak erabiliz-: “Erdal itz asko sartzen ditugu baina beti euskeraz diardugu, erdaldunek coreanoek ekarri dute erdera eta”. Eta horrekin guzti horrekin batera hona zer gehiago: “Eibar oso aurreratua dago, Euzkadi guzian aurretuen bai ziur, burdingintzan. Ez da orregaitik arritzekoa jakitia, Eibar’tarrak euren lantegietan euzkerazko izenekin deitua, len aitatu degun bezela, tresna, erreminta ta euren lanetako artu emoneri. Gipuzkoa’ko beste errietan ere ba ziran industriak, baña Eibar’en mota batekoak bakarrik: burdin-galtzairu lanketak”. Eta jarraian 40 hitz inguruko hiztegitxo ematen zuen, beste ale baterako beste horrenbesteko ekarpena aginduz.

⁹⁰ Antonio Iturriotz. “Etxaitar jaunari”, *Euzko Gogoa*, 1955 (VI). (5).

Eder izango zaitzulakotan atera nai dizut egizko gertaera auxe: Eibar'ko seme banakak joan oi ziran Oviedo'ra, orain berrogeitamar urte eta geiagoz, ango izkilutegian lan egiñen (sic) ⁸⁸. Egintza orren eragipenez, asturiarrek lantegi artan la barautza, la ortza, la ardatza, izendatzen zituzten tresna oiek, gazteleraz broca, cuchilla, machuelo diranok. Eibartar aiek brokia⁸⁹ esaten ikasi bearrez egun ia Euskalerra osoan esaten dan iduri, barautza esaten irakatsi belarrimotxei⁹⁰.

Nork uka hau entzunda Eibarko euskararen *internazionaltasuna*? Baina harrezkerozko jardunak iritzi hutsak dira. Iturriotzek ez du, nolabait esateko, *gure gaitza endogenotzat* jotzen. Aitzitik. Hona zer dioen Eibarko euskararen apologia egiten jarraitzen duelarik:

Bidenabar bai ta esan bear dut, euskal-gaizto ugari baitirala izan gure errian, erbestetik bizibide billa ara egiñak. Ez gaitzazute nastu, arren, alakoez.

Gañera, zer dala-ta izan ote dira oiek euskal-gaizto? Bada gure errian

⁹¹ Herriko zaharrendik iritzi berbera jaso izan dugu. Candido Eguren beterano sozialistak mende hasierako migrazioa agertzearen dataz jardun digu. Munduko Lehen Gerrateak gurean sortu zuen lehen momentuko estualdi ekonomikoaren ondoren arma-eskabideak biderkatu egin ziren. Soldata hobe baten bila etorritako hainbat erdaldunek herri guztiz euskaldun batean halamoduzko euskara ikasi omen zutelarik horiek beroiek ere gure azpi-euskalkiaren irudi txarra zabaltzen hasi ei ziren. Eibarko erdaldunek egiten omen zuten bada *euskal gaizto* hori. Baina euskara ikastera *behartuak* sentitzen ziren zein nahi ideologiakoak izanik ere. Guadalajaratik etorri zen *Kamarro* gatzizeneko *republikanua* bezala. Gure hizkuntzan jardun behar eta erdi euskaraz erdi erdaraz mintzatzen zena. Txarreanean ere etorkin haiek den-dena ulertzeko gai izan behar zuten. Honen guzti honen kontura kontatzen diren pasadizoak amaitezinak ditugu. Hara nola iladan iturrian ur-bila joana den erdi-euskaldun harena. Badatorkio beste bat eta galdetzen dio: -"Azkena zein"? Eta besteak: -*Ni*. Baina etorri berriak gorraizea nonbait eta berriro galde: -"Azkena zein"? Gure gizonaren erantzuna, antologikoa: "Neu *zala* ba"!

bestarik etzutelako, gaizto ta abar bederen, euskaraz ikastea baizik. Euskaraz ikasi edo mintzul arki bear, bai barkileru, bai txapel-okar, bai doxtar, bai frantzitar, bai nolanaiko orok.

(Ibid.)

Beraz, haren ustez *bi euskaldun-moeta* zegozkeen gurean; euskara gaiztoaren errua, ordea, etorkinei egotzi behar genieke. Euskara traketsaren errua kanpotarrei leporatzea ez da, egia esan, oinarri handirik duen argumentua⁹¹.

1.8. XX. mendeko eliza eta politikaren arteko gatazka: Eibarko anti-klerikaltasuna

1.5. epigrafean aurreratu dugun bezala eta historiaren ur handitan sartu gabe, XX. mendean Errestaurazio guztian zehar bezala, Elizak bere eragina darabil Estatuaren eta, batez ere, gizartearen baitan. Bere mendetako indarrak izugarria izaten jarraitzen zuen legeak edo sistema politikoak aldatu arren. Gauzak horrela, Elizaren eta bere eragina gizarte zibilean oztopatu nahi zutenen arteko harremanak oso zailak izan ziren. 1931ko Errepublikak inflexio puntua adierazi nahiko du, nork bere betebeharrak ongi banaturik ikusi nahi duen gizarte berri baten bila. Baina ez da horrelakorik gertatuko. 1936ko Gerra Zibilak hitz egin dezake luze-zabal horretaz.

Beraz, Eliz Erakundearen eta bere nagusitasuna zalantzan jartzen zuten zenbait alderdi politikoren arteko harremanak etengabeko tentsioa ezagutuko

dute. XIX. mendetik datorren bipartidismoak: kontserbadoreak alde batetik, liberalak bestetik, protagonista berriak izango ditu. Fede kontuan ere gauzak noruntz lerratuko diren ohartuko gara. Gizarte mailan liberalismoa bekatua da esaten jardun dute, baina doktrina berrien txertatzeak kezkatu egingo ditu: sozialismoak, komunismoak, anarkismoak, eurek dakartzaten ordurarteko *bake sozialaren* etenarekin istilu puntu bat gehiago sortaraziko dute. Dialektika honetan ezkerreko alderditzat jotzen direnak azalduko dira. Esparru politiko zehatz honetan, bada, izen propio batzuk ageri ziren. Aurkari handienen artean, eta ñabarduratan sartu gabe, mende hasierako hauteskunde garaian *Conjunción* deitzen zirenak zeuden; esaterako: errepublikano-sozialistak, eta gero, Primo de Riveraren diktaduraldiaren ondoren (1923-1930), Errepublika garaian, *Frente Popular* deitu zuten batasunaren barruan ibili ziren indarrak. Ez da baina gure lan honen zioa harreman horiek -edo hobeto adierazi nahi bada harremanik eza- aztertzea. Zilegi bekigu baina zenbait zertzelada aurkeztea darabilgun langaia zuzen ukitzen dutela uste baitugu.

⁹² Eibarrek *uholde* hura ezin izango du bere egin. Euskal Herriko hainbat herritan bezala berrogeitamar-hirurogeiko hamarkadetan gutxi gora behera euskararen erabileraren gutxitzea hasiko baita. Herriko bertsolari batek etorkinen ugaritasuna kantatu zuen orduan. Ondoko hitzok orduko herripentsaeraren erakusgarri badira tolerantzia-maila handia erakusten dute:

*Eibarko asko ugaritzen du
gente kanpokuak/ nonbait bizi bear
Munduan jaiuak/ bizitza ondo eramaten
daude emen kontuak/ aiñbat iausten badira Eibarren
alboerrietakuak/ baña berdiñ estimatzen dira
persona onrraduak.* (Orbe bertsolariak, 1992: 54)

⁹³ Bilbotikako sozialisten Eibarko jiraz jakiteko ezinbesteko dira Toribio Etxebarriaren: *Viaje por el país de los recuerdos* eta *Crónica de un exiliado español*.

Jatorria

Elizaren eta gizartearen zenbait sektoreen arteko harremanak ukitu nahi ditugunez gero esan dezagun zerbait Eibarri *egotzi* izan zaion antiklerikaltasun horren sustraiak non egon ote daitezkeen aztertzen ditugula.

Hasteko, Eibarren beste ezohikotasun bat aipatzekotan esan behar migrazio handi baten ondoren edo inguruan indar eznazionalistak zabaldu ziren herrietan ez bezala, gure Herrian ez dela jende etorrera nabarmenik ezagutu. Horretarako Gerra Zibilaren osteko urteei itxaron behar⁹². Orduko langile berriak gehienbat baserrietatik armagintza ikastera datozen baserriko semeak dira. Bilbotik datoz, oster, Eibarrera ideia sozialistak dakartzaten pertsonaiak: Meabe, Madinabeitia, de Francisco⁹³. Egia da hainbatetan adierazi izan dena, hots, Eibarrera sozialismoa kanpotik *ekarria* izan zela. Baina hori esateak pertsonengan halako haurkeria ideologikoa dagoela pentsatzea suposatzen du, gure ustez. Planteamendu horrekin kristautasuna bera ere kanpotik *ekarria* izan zen, ideiak pertsonak, gizakiak alegia, *eraman-ekarriak* izaten baitira⁹⁴. Garbi dagoena da ideia sozialistak erein-aro ezin egokia izango zutela Eibartar *biharginengan*.

⁹⁴ Bitxia da, bestalde, nola kanpotik etorri eta Herrian bizitzen jarri ziren hiru frantziar etorkinen semeek: Chastang, Pagnon eta Maître Jean izenekoek (azken hau franko-belga) beren eragina izan zuten Herri mailan. Lehen biak sozialista-buruak izatera iritsi ziren Eibarren. Chastang eta Pagnonek Herriko sozialisten hamabostekarian *Adelante*-n idatzi ez ezik zuzendaritza karguak ere izan zituzten 1901-1902 urteetan aldizkariak -hamabostekariak- irauten zuen aldian, hain zuzen.

⁹⁵ Ez eta ere noski garaiko abertzaleentzat. Baina horren lekuko idatzirik guk ez dugu ezagutzen.

Guri dagokigun aztergai honi lotuz, alde batetik garai hartan euskarak bizi zuen giro hipergarbizalea, eta bestetik Eibar *-rara avis* euskaraz mintzo diren ideologia *arrotzeko* euskaldunak aurkitzeak, -honek guzti honek, bada, elizgizonen eragina ikusirik euskal gizartean- zenbait eliztarren artean Eibarko euskararekiko aiherra ernetzen hasiko zuen. Gainera, badirudi fede kontuan mende hasiera hartan egun baino erradikalizatua zegoela auzia, batak ez ziola besteari erraz barkatzen. Galdekizuna jarraian dator: Nola arraio sozialista, hots, *fedegabeko*, eta euskaldun biak batera? Posible ote liteke? Horra koktel irensgaitza gure elizgizonen ez oso gustukoa⁹⁵. Izan ere, Elizaren kontra egiten duen edonor ezin *euskalduntzat* jo.

⁹⁶ Eibarrek XIX. mendetik hartua du aurretik izan ez zuen protagonismoa. Nekazal Gipuzkoa, nolabait esateko, izana zen ordurarte, nolabait esateko, erreferentzia historikoa. Probintziako Batzar Nagusiak non ospatzen ziren ikusterik baino ez dago. XIX. mendean industrializazioarekin badu Eibarrek halako erakargarritasun *politikorik*. Jakin badakigu, esaterako, 1869ko ekainaren 25ean, Euskalerriko errepublikanoen partido federala bertan sortu zutela: (...) “dentro del curso histórico del republicanismo indígena reuniéronse en la villa de Eibar -hoy muy Ejemplar ciudad- los delegados de los federales de Navarra y Vasconia y constituyeron el partido vasco-navarro suscribiendo al efecto un documento que firman”. José Otálora, “De Otálora a Celedón”. (*La Libertad*, 1931-07-21) . XX. mendean, berriz, gizartearengan eragina izan zezaketen gertakari asko izan zen Eibarren. Sindikalgintzan UGTren indar handiaz kanpo, Eibarren izan zuen ELA-SOV sindikatu katoliko-nazionalistak, don Poli abadearen eraginez, bere lehenengo Biltzar Sortzailea.

⁹⁷ “El republicanismo histórico de Eibar, como el de otros lados, de un contenido exclusivamente político, se limitaba a poco más que un anticlericalismo verbal. (azpimarrak gureak dira). Eta zehazten du beheago: “estos republicanos anteriores en una generación a la de los primeros socialistas”. (Toribio Etxebarria, *Viaje*: 27).

Baina jakina, norberaren ikuspegiak arazoa subjektibiza lezake. 1910. urtean Eibarren eta bere inguruan ibili zen Jacques Valdour izeneko frantses historiagile katoliko batek hona zer dioen sozialista beraietaz: “Esos socialistas exaltados son hombres satisfechos de su suerte; nunca se han lanzado a la huelga, pero se entusiasman a la vista de las huelgas y revueltas de los trabajadores de otras localidades, Su socialismo es sobre todo, antirreligioso”. Eta jarraian Eibarren interklasismorik zoriotsuena dagoela erakusten du: “Casi todos los patronos, antiguos obreros, han conservado sus ideas y los hábitos de su vida de asalariados; tratan a los obreros familiarmente y los acompañan al café” (azpimarrarrak gureak dira). “Impresiones de un observador” in Policarpo Larrañaga, 1976, *Contribución a la Historia Obrera de Euskalerría*, Ed. Auñamendi, II/36. orrialdea.

Baina historiara begiratzuz uste oker bat isuri izan da arrazoibide honetan. Agirrek eta Azkuek, besteak beste, eta seguruenik garaiko hainbat elizgizonek, aditzera eman ez zuten bezala, esan behar da antiklerikalismo horrek ez duela Eibarko sozialistengan iturburu. Atzerago jo behar dugu historiaren harian. XIX. mendeko karlistaldiak izango lirateke lehen sorburu, eibartarrak gehienak liberalekin lerratu baitziren⁹⁶. T. Etxebarriaren iritziz, ordura arte erlijio arazotan herri *normala* zenari -beste Euskalerriko edozein bezainbeste- ez omen zitzaion errege absolutista baten patua erlijioarekin nahastua ikustea gustatu. Baina iritziak iritzi gauza da lehen giro laizista izen eta deituraz alderdi errepublikanoen eskutik etorri zela. Eta Eibarren, hain zuzen, Etxebarriak berak *republicanismo histórico* deitzen duenaren haritik⁹⁷. Beraien buru Herriko alkate izan zen Antonio Iturriotz zuten. Aipatu dugun izen bereko euskal idazlearen aita, hain zuzen. Errepublikano edo errepublikazale hauen ideologia egun behar bada liberaltzat jo genukeen esparruan lebilke. Ez ziren sozialistekin oso ongi konpontzen, berauek, besteak beste, beraien epeltasuna giza-gaietan leporatzen zietelarik.

Gure autura itzuliz, eta, laburbilduz, beraz, esan gure orduko elizgizonek sozialismoa korrante -nolabait esateko- kanpotar, *exogenotzat* jotzen zutela herri *euskaldunaren* munduan.

⁹⁸ Txomin Agirre ondarrutarra zen, Eibarrekin harreman solidarioa izan duen herrikoa. Etxebarriak jasotzen duenez, ondarrutarrak itsasoaren menpe hainbatetan, eibartarrak, berriz, lan-merkatuaren *bultzaren* morroi. Gizatalde biak patuaren edo adu onaren esperoan. Hauek lan-arazoak zituztenean haiek arraina doan eskaintzen; eta, alderantziz, lehorrekoak beste haiek sorostera itsasgizonen hondamendia izaten zenean.

1.8.1. Lekukotasun bat: *Garoa*

Itzul gaitezen baina *Garoa* eleberriaren garaira. Zenbait elizgizon euskaltzalek aipatu berri ditugun kezka euren idatzietara eramango dituzte. Iduri luke arestian esan dugun gauza bera pentsatzen ari dela Txomin Agirre bere *Garoan* eibartarren kontra egozten dituen berbetan⁹⁸. Adierazgarriak guztiz bere hitzak: “Bi arpegiak” deritzan atalean eta, batez ere, Eibarko mitiñari dagokiona.

Koadroari hasieratik amaieraraino kanpotar kutsua eman nahi dio Agirrek. Eibarren *ospatu* behar diren haiek *mitinak* dira (*Garoa*, 1966: 289) diñotse nobelako neskameak etorri-berriei. Jarraian Zolaren edo beste edozein *naturalistaren* eleberritik aterea dirudien giroa ematen digu. Agirrereren ikuspegitik ezin ezezkorragoa da orduko giroa Eibarren. *Mitina* aitzaki, Eibarren ezin da ganoraz bazkaldu ere egin; eguraldia bera ere txarra izaten da: *lañoz jantzitako zerupe illunean...* Halere gure apaiz ondarrutarrak ezin du

⁹⁹ *Ipuin Onak* Bizenta Mogelen liburuari eginiko hitzaurrean (1963: 20). Agirrereren informazio-iturri, ikusiko dugun bezala, Azkue izan zitekeen.

¹⁰⁰ Pentsa Urkiolara urteroko erromerira jo ohi zuten herri-erromesen artean burutik pasa ere ez zaio egiten ondarrutar apaizari Eibartik jenderik bertara daitekeenik. Inguruko herri zenbait aipatzen du (Elgoibar...) baina Eibar inondik ere ez.

¹⁰¹ (1966: 293). Eleberri hau 1907-1912 urteen bitartean argitaratua izan zen *RIEV*-en. Eta 1912an liburu formatuan Durangon. Baina idatzia noski gure mende hasiera honetan. Elizgizon artea eta euskaltzale sutsu zen gizon hari eragingarri zitzaiokeen mende hasieran *gurean* sortzen ari zen *obrerismo* euskalduna. Foruen deuseztea bizi ez baina ondare trajikotzat zuen gizaseme batentzat, gogorra izan behar izan zuen Eibarko *kasuak*. *Kanpotik* omen zetorren *liberalkeria* bezala -orduko hitzetan esateko-*euskaraz* mintzo ziren langile haien adibidea. Bilbokoa barka zitekeen -ez zuten euskaraz egiten- baina Eibarkoa harrigarria iruditu behar zitzaien. Harridura hura hazi egingo zen Errepublikaldian euskaldun fededun asko ohartu zirelarik bestelako euskaldunak ere egon bazegoela. *Euzkadi* egunkaria irakurtzea baino ez dago. Kontestoa ere, antzerakoa gertatzen zen: harridura, indar ez nazionalista baten mitinaren ondoren, handik ateratzen zen zenbait jendek euskaraz ziharduela egiaztatzean.

ukatu jende asko bildu dela bertara: *eibartarrik geienak* dira bertan nahiz eta noski: *onenak ez*. Eta nolakoak ote dira *mitinzaleak*: *gazte arro, zarkote, nagi, erdi-langille, oso-edale, gezur-billari, aizeburu, etxekalte guztiak* bertan dira bai eta: *emakume arrotz lasai batzuek* (Ibid.: 290). Harrigarria bestalde honelako aipamen horren setatiak ia komentariarik ez sortzea gure inguruan. Juan San Martinen llabur eta herabe bat ezagutzen dugu: “*Garoan* eibartarroi buruz ari danean ezta asko luzitzen, nunbait gure izaera ta jokabidea etzituan ezagutzen iturri onetik”⁹⁹.

Beste horrenbeste esan daiteke Eibar eta bere herri sateliteak Oñatiri kontrajartzen dizkionean¹⁰⁰. Haien zarata eta anabasa, hau bake eta oreka. Mitiñeroak ederki egin bide du bere hitz-jarioa, baina amaieran: “Biba la replública! (sic). Abajo inkisición!” botatzen ditu. Eta honela darrai bere kontakizunak:

“Jendeak: Geienak: Gora! Bera! Abajo! Txaloak, oiua, marruak, Trágala, Marsellesa ta Internazionala” erantzuten diote¹⁰¹.

Gaizki esakako zaparrada hartan arrazoi duke Agirrek apaiz eta fraileen kontra egozten omen ziren demasakeriak aitatuz. Edota eibartar *oker* haien fisikoaren edo izakeraren inguruan zituen iritzi guztiz subjektiboak. Baina eibartarreatatik -edozein koloretakoak zirelarik ere- alperrak zirela esateak: *erdi-langille*, gogortxo dirudi.

Hona hemen Agirreren garaiaren argitaratzen zen sozialisten *ADELANTE*

aldizkarian (1901-10-19) aurkitu dugun artikulua zer zioen. Oraingoan beste aldekoak dira alperrak. Bertan *AGAQUIER* ezizenez izenpetzen zuen batek “Cobro adelantado” deitzen zuen artikuluan, hain zuzen, elizgizonen omen *nagikeriaren* kontra- hona zernolako bertsoak irakurtzen ditugun. Ikusten dugunez, beraien egilea ez zen larregi saiatu hitz errimatuak aurkitzen:

Esta bisimoduric

Esta descansurican

lanican eingabe,

beti lana eindabe,

esta jaquinduriaric

esta icasterican

iracorri gabe.

demboraric gabe.

Eta jarraian ondoko hau eransten du artikulua egileak: “A trabajar todo el mundo y habrá dicha. Todas las amarguras nuestras son por esto, porque les pagan bien á los holgazanes y gandules y los que frecuentan la grande sociedad sin producir un ajo. El que quiera comer que trabaje y que lo suyo lo disfrute sin que le robe nadie. ¡Viva la igualdad! *AGAQUIER*”.

Lanaren, *biharraren* sakralizazioa zegoen zalantzarik gabe garai hartan. Urte batzuk gero beste eibartar batek Pedro Sarasqueta liberalak, bere buruari, garai hartan, *nacionalista de izquierdas* irizten dionak ondoko hau

¹⁰² Bilboko *El Liberal* egunkariko korrespontsalarik adierazitakoa antzaldatzen duelarik (1912-10-28). Sarasketa Gregorio Mujikarekin lehiatu zen eibartar idazlea dugu Eibarri buruz idatzi behar zen Monografia onenaren sariketan. Bere lan hura *Monografía descriptiva de esta noble y leal villa guipuzcoana* deitu zuen eta 1909an argitaratu. Kazetaria, Donostiako *La Voz* egunkarian 1936 arte idatzi zuen artikulugile atsegina izan genuen.

idatziko du:

En Eibar no hay vagos en ninguna de sus variadas manifestaciones modernas

(*Euskal Erria*, 1908) ¹⁰²

Antagonismoaren adierazpenak

Aurrerago iradoki dugun bezala (1.6. epigrafea), gure ikertzaroen ere erlijioa balore absolutoa zen bere hartan eta berak gidatu ohi zuen euskaldun askoren bizitza. Horrela uler daitezke zenbait aurreikuspen. Hura jori zegoen lekuan euskara bera ere maila horretan egon behar zuela zioen diskurtsoa ez zen arrotza mendearen lehenengo herenean. Euskal eskuinak eta nazionalismo ortodoxoak sarri erabili ohi zuten jarduna genuen. Zalantzan jarri ezin zitekeen *fededun*>*euskaldun* axioma genuen. Fedea euskararen esentzian zetzan: lehenengoaren jabeak bigarrena bere baitan izango omen zuen. Horrela izan zen beti eta horrela jarraitu behar zuen mendetan zehar. Federik gabe ez zen

¹⁰³ (*Euzkadi*, 1922-08-20)

¹⁰⁴ (1935: 70)

¹⁰⁵ Maitagarrizko legea?

Ez da guztien izkuntz gozoa Euskera ezti maitea?

Or eta emen, ez da esaten Euskeraz Aita gurea?

(Karmelo Etxegaraireren bertsoak, Mitxelenak jasoak, 1981:261).

¹⁰⁶ Oreka gehiago ageri du *-oraingo honetan-* Resurrección M^a de Azkue Euskaltzainburuak bere *Latsibi* eleberrian. Bertan liberalek (Kartagotarrek) erdaraz edo euskara gaiztoan hitz egiten dute, baina badirudi haiek elizkoi ez izatea baino barkaezinago zaiola narratzaileari beraien euskararen ezjakite

euskaldunik, edota Azkuek eta Agirrek zehaztuko zuten legez, euskaldun zintzorik, behintzat. Baina horren erraz egiten zen baieztapena katoliko sutsuen artean ere zalantzak sortzen zituen. Historia hurbila lekuko.

Engrazio Aranzadi *Kizkitzak*, *Comunion* PNVren *Euzkadi* egunkariko zuzendaria hainbat urtetan, ondoko hau zioen 1922an:

Eibar aparece hasta ahora como una población singular. Con ser el euskera,

hori. *Formak*, bere 1898ko kronika hartan baino gehiago gorde zituen zalantzarik gabe lekeitiar apaizak. Ideien polarizazioa erakutsi nahi zuen lekeititarrak. Bertan eibartarrak zehazki aipatuak dira. XVI. atalean: “Liberal, demócrata, incondicional” (sic) izenburuaz. Honela dio eibartarrak aipatzen diren pasarteak: (...) “Irakurleari yakin-arazo dagiogun Bergarako batzar baten eibartar yakingura bati emon eutsen erantzuna. Orduko yardulari gorria, gori miña, gorri illuna ta ganera gorri ubela be baeizan, *sozialista* amurratue zan-da. *Democracia* gora ta *democracia* bera erderaz ziarduala, entzule batek bere alboko bati (biak eiziran eibartarrak) “I, zer dok demokrazixa?” itandu eutsan. - Demokrazixa? Abareai txapelik ez eraztea- erantzun eutsan adiskideak”. (*Latsibi*, 1989: 138).

¹⁰⁷ Hona nola sailkatzen zituen Etxebarriak gure herriko *estamentuak*: *abaretarra* (=abadetarra, alegia): clerical; *bizkaitarra*: nacionalista vasco; *goitarra*: republicano en Eibar; *betarra*: conservador en la misma localidad. (Lex.: 667). Bestalde *Goitarrak* eta *Betarrak* ziren gure artean *istilu* hauek hasi aurretik. Errejimen Zaharretik zetorren nolabaiteko definizioa. *Goitarren* artean -zeinen buruetako bat, aipatua dugun, gero alkate izan zen Antonio Iturriotz errepublikanoa zegoen- liberalak eta errepublikanoak bada, *behekoak*, ostera, egungo parametroak erabiliz eskuindartzat joko genituzkeenak. Hasiera batean Herria txikia zelarik, geografikoki ere horrela banatuak. Beheko horiek baina bazuten ezaugarri bat: (...) “cuyas figuras no eran carlistas porque era de mal gusto el serlo en Eibar después de las guerras civiles, pero sí conservadores a la manera de los de España, es decir, no partidarios del status quo, sino francamente reaccionarios.” (azpimarrak gureak dira). (*Viaje*, 29).

¹⁰⁸ Diogunaren froga hertsikeria edo intransijentziarena alegia -zein alde bateko nola bestekoena- ondoko gertakariak iradoki diezagukete. Azken Karlistaldian gure Herriko apaiz gehienak karlisten alde ikusten ditugu Eibarren liberalen aldeko ideiak zirelarik nagusi. XIX. mende hondarrean Quintana anaien lantegiko greba istilutsu izango den XXaren nolabaiteko sintoma gertatuko da. Dinamika gogorra izan hura eta apaizek greba haietan ugazaben alde atera neurri handi batean behintzat. Giro *laicista* hartan 1902an bertan Udalak hospitaleko zereginetarako monjarik ez onartzea erabaki zuen: “Las monjas no deben de administrar de ninguna manera ese Asilo. Sería fomentar el clericalismo. Sabido es que donde no podía penetrar el clero á hacer presión en algunas familias, entrarían las monjas con cualquier pretexto fútil que poco á poco llegarían á catequizar á las madres y hermanas”... (*ADELANTE*, Año II. 1902-01-18). Halaber, honekin loturik beste datu bat: 1905ean bataiatu gabeko umeak, ezkontza zein ehortze zibilak ugaritzen hasi ziren. (Unanue 1990: 56).

según decimos y lo confiesan todos, el idioma custodio de la fe de la raza, Eibar, eminentemente liberal, no ha rechazado el habla nacional¹⁰³.

Zenbait urte gero, Errepublikaren gorian, J. Garate, euskaldun-fededun haren ustezko ezinbestekotasunaz mintzo zelarik ezin zuzenago zihoan harira:

Tampoco convence la verdad de la frase de que el euskera defiende la religión ni su recíproco, como se ve comparando Navarra y Durango, poco amantes del euskera y derechistas con Eibar, euskeltzale e izquierdista¹⁰⁴.

Garateren hitzak ñabardura asko beharko lituzkete, hasteko orokorregiak baitira eta orduan oraindik soziolinguistikaren oinarriak ezezagunak ziren. Dena dela, bere hitzak egoera objektibo baten isla direla ezin uka.

Hau guzti hau irakurririk zilegi da pentsatzea, euskaldun-fededun¹⁰⁵ axioma hura gurean betetzen ez zelako -beti ere elizgizon edo fededunen ustez- halako aurriritzi modukoa sortzen *lagundu* zutela¹⁰⁶. Erants diezaiogun honi - berriro ere Etxebarriarengana itzuli behar dugu- aspaldidanik gure Herrian aski erradikalizaturik zirudien joera politikoen iharduna eta ore horrek emango digu aipatu polarizazioa, elizaren nagusitasun espiritualari aurrez aurre antiklerikalismoa eta bandoen arteko hertsikeria¹⁰⁷. Hertsikeria zeina gure orduko herrietan eman zitekeen inork gutxik pentsa zezakeen¹⁰⁸.

Aise hausnar dezakegun legez, garai hartan zenbait iritzi esparrutan

pentsaezin zitekeen beste puntu bat nabari da. Izan ere, gorago adierazi bezala, eibartarrek berek onartzen dituzte *kanpotikako* ideiak. Eta hortxe datza, nolabait esateko, *bekatua*. Euskaldunak (=euskaradunak) dira, bada, *harrapatuak* geratzen direnak korronte horietan.

Badago aldea Bilboko meatzetan, edota Gipuzkoan bertan etorkin kopuru handia hartuko duten Irun, Pasaia edo Zumarraga moduko herriekin. Hauetan ideiak kanpotarrek zabaltzea barkagarriago baitzitekeen.



R.M. Azkue

Ez da lan honen zioa garai hartako giroaren soziologiazko azterketa egitea. Dena den,

¹⁰⁹ Dena den, interesgarria da Ana Toledok egiten duen interpretapena. Martin pertsonaiaren jarreraz ari da: “Baina Eibarko mitinera heltzen denean, kontalariak hautsi egiten du testu osoan zehar eraikiz joan den araua -testu ingurua- arau horretatik desbideratzeko, eta ordurarte gipuzkeraz mintzatu den Martin beste euskalki batean mintzaten jarritz”(1989: 585-587) (Azpimarrak gureak dira). Ana Toledok aipatzen duen esaldian: “Langilliak: Euskalerrixa jaixo naiz, baña euskaldun izatiak ez nau batere arrotzen”, badirudi egileak bizkaierazko zerbait erantsi nahi izan duela halako egitasun bat emateko narrazioari baina eten egin duela bere saiakera laburra. Ana Toledo bera urrutirago doa:

“Eibarko mitin horretan euskalduntasuna zeharo galdu duen Martin gaztelaraz mintzaten ez badakar ere, kontalariak ez ote dio pertsonaia honi gainontzeko pertsonaien hizkera ukatu? Ez ote du kontalariak ukazio honen bidez aditzera eman nahi pertsonaia hau ez dela aski duin gainontzeko pertsonaiek darabilten euskeraz mintzatzeko?”

Bestalde Martin honengan batek baino gehiagok Jose Madinabeitia (1870-1923) oinartiar mediku sozialista ezaguna ikusi izan du. Sabino Aranak bere *arriskuaz* idatzia zuen harako “Alerta a los jóvenes vascos y especialmente a los de Euzko Gaztedi”. (*La Patria* aldizkaria, 1902-03-09).

¹¹⁰ Ez zuen, nonbait, Toribio Etxebarriak aintzakotzat hartu Agirrerren Eibarri buruzko jarduna -*Garoa* irakurri bazuen behintzat-. Eta baietzearan egon behar ondarrutarraren nobelagintzan aurreragokoa den *Auñamendiko Lorea*-tik ahapaldi oso bat jasotzen baitu: “Baiña zu baitzen obeto/ maite dot neure mendia/ euskaldunen jaio-leku ta aitona zarren obia”. (Lex. 577). (Ikus, halaber, aipaturiko eleberria: 47. orrialdea, Labayru-ren argitalpena, 1986 urtea).

zenbait puntu nabarmendu daitezke. Erlijio gizon haiek antzezten jarriko dituzten pertsonaiak ideia antagonikoak irudikatuko dituzte: Erromatarrak eta Kartagotarrak (Azkuek, *Latsibi* nobelan), baserritarrak eta kaletarrak (Agirrek, *Garoan*), goitar eta behetar, Eibarko errealitatean etc. Emaitza berdin antzekoa izanen da. Ia beti alde berean kokatuko da bekatua, ezaintasuna, euskaldun izatearen ukazioa. Izan ere, pertsonaia haiei, oro har, batez ere Agirrerengan, heterodoxian bizitzea bera ere ukatu egiten baitzaie.

Baina bakoitzari berea. Ez da Agirrereren lerroetan oraindik orain Eibarko euskararen gaitzespen zuzenik. Badirudi hori geroago, eta, besteren eskutik, etorriko dela. Mezua subliminala edozein modutan: *sozialistak=kanpotarrak*; hots: *erdaldunak*. Horixe azpimarratu nahi du Agirrek bere eleberriaren pasarte batean: “Gizon asko etorri alda”?; galdetzen diote neskameari Herrira iritsi berriek. Eta erantzuna: “Asko ez, baño bai nabarbenak, Bilbo aldetik”. (azpimarrak gureak dira).

Dena den *Garoaren* egilearen mesedetan ezin ahaztuko dugu Eibarko egun hartako mitinlari nagusia oiñatiarra dela, berak narratzaileak, hain zuzen, bake eta ideia garbien gotorlekutzat jotzen duen herrikoa. Eta nola edo hala euskaraz mintzo dela¹⁰⁹. Gutxiagorik eskain zezakeen¹¹⁰.

1.8.2. Azkue aintzindari

Txomin Agirrek ez zituen noski bere “estampak” ezerrezetik atera.

Euskaltzaindian kide eta bera bezala elizgizon izan zen Resurrección María de Azkuek -euskalgintzan ezinbesteko erreferentzia azterkizun dugun garaian- XX. mendea hasi gabe zegoen aldiaren lekuko bikainik utzi zigun. Denari oratzeko gizona izan genuen abade lekeitiarra. Eta nola ez bere etengabeko ekimenen artean *Euskalzale* “astean asteango albistaria” sortzea izan zen. Ez zuen bizi luzerik ezagutu oker ez bagaude 1897tik 1899ra arte iraun baitzuen. *Tsirrist* izenordearekin, astero-astero idatzi ohi zituen kronikak zenbakituz banan-banan: “lenenengo, bigarrengo, tsirristadea”... Beroietan euskararen erabilera jatorra -erdarakadarik gabea- ia ardura bakarra zuen *gainontzekoa* normalki saihestu egiten zuelarik. Baina oraingoan urrunago jo zuen. Gure artikulu honek aipatu *Euskalzal*en 1898ko *Bagilaren* 30an 201-202 orrialdeetan “Amairugarren tsirristadea. Tsirrist Eibarren” izenburuaz ikusi zuen argia (ikus Eranskinean testu osoa).

Garrantzitsua da ondoko testua gure iritziz bertan baitaude gero *GAROAn* hezurmamitu ez ezik “unibertsal” bezala ere finkaturik geratuko diren iritziak. Eranskinean artikulu osoa erakutsiko badugu ere, ondoko lerroetan gure ustez garrantzitsuenak diren puntuak azalduko ditugu.

Artikulugilea, *Tsirrist* hori, ia segurutzat jo dezakegu Azkue bera dela. Narrazioa ohiko topikoetatik darama testua aitzaki duelarik bere tesiaren

¹¹¹ Berdintasunak *Garoarekin* berriro ere. Han ere mitinzaleak: *Zarkote, nagi, erdi-langille* etabar dira. Estetika ere ez dute nonbait lagun.

¹¹² Arrotzak ziren *korridak* eta *baileak*.

alde. Hona laburbildurik: San Juanetan *-Doniane goizean-* kronikaria Eibarrera iristen da bertako giroa ezagutzera. Bertan urnietar bat (!) eta eibartar bat ari dira mintzo. Batak esan besteak kontraesan horrela doa berbaldia. *Cafe* hartara lagun bi haien arteko jarduna ozta-ozta entzuteko gaiden kronikaria heltzen da. *Deadarra, kantua eta tsaloa* oztopo ditu baina hona zer nolakoak jalkitzen dizkigun. Eskematikoki emango dugu bi orrialderen barrena ageri duen ikuspuntua eranskinetan testu osoa eskaintzen baitugu norbaitek zehaztasun guztiak jaso nahi baditu.

Testua zalantzarik gabe, Txomin Agirrek bere *Garoan* plazaratuko duenaren anaia bixkia da. Hona, bada, zer laburbil daitekeen bertatik:

1.- Sozialismoa erridikulizatzen da. Eibartarraren iñozokeria edo asko jota txalotasuna azpimarratuz. “Laugarren ebanjelisua da -dinotsa eibartarrak urnietarrari- abolición de la propiedad. Onek esan nai dau zure gauzia neretzat izatia”. *Garoako* mitinean antzerako gauzak entzun daitezke.

2.- Arrotzak dira Eibarrera sozialismoa ekarri dutenak: Iglesias,

¹¹³ Mogelek ehun urte lehenago bezala, Azkue ere gehiegikeria bertsuetan erori zen. Hara nola zenbait hitz Eibarkotzat jotzean. Esaterako, gurean ezezagun diren *piestia*, edo *priesa*. (Erka Mogelen *desberguenzea* eta *erremientia* hitzekin). Bestalde, erdara mordoilo hori transkribatzerakoan orduko eibartarrak euskal fonetika baten jabe bazirela onartzen ari da sikera inplizitoki behintzat. Azkenik garbi geratzen den gauza da sasoi hartako mitinlariei -Amuategiri esaterako- egozten zitzaizen trakeskeria erdal lexikoaren erabileragatik zetorrela.

Edozein modutan Azkueren hizkuntz-irizpideak ezin zorrotzagoak ziren, eta, ikusten dugun bezala, beste garbizalekeria mota bat adierazten zuten. Ikustea baino ez dago aldizkarian bertan zein hestu hartzen zituen Azkuek bere *Tsirristadetan* herri desberdinetako hizkerak. Inongorik ez baina *Eibarkoa* bezain gogor epaitua.

Hernandez...Beroien arketipoa *Café* hartan bertan dago. Gainera, arimaren itsusiak gorputzarena ere ekarri bide du. Bilbotik jakina, *aberats batzun kontra ein dabelako* botata etorri den *periodiko* baten *diretoria gaisoki, naparreri-pikatu, biboteduna* da¹¹¹. Jan-txakurra, gainera, zeren eta: “Eibartarren biotzak Urnietarren burua balu, erdalerriko arlote orrek mantentzen egon gabe, Gipuzkoan elitzake bertan jaioriko eskale bat ikusiko”. Arrotzak ideiak, arrotzak etorkinak, *ergo*¹¹²:

3) Arrotza, traketsa Eibarren egiten den euskara *erdalkez betea*¹¹³. Urnietar zuhurraren harridurarako erdal hitz andana luzatuko dio mintzaideak Iglesias *oradorearen* programa bereganatu duela frogatu asmoz. *Erderaz esango dotsut* (sic) adieraziko dio eibartarrak zuhurkiro: *Serbisio obliatorio, Socialisation de los medios de producion, Ocho horas de trabajo, Abolision de la propiedá*. (Gogora Garoako *Biba la replública. Abajo inkisición* moduko perlak). Urnietarraren erantzunak ere badu bere mamia: “Egia esango det. Gure apaizaren latiñazoak aizago aditzen ditut itz itsusi oiek baiño”. Horra, batbatean, urnietarra latina *erdal euskara* hura

¹¹⁴ Hau guzti hau Herriaren oroimen kolektiboan ez ezik, paperetan ere badago. Toribio Etxebarriak *francamente reaccionarios* deitzen zituen haietako ordezkari gailen batek, Orbea jaunak, mende hasieran euskaraz egin ohi zuen berak ere Udal-plenoetan. *Jendaurrean*, halaber, mitin osoa euskaraz egun eskuineko joko genituzkeen harako *Liga Foral Autonomista* direlakoak. Herriko ordezkariak behintzat bai: Celaya izeneko batek. Hori bai mende honetan nonbait eibartarroi *erdal lexikoa* erabiltzearen ardura zein sartua genuen adieraziz. Bere hitzaldiaren sarreran: “Soy vascongado -dijo- por los cuatro costados pero no tengo seguridad de poder explicarme solamente en vascuence, y os ruego que dispenseis si para expresarme con más claridad, empleo alguna palabra castellana”. (*Euskal-Erria* 1912- LXVII, 369. orrialdea).

baino errazago menderatzen!

1.8.2. Eibartar sozialisten euskara

Heldu garen puntura iritsiz, gauzak bere leku zuzenean uzteko sasoa iritsi dela iruditzen zaigu. Batez ere, beste aldeko protagonisten inguruan. Hemen aritu gara eibartar sozialisten euskara dela eta hainbat irizpide ematen. Gauza bat argi geratu behar dela uste dugu. Orduko eibartar haiek ezker-eskuin euskaraz egiten zuten besterik ez zekitelako. Baina garaiko beste edozein euskaldunek -baserritarra edo kaletarra, txapel gorri edo liberal- egingo zukeen bezala¹¹⁴. Ez gehiago eta ez gutxiago ere. Euskaldunak ziren noski, ez euskaltzaleak, garai hartan egun bezala, zoritxarrez, inor gutxi den legez! Nazionalismoak ekarri bazuen ere hizkuntzaren izaera bereizgarriaren lema edo “hecho diferencial” bezala jotzearena, Lauaxetaren *euzko-gogoa*, alegia, gogo hark ez zuen orduan oraindik nazionalista askorengan eragin handirik izan.

Euskararen bizi-iraupena euskal hiztun soilengan zetzan. Herritar haientzat euskara ez zen *ideologia*, berezko eta *nahiezko* tresna baizik. Eta horrela izan ohi da mundu zabalean zehar. Egoera berezirik, diglosikorik ez den parajeetan. Eta noski Eibarko gerraurre hartan ez zen horrelakorik nabaritzen *herri*-mailan behintzat. Besterik da, ordea, edozein buruzagiri hizkuntzarenganako eskatu behar zaion sentsibilitatea. Orduko sozialisten garaian ez dago zalantzarik *zenbait*

¹¹⁵1901ean bertan. Halaber, Unamunoren euskarari buruzko iritziez ari da besteak beste EB 1988:293.

¹¹⁶ Ikus Pagnon honen jatorriaz ikus 94. oin-oharrean esaten dena.

kuadrorengan ez zela gure hizkuntzarenganako axola gehiegirik. Izan ere ia dena euskaraz egin ohi zen aro hari bekaitz badiogu ere, orduan ere garaiak bazuen eraginik herritar soilen iritzi publikoan. Hain zuzen, intelektualen eragina, orduan gaur baino gehiago, ezin gutxiets daiteke. Kontestu honetan adibideren bat eman daiteke. Esaterako, euskararen izen onari eta bidenabar bere garapenari kalte izugarria egin zion mende hasierako Unamunoren Bilboko Lore Jokoetako hitzaldi ospetsu hark. Hitz gogorak, krudelak ia-ia, Bilbotarrarenak¹¹⁵.

Euskara behin betiko baztertu eta mundu zabalera hurbilduko gintuen gaztelania hautatu behar omen genuen: Unamunoren hitzek izan zuten aldeko iritzirik. Eibarko sozialisten aldizkarian, *ADELANTE*-n, alegia, Gregorio Pagnonek zioena ildo horretatik zihoan¹¹⁶. Pagnonek 1901ko irailaren 21ean argitaraturiko artikuluan gogor defendatzen du Unamuno: “de la protesta que promovieron elementos bizkaitarras”. Bizkaitar beroietzek, hots, nazionalistak: “son como perros de las aldeas que ladran sin cesar a un hombre honrado e inteligente”. Artikulua unibertsaltasunaren defentsan -egilearen hitzetan- idatzia dago, beste muturrean baitaude: “los jaleadores del vascuence analfabetos que perturban y agravan la paz del pueblo”.

Baina arrazoibide politikoak alde batera utzirik entzun ditzagun Pagnonenak

¹¹⁷ Euskarari buruzko jarrera neurtzeko bide zehatz bat indar politiko batek boterea hartzean zuen jarreraren ikus zitekeen. Eibarko sozialistak 1931tik 1936 bitartean udal boterean izan ziren gehiengo osoz. Bada, udal-langileria hartzeko ordurarteko legeak eskatzen zuen euskararen eskakizuna saihestu egin zuten behin baino gehiagotan: udal-idazkaria (1931n) eta udaltzainburua (1933an), besteak beste, erdaldunak aukeratu zituzten.

berarenak euskarari buruz: “El vascuence es desastroso por su modo de ser tan desigual”. (Ez da gezur handiegia; azken buruan, hizkuntzaren batasun-ezaz ohartua da). Eta darrai: “Nada diríamos si antiguamente hubiese existido igual vascuence en Vizcaya como en Guipúzcoa”. Dena den, ajeak aje euskara ez omen da erabat galduko: “aunque no creemos que desaparecerá por completo, porque sencillamente cada cual en sus propias tierras ó partes del mundo donde hayan nacido, por su capricho ó gusto, puede conservar lo suyo, así como también cualquier otro idioma”. Azken lerro hauetan hausnarketak arrazionaltasuna bereganatu duela dirudi. Izan ere: (...) “aparte de una oficial ó igual para todo el mundo, como deseamos los socialistas, para que nos entendamos todos, aunque nos vayamos á Pekin ó á Flandes”.

Praktizitatearen izenean bada, hizkuntza bakar bat behar dugu gizakiok elkar ulertzeko, esan nahi digu duela ia ehun urte eibartar sozialista honek. Gertatzen dena da hori esateko ez zuela zertan euskara gutxietsi behar. Amaierakoa hasieran jartzea falta zuen enparauzkoa ezabatuz. Eta kitto.

Nazionalismoaren sorrera-urte haietan, geroago ere gertatu ez zen bezala, tamalez, ez zen euskarak kultur hizkuntza bilakatzearen eztabaidaz hitz egiten. Sozialistak, arestian ikusi dugun bezala, garaiko seme-alabak ziren. Euskaldun gehientzat bezala, euskara herri-hizkera baino ez zen.

Sozialista haiek gainerako eibartar guztiek bezalaxe euskaraz egiten zuten berezkotasun osoz. Eta hori da, eta ez da gutxi, guztia. Besterik da zein iritzi

eta, batez ere, zein jarrera zuten euskararen protagonismoaz gizaratean¹¹⁷.

Baina sozialistak egungo ikuspegitik epaitzea oso erraza bezain erosoan izan daiteke *apriorismo* antzuan erori nahi duenarentzat. Izan ere, kontuan izan behar da, garai hartan munduan ziren indar uniformatzaileek hizkuntza nagusien aldeko korrante gaur egun baino askoz handiagoa osatzen zutela. Nagusien alde ez ezik, bazen gizateria bakar baten aldeko apostua ere egin nahi zuenik. Hizkuntza unibertsal bakar baten ametsa zegoen gizaratearen zenbait esparrutan. Ez da ahantzi behar, bestalde, esperantoa moduko hizkuntza berriek indar handia hartuko zutela batez ere ideologia liberal eta ezkerrekoen artean. Eta Eibarren bertan. Beraz, hizkuntza minorizatuak zokoraturik zeuden, elebitasuna hitza bestalde oso gutxi ezagutzen zuten. Euskal Herrian bertan, Eusko Ikaskuntzaren sorrerak, 1918an, markatuko zuen, neurri handi batean behintzat, halako kontzientzia-hartze bat, batez ere bertako mundu intelektualean.

1.9. Hiri-euskara: etorkizuneko euskara

Denok dakiguna azpimarratzea baino ez zaigu falta. Gure hizkuntzak ez du kultur hizkuntza izateko abagadunerik ukan. Bien bitartean hor jardun izan

¹¹⁸ *Gure* lexiko garbiaren ardura beti baserrirantz doa. Garbitasunaren gordeleku. Itsasgizonena ez du inork aipatzen. Itsastar asko dabilkigu aspaldidanik harat honatean eta nabari da horrengatik bere euskera ez dela garbier artean *garbiena*. Itsas-hiztegi bakan horietako bat begiratzea baino ez dago. Praktizitatea *-tresnatasuna-* alegia, hemen ere nagusi.

¹¹⁹ Egia da halere XIV-XV. mendeetan kanta epiko-liriko ederrik ez zela falta izan.

gara kultur erreferentziarik gabe geure zilborrari begira gure berriketak *euskara desberdinei* lar zuzenduak erabili ditugularik.

Azken finean, autu guzti honen inguruan Mitxelenak Xenpelarren euskaraz esan zuena harako hartan datza. Alegia, errenteriar bertsolariaren euskara izan zitekeenik onena zela baina berari -Mitxelenari- ez ziola balio. Euskara garbia da -baserrikoa noski- harreman gutxi izan duelako enparauzkoekin autarkikoa izan baita gure nekazal-ekonomia bezainbeste. Kanpotik etorri zetozen materialeak zeinek bere izena zekarren, jakina¹¹⁸. Latinetiko mailegu zahar haietaz landa -elizgizonak noranahi heltzen baitziren- seguruenik mende asko iragan bide ziren gure hitz-altxorraren ur meheko putzua tantana bakan berriez osatuz zihoala. Horrelatsu jarraitu zuen gure euskara zahar zaharregiak aski mintzul mendetan zehar. Ertaroa iritsi zen eta hiribilduak zenbat eta handiagoak hainbat eta elebidun gehiago. Euskaraz behar zuketena banderizo alproja haiek baina beren balentria haiekin nekez zezaketena probetxuzko askorik sor¹¹⁹. Baina hiribilduetan behar zuen gure *basaeuskarak* auspo berririk hartu, halere, gure orduko hiriak -Bilbo bera adibide garbi- ez ziren horretan gehiegi saiatu. Mikoleta beraren euskara lekukotzat har bageneza bazukeen ordurako gure euskarak birjinitatea galdu. Gainontzeko hiriak, Baiona bera, gaskoina genuen aspaldi, Iruinean, berriz, erromantze gotorraren ondoan, frankoak eta estatus aldetik behe-mailako hiztunak ziratekeen euskaldunak genituen. Donostiaz deus gutxi dakigu gaskoinen etorrera aspaldikoaz kanpo, eta Gasteizkoaz, berriz, XVI. mendean Landuccio italiarrak *belarriak* ongi bazituen behintzat hango euskara oso erromanizatua zegoela

esan daiteke. Bien bitartean gure eskribauak aspaldi joanak ziren Gortera beren lumak erdal grafiaz zorroztera. Amerikak ere izango zuen bere eragina, baina gure hiribildurik handienek deseuskalduntze (?) prozesuan jarraitzen zuten. Eta bestela esanda ugarituz zihoazten erdararen garrantzia handiagoaz ohartzen zirenak. Eskolarik gabe, monastegiak ere ugari ez -euskal geografia deituko genukeen eremuan behintzat- euskaraz eginiko kulturaren etorkizuna urrats laburra zuen. Gauzak horrela, inprimategiak urri ez ziren gure hirietan baina euskarazko *jenero* gutxi ezagutu izango zuten -erlijiozko haietaz kanpo-.

Errepaso ezin eskematizatu honetan XIX. mendera heltzen gara. Eta mende honetan historikoki karlistaldiek izango dute protagonismoa gure Herrian. Gertakari odoltsuen ondoren jazo izan den bezala gure historian, euskarak hiztun eta eremu handia galduko zuen. Hainbat nazio modernoren sorrera izango den mendeak Euskal Herrian izango du berezko bilakaerarik. Hiriez aritu izan gara oraintsu. Hiri horien artean euskarari dagokionez darabilkigun autuari zuzen-zuzen lotuz, Donostia aukeratuko dugu. Bilbotar Mikoletaren euskara hura ez oso zuzena iruditu izan bazaigu beti, oraingoan Donostiako euskarari tokatzen zaio.

¹²⁰ Miguel Pelayo Orozcori elkarrizketa Fray Pedro de Anasagastik egina. “Bilintx, un bersolari con estela”, in *Bilintx* (1813-1876), CAM, Donostia, 1978, 193-196. Adibideak, bada, ugari jar daitezke XIX. mende amaiera ingurukoak. Alegia, aranismoaren eragin puristari jarraitu ez ziotenen artean. Horra esaterako Bitoriano Iraola, bere garaiko Donostiako hiri-euskera ezin hobeto islatu ziguna. Aipagarria da bere *Oroitzak eta beste ipui asko* (1962).

¹²¹ J.I. Iztueta, 1847, *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia*, I. Baroja, Donostia.

¹²² Caro Baroja, “En torno al centenario de Vilinch”, in *Bilintx* (1831-1876), 85-105. Caro Barojak berak ere bertsook komentatzen honako hau dio: “Los puristas torcerán el gesto ante tales expresiones de la musa callejera”.

Donostiako euskara, XIX. mende hondarrean ezagun bihurtuko ziren izen batzuek plazaratzen zuten hiri-euskara hura, kritikatu izango da, besteak beste, erdalkeriez beteta zegoelako. Horregatik haren gutxiespena. Bilintxen garaiko euskara aztertzen ari direlarik, kritika hura ez du zenbaitek zuzentzat joko. Euskara hark bazuen aldeztailerik:

¿Que este euskera estaba impregnado de erderismos y que tenía ciertas peculiaridades fonéticas u ortológicas no demasiado “ortodoxas”, por así decir? Admitámoslo. Pero, en todo caso, es innegable que se trata de un lenguaje vivo, flexible, muy de su tiempo”¹²⁰.

Horra hor gakoa. Heldu zaio euskarari ere *kaleko* hizkera *ere* jasotzeko garaia. Joanak dira Zaldibiak, Isastik eta Iztuetak, besteak beste, margoturiko paisaia bukolikoak. Edo behintzat ez dute jadanik asfaltarako balio. Ezta ere, behar bada, Iztuetak berak eman zituen xifrak. Gipuzkoan seitik bost elebakar jotzen zituen 1840an, baina hiriguneeek erdararen habia handia izaten jarraitzen zuten¹²¹. Euskaldunenean, Donostian, euskara urbano edo hiri-euskara baten sorrera ezagutuko dugu. Eta oraindik Arkadian pentsatzen ari diren haiek:

¹²³ Horrelakoz betea dago Donostia eta inguruko herri-kantategia. Erdaratiko hitzak, joskera akatsak etc

Lizentziak ez dira atzo goizekoak eta zeinahi euskalkitan aurki ditzakegu. *Gura deutsee* irakurriko dugu Juan Antonio Mogelengan. Non eta bere Peru Abarkan (nahiz eta Azkue bera hari erabilera okerra deritzola ohartarazten saiatuko den orrialdean bertan). Ubillosengan eta garai bertsuan, 1785ean, zentzu berean *nai dio* irakurriko dugu. Nork ahantz bestalde aspaldidaniko gipuzkerazko koplak haren *maiteko dio* hura idatziz eta kantuz zabaldua.

euskara baserrikoa=euskara garbia, zer esan dezakete orduan ageri den euskara hartaz? Euskara apaiztegietatik intsentsu usaina galduz doa, eguneroko gorabehera arruntetan murgiltzen. Bilintxen sasoi hartan bilduriko zenbait bertso hona ekarriz erdarakadak lasai asko isuri izan direla nabarituko dugu¹²²:

Ai Madalen, Madalen

Madalen gashua

Bigarren batalloyan

daucazu majua.

chiquichua da baño

mutiko polita,

cazadorietaco

*cabo primerua.*¹²³

Donostiaren adibide hau oso egoki dator ene ustez *besteren* euskara epaitzeko ausardia handia eta jakinduria eskaxa erakutsi ohi duen *fauna* bereziaz aritzeko. Azken buruan, horrelako pentsakera darabilten hainbatek *kanpotik* dakusate euskara. Edozein erdalduni bezain arrotz zaie hizkuntza. Izan ere, mintzaira eguneroko lanabes, bizipen oro erabiltzeko gai denak ez dio hitzari, portzentaia handi batean behintzat, *euskal labelik* eskatuko.

¹²⁴ Cayetano hau ez zen, nonbait, edonolako pertsonaia Donostiako giro hartan. Hara zer dioen bere herrikide izan zen Bitoriano Iraola ipuingileak: “Kayetano Sanchez Irure, garai artako jaun bat, bertsoak jartzeko etorri ugarikoa” (1962: 63).

Hiri-euskara, izan ere, den bezalako da inguruak ezinbestez markatzen duelarik. Bizitasunak dakartzan ezaugarriekin: beste hizkuntza baten ondoan bizi bada, haren *kutsadurapean*; bakarrik bada, ostera, bere argot eta kera bereziak, askotan ez arauari oso lotuak, sortuz. Baina bizia. Horrek digu guri ardura. Horrelakorik antzematen da ondoko adibidean.

Bertsook Cayetano Sanchez izeneko idazlearenak dira. 1894ko otsailaren hamabian *La Voz de Guipúzcoa* egunkarian *Marinoni* izeneko inprima-makina berriaren etorreran paratu zituenak. Guztiz adierazgarria garai berriei euskaraz egiten zitzaien agurra:

<i>Makin eder bat ekarri diste</i>	<i>La Voz-en gisa eroiseiñ paper</i>
<i>Kanpotik donostiyara,</i>	<i>egingo ditut chit ongi,</i>
<i>arras chit askar egingo duna</i>	<i>beste batek bañan merkiago</i>
<i>gure La Voz-en tirada:</i>	<i>ori goguan eruki;</i>
<i>ordu betian bost milla paper</i>	<i>Gaur Donostiya ikusirikan</i>
<i>jaunak uztez askarra da,</i>	<i>arkitzen zala chit larri</i>
<i>makiñartanchen tiratakua</i>	<i>orreatikan ekarri dute</i>
<i>paperbat aushen bera da</i>	<i>kanpotikan Marinoni</i> ¹²⁴

¹²⁵ Eibarko 1936ko Gerra osteko euskararen giro eta errepresioaz irakur I. Muruaren elkarrizketa J. San Martini *Jakinen* 1998-108, 67-116.

¹²⁶ Nahaste, aldaketa, zer ez ote da bilakatzen ari herrietako hizkera! Eta, oro har, hizkuntza mintzatua. (Fenomenologia guzti honetaz ikus esaterako: Miren Lurdes Oñederra: “Hizkuntzen osasuna. Neurbide eta diagnosi linguistikoak”. *BAT. Soziolinguistika aldizkaria*, 1992-7-8, 141-157. orrialdeak

3. Konklusio antzera

Laburbilduz, eztabaidaren antzutasuna frogatua geratzen da euskalki bat bestea baino iaioagoa, dotoreagoa, hobea hitz batez, omen denaren dema moduko horretan. Euskalkietan ari gara eta horren gainean ez du inork guk dakigula behintzat ezer asmatu zein baino zein hobea den epaitzeko neurririk. *Gureari berreutsiz* Eibarko euskara hogeigarren mende honetan Gerra Zibilak erakarri zuen etena izan ez balitz, egun, agian, hiri-euskara bizi eta harreman *guztietarako* egokia -kale, familia eta lantegi besteak beste- ikusiko genukeen¹²⁵. Hasieran deitu dugun bere *hiri-izakera* gordeaz. Gerraren ondoren etorkin kopuru izugarria -kulturalki irentsiezina- hartu ez balu...frankismoaren mamu beltza ezagutu izan ezbagenu... Baina esaera zaharrak dioen bezala: *balizko errotak urunik ez*. Edota: *urak joanda alperrik presia*. Historiak *ekarri* digunaz konformatu egin behar. Lan eta espiritu gaien inguruan euskaraz aritzen ziren eibartar anitzkoloretako haien mundua ia bertan egon arren, tamalez, zein urrun geratzen zaigun!

Euskararen beste hainbat euskalkirekin gertatzen den bezala -*gehienak ote?*- hor datza bere ahulezia erakusten egungo gizarte berez txiki eta akultural honetan hanka bat amildegiari begira, bestea *jasaten* ari garen batu *gipuzkeratu* eta nortasungabekoak eraldaturik¹²⁶. Horren inguruan datza gure patua: sor asko eta lor gutxi bihar zer bilakatuko *duten* -dugun- jakin gabe.

¹²⁷ Gotzon Garateren moduko ahaleginek baserriko euskara jatorraren bila txalogarriak badira ere, inbentario legez geratzeko arriskua dute.

¹²⁸ 1936an Eibarrek Gipuzkoako euskal hiztun kopururik handiena biltzen zuen. Donostia eta Irun alde batera utzirik, Eibarrek 14.000 biztanle inguru zituela gainerako herriak baino aurrerago zegoen. Tolosa zen hurrengoa 12.000 biztanle ziren bertan.

Orain arteko lerroetan barrena antzeman dezakegunez, euskararen ezaugarria beste hainbat hizkuntza minorizatutan bezala nekazal bizitza izan da. Zertzelada honek XIX. menderako balio ote zezakeen eztabaidatzen hasi gabe, garbi dirudi gure ikertzaroan ez duela funtsik. Izan ere, euskararen jatorriasuna baserrian bilatze horrek, bertan datzala egia balitz ere, alperrikoa da. Euskara kalean, hiriguneetan biziko da edo ez ta biziko. Bere kontraesan, nahaste eta erabilera oker guztiekin ere hiri-euskara horri dagokio hitza, ikusi dugun bezala¹²⁷. Aspalditik euskara eskasa hiriari loturik ikusi izan da (gogora dezagun Mikoletaren Gramatika, Larramendiren adierazpenak Donostiako euskaraz etc.).

Ikusten dugunez, euskararen inguruan zabaldu den erruralismoak - baserri-bizitzaren neurritz kanpoko laudorioa, gainerakoa gutxiesten delarik -, kalte egin dio euskararen kultur bilakaera. Besterik zen mendearen lehenengo hereneko Eibarko euskararen patua. Orduko euskara interesgarri bihurtzen zuen, hain zuzen, hirigune aski inportantea izanik haren erabilerak ohiko erreferentzietatik alde egiten zuelako¹²⁸. Hasteko, ideologia aldetik, inoiz talde mailan erabili ez zuten taldeek zerabiltelako. Beste horrenbeste leku eta funtzioetan: jendaurreko mitinak, gai sozialak etc.

Baina hiri-euskara hark ez zuen jarraipenik izan. 1936ko Gerrak eta haren

¹²⁹ (1960: 63). Bestalde, denok ongi dakigunez, don Poli berez plazentziatarra zen.

ondorioak: debekuak, migrazioak, eta, batez ere, guraso euskaldunen axolagabekeriak, belaunaldi bat edo biren bueltan euskarak izugarritzko galera jasatea ekarri zuen.

Egungo errealitatetik begira, hankamotz dabil eibartarra. Ez gaitu euskarak, gure azterraroan bezala, eibartarrok batzen. Baina ezin dugu etsi. Inoiz gure Herria berreuskaldunduko denaren ametsaz bizi gara. Eta asko amets horrek bizi gaitu.

Berreuskaldundu eibartarrok izan omen dugun ideien zabaltasunetik. Altubek 1960an zioen bezala, (orduan bai joandako sasoia hobe!), berak ezagutu zuen Eibar hizkuntzak bateratzen zuen. Hura zuen ezaugarri nagusi:

Al danean al dan bezela ekin diote, beraz, Eibartarrek, burdin-langintzan, saldu-erosietan..., baita langilleen defentzako mitin eta itzaldi guzietan ere. Parkatu, baiña ezin aztu ditut olako bi predikari: Don Poli, eskuma aldetik, eta Amuategi ezkerretik; baiña biok Eibartar jatorki, biok euskaldun-euskaldun¹²⁹.

Eranskinak

4. Eranskinak

4.1. “*Tsirrist Eibarren*” (*Euskalzale aldizkaria 1898*)¹³⁰

Berandutsu ibili nintzan Doniane-goizean, ez nagi nintzalako, lodiegi ta astunegi nagoalako bere ez; ¿baiña zer da egitea? Amaika ta erdiak ondo iota eldu nintzan Eibarko uri zaratatsu edo barailatira. Zaratea ta barailea zer direan eztakienak, betoz Eibarrera iaiegun bazkal-ostean, sartu beitez kafetse batean, da gortuten eztan belarria belarri ona da.

Meza nagositarako berandutsu zala ikusirik, gauza bat bururatu iatan: zer esango eteeben Eibartarrak, bein ara-etzkeren *San Jaun-go piestak* oso osorik ikusi enebazalako.

Iakin neban orregaitiño bular onekoak izan zireala meza-kantalariak.

Ordu biak baiño lentsuago eldu nintzan kafetse batera. Atera eldueran iakin nai izan neban zein etezan, begiratu neutsan ateburuko iragarriari ta *Cafe de...* irakurri nebanean, erderakada geiago ez ikustearren *zapla*: barrura.

Ezta gauza erraza ango gizategia zeaztutea: keiaren keiak atzeko alde guztia estaldu ta eskuta eustan; tsaloaren tsaloak, deadarraren deadarrak eta kantuaren kantuak aurrekoai entzuten bere ezeusten itsi. Puzkatsu baten egondakoan, erdi gortu ta erdi itsutu nintzanean, asi nintzan zerbait ikusi ta entzuten.

Zoko-baster baten andoil edo tabako-taket galant bana aoan eukela gizon bi egozan, alkarren antzik soiñekoetan da tabako-taketeen baiño bestetan ezeukenak. Zaarrena, argalena ta berbaldunena orma-kontran lepoa ebalako egoan: aurrez aur egoanak bederatzi arroa zaar, amazapi libra-nako arroak, aragi utsetan eukazan, da Eibarren bertan iaioa ezpazan, bertan luzaro egon zana berbetan agiri eban.

Ni eurakanatu nintzanean, orma-kontrakoak ziñarduan:

¿Eztizut ba esaten? Eibarren otsa bai, alaitasuna ere bai, jende aundia ere bai ta gaiñera *korridak* eta *baileak*; baiño, gizona, erdalkeri oiek kentzen badituzu, eztezu Eibarren Urnietan izaten eztan ezertso ere arkituko. ¡Ango Meza! ¡a gizarajoa! ¡Ango laisterkariak! ¡Ango bolakariak eta bertsolariak eta...!

- Esan dotsut jan dogunian zuek baiño *zibilizauago* dagozala Eibartarrak.

- ¿Zuek zer dezute guk eztegunik?

- *ilustraziñua*.

- Zer dan eztakit, baiño sagardo onari orla esaten badiozute, Urnietan ere ¡ala Jaiña...!

- ¡Ze Urnieta eta Murnieta! Donostiaren urrengo Gipuzkoan Eibar; eta gauza askotan Eibar aurrerago.

¹³⁰ Azkueren artikulua lan honetan barrena aritu garenez, hemen testua baino ez dugu barneratu.

- Gizonak ilteko tresna oiek egiten bai.
- Baita beste gazua askotan be. ¿Eibarko San Joan lako Santurik nun dago? Oba da Eibarren *El Aseao* ikusi Donostian *El Reverte* baiño.
- Eztitut ezagutzen. ¿*Erreberte* ori *ministro mariña* alda?
- Ezagun dozu *ilustraziñuaren* kontrakuak zariena. Zuen lasterkari orrek *el año uno*-kuak dira.
- Eta zuen *korrida* oietan zezenen aurrean ibiltzen diran ezurrutsezko gizontso oiek ¿zer dira laisterkariak baizik?
 - Edaizu edan, gero *El Aseao* ikusteko.
 - Eta !Aizu? An nere aurrean neri begira dagoen gizon ura ¿nor dezute? ¿*Asao* edo ori? Aren mingaiñak eztu iñoiz euskerarik egin. Apostu egin lezake.
 - ¿Zeiñ? ¿An daguan gaisoki, naparreri-pikatu, *biboteduna*?
 - Bera.
 - Ori Bilbotik etorri da. *Periodiko* baten *directoria* izan da ta aberats batzun kontra ein dabelak, berrogei *kilometru*-kanpora bota dabe.
 - ¿*Periodikerua* ta Eibarrera etorri? Beltza izango da.
 - Beltza baiño obia: gorrisa da.
 - Enekien gorri-berririk.
 - *Sosialistia, obreruen* aldekoa.
 - Ori gutsiago. ¿Euskeraz egiten aztu altzaitzu?
 - Laster aituko dozu. Aurtengo neguan egon zan emen. Espaiñiako *sosialista* guztien Burua: *Iglesia* da bere izena.
 - *Iglesia* zer dan badakigu guk ere Urrietarrak izanarren. ¿Eliza berriren bat egiteko al dute? Nik uste nuen Eibarrerako bat ere aski zala.
 - ¿Eliza berria zetarako? A etorri zan guri *Sosialismua* erakustera.
 - Eztakit zer dan.
 - Nik be enekisan; baiña *Iglesias*-ek ederki erakutsi euskun. ¡A da *oradoria!* A da *ilustrasiñua!*
 - ¿Zer zan bada erakutsi zizutena?
 - Gauza asko. Orduan beste tsalo sekula eztot nik jo. Erderaz esango dotsut:
Serbisio obliatorio, Sosialisasion de los medios de producion, Ocho horas de trabajo, Abolision dela propieda.
 - Egia esango det. Gure apaizaren latinazoak aizago aditzen ditut itz itsusi oiek baiño.
 - Onetsek dira *Sosialismuen ebanjelisuak*.
 - Zer esan nai dute?
 - *Serbisio obliatorio* da mutil guztiak naiz aberatsen semiak naiz gure morukuenak *kintara* fuatia.
 - ¡Arraio pola! Eibartarrak gerratean *arma* gobernuaren alde artu zendutelako eztezute semerik *kintara* bidaltzen izan. Ori bezelakoak badira beste *ebanjelioak*, *Iglesias* etzenduten izan Ebanjelista tsarra.
 - Gutzat egisa esateko iru ebanjelisuak obiak dira. *Sosialisasion de los medios de producion.*

Onek esan nai dau langile guztiak alkarrekin ta alkarrentzako lan egin biar dabela.

- ¿Zuek nola egiten duzute?
 - Guk bakoitzak bere etsian.
 - Orduan bigarren *ebanjelio* ori ere ezta Eibarrerako ona.
 - Irugarrena *ocho horas de trabajo*.
 - Ori aditzen det: lanerako zortzi ordu. ¿Zuek ezaldezute geiago egiten?
 - Astelenetan ez; baiña *priesaka* gabiltzanean amar... amaika... Ta irabazte andisa euki-ezkerro, amalau naisago.
 - Ikusi dezagun laugarren *ebanjelioa*.
 - Laugarren *ebanjelisua* da *abolición de la propiedad*. Onek esan nai dau zure gauzia beretzat izatia.
 - Ta nerea neretzat ¿ola da? Ori dek mutila, ori.
 - Guztiontzat guztia.
 - ¡Arraiea! Urremgo sagarrrik eztegunean, Urnietar guztiak Eibarren izango gera; ateratuko degu Iglesias-en laugarren *Ebanjelio* ori ta ezkerro gaizki bizi izango. ¿Ta ori esan zuela ta tsalo?
 - Tsalo jo neutsan nik ez esandakuagaitzik, esateko moru ederragaitzik baiño. ¡A zan *oratoria!* ¡A zan etorrisa! ¡A zan *ilustrasiñua!*
 - Ta ¡aizu! Or dagoen *periodikeru* orrek *pagatu* egiten otedu emen egiten duen *kastua*’
 - Ori gure lepotik dabil. Abariak esango dabe gugatik, astegunetan Elizan, andrarik ezpalitz, geunak urtengo leukiela; baiña Eibartarren izotza lakorik gitsi: bakise eurak be.
 - ¿Ta nola du izena orrek?
 - Orrek Hernandez.
 - ¿Nork esan neri zer ikusi bear nuen?
- Eibatarren biotzak Urnietarren burua balu, erdalerriko arlote oirek *mantentzen* egon gabe, Gipuzkoan elitzake bertan jaioriko eskale bat ikusiko.
- Urnietarren burua bagendu, *El Aseao* ezkenduke orain ikusiko, lasterkari matraila-esturen bat baiño. Oba dogu Eibartarrak bisotzez da buruz Eibartar izan. Edaizu edan.
 - ¿Ta orain Erreberte ta Asao ta oiek ikustera joan bear aldegu? ¡Erreberte, Asao, Iglesias, pernandez! San Juan bizkarrean eramateko ¡a ze lau!
- Kafetseko guztiak iagiten asi zirean, da eneban ezer geiago entzun al izan.

TSIRRIST

Bi dokumentu eta egiaztapen bat

Eranskin honetan hiru aipagai dakartzagu. Bi lekukotasunek Eibarko autua jasotzen dute. Gure erreferentziarik gotorrenak kronologia aldetik begiraturaz: 1898an Azkueren kronika Eibartik berak zuzentzen zuen *Euskalzale* aldizkaritik, jarraian 1908an Agirreren *Garoa* nobelan zehar irakurri duguna. Azken honetaz, liburuan barrena aritu gara, gainera, Agirren liburua edozeinen esku dagoenez, ez dugu horregatik eranskin honetan barneratu. Eranskin honetako bigarren aipamena, Gregorio Mujikak *Monografian* ezagutarazi zuen XVIII. mendeko Ordenantzen itzulpenaren pasarte bat jarri dugu. Berau ere Mujikaren liburuan kontsulta dezakegunez, bere pasarte bat aukeratu dugu garaiko beste itzulpen batekin erkatzen dugularik. Eta, azkenik, erdarazko aipamena oraingoan, 1935ean *Idearium* aldizkarian Eibarri buruzko lan monografikoa dena.

Lekukoetara joaz badirudi beroien arteko aldiak desberdinak direla politikaz zein erlijio-egoeraz. XIX. mende hondarreko greba mugimenduak saihestu gabe ere, aipa daiteke Azkueren eta *Garoaren* garaian ezkerreko indarrak udal boterera iristen hasiak direla. Esaterako, alderdi sozialistak bere lehen zinegotzia lortu berria zuen Eibarren 1903an Ernesto Barrutiaren izenean. Hirugarren dokumentoaren sasoian Espainian II. Errepublikak -Eliz-Erakundeen mamu beltza- lau urte darama ordurako ezarria. Aldi hartan Eibarren alkatetza ez ezik udal-kontseilu gehiena sozialistek osatzen zuten. Estatu mailan egoera bestelakoa da: eskuinak agintzen zuen *Bienio Negro* deitu zen Aldiaren azken hatsetan. Orduan bertaratu zen Eibarrera *Idearium* aldizkariko inkestatzaila. Hain zuzen,

Mateo de Uriarte izenpetzen duen batek aldizkari hartan Eibarko herriaren *estado religioso* aintzakotzat hartuz lumaratu zituen datuak eta iritziak ditugu.

Azkenik, esan behar, kasu guztietan badagoela Eibarrekiko, edo behintzat ikusten dutenarekiko, halako ezinikusi handi bat. Agian hemeroteka-aztertze arretatsu batek datu gehiago emanen liguke. Baina arestian iradoki bezala ez da honako hau Elizaren eta indar laikoen arteko gorabeheren historia. Ezer izatekotan Eibarko *berbetiaren* gutxiespenaren inguruan agertzen ziren arrazoien indusketa apal bat. Lekuko hauen bidez, bada, dokumentu batzuk erakutsi nahi dira garai baten erakusleiho izan daitezen. Besterik ez.

4.2. Gregorio Mujika eta XVIII. mendeko itzulpena

Mende hasierako garbizale giroak zentzu eta norabide desberdinak izan zituen. Maiz, aranazaleen garbizalekeria aipatu izan da, eta egia bada ere, atzetik zekarren indar sozio-politikoak zela bide bere helburuetan eraginkorra izan zela mendearen lehenengo herenean, ez da aiantzi behar, beste norabide batzuk ere garbizale izan zirela, nahiz eta, zalantzarik gabe, adierazi ditugun arrazoiengatik hark izan zuen eraginik ez izan¹³¹.



Gregorio Mugika

Euskal prosa modernoa egingai zegoen garai hartan, Azkue bere lekukotasunik zaharrenak, beraz, bere ustez jatorrenak, aurkitu nahirik edo Altube, gero, euskaran erdarak izan zezakeen eraginik morfosintaktikorik txikienaren bila zebiltzatela, ez zen erraza berezkoa eta gehiegikerietatik urrun ibiliko zen prosarik aurkitzea.

Prosarik herrikoiena bilatze hartan saiatu zen bat Gregorio Mujika idazle ormaiztegitarra izan genuen. Bere *Euskal Erriaren Alde* aldizkaritik, ia mendearen lehenengo heren guztian, 1931. urtera arte, euskal idazle gazteen

¹³¹ Ikus Mitxelenaren ekarpenak 1.2.2. epigrafean.

bultzatzaile izan genuen. Aldizkariak urtero antolatzen zituen idazlan sariketek helburu hori zuten¹³².

Esan berri dugun guztiak ez du baztertzeko Mujikak agertu zuen harridura esku artean izan zituen *Ordenanza* haiek ikustean.

Gauzak horrela, ez da harritzekoa giro garbizale haren zurrunbiloan Mujikak agertu zuen iritzia. Hain zuen, ospetsu bihurtuko zen bere Eibarko *Monografía* idazten ari zela eskuratu zioten testuak osagai gehienak zituen ikuspegi garbizale ezen ez filologiko batetik izan zuen harrera izateko. 1754. urteko Ordenantza haiek euskaraz agertzen ziren lehenengoak ziren, nahiz eta Gipuzkoako Korrejidore izan zen Pedro Cano y Mucientes-ek euskara araziak izan¹³³.

Mujikaren iritzia labur bezain zehatza izan zen. Besteak beste honako hau zioen: (...) “dictó unas ordenanzas municipales sobre elecciones. Traducidas a un detestable euskera que casi no merece el nombre de tal, se dieron a conocer al pueblo eibarrés”. Eta orripean *zehaztasun* handiagoa eman nahi digu: “con su defectuosísima ortografía y redacción”. Jarraian ikusiko dugu nola *detestable euskera* horren parekorik badugun. Sasoi bertuan, gainera. Laburbilduz, Mujikaren adierazpenek ezer berezirik esaten ez bazuten ere,

¹³² Idazlan haietan aurkez zitezkeen azaleko zein mamizko gehiegikeriak uxatzen saiatzen zen. Mujika oso ospetsu bilakatu zen euskararen mikrokosmosean 1927an argitaratu zuen *Fernando Amezketarra* liburuarekin. Garai hartan asko saldu zen liburua.

¹³³ Ikus Gregorio de Múgica: *Monografía Histórica de la villa de Eibar*, Apéndice número 8, 1956, 464-466. Guk bigarren edizioa erabili dugu. Dena dela, badirudi lehenengoz bere aita Serapiok argitaratu zituela *RIE*en 1908an (1908-2, 725-733).

Garoaren argitalpenetik nahikoa hurbil kokatzen zirela, Eibarko euskararen kalterako bilakatzen ari zen halako hondar bat gehiago uzten zuten.

“Normas para la fabricación de anclas en Guipúzcoa con destino a la Real Armada. Texto en euskara y castellano”. Eztabaida bere kokagunean utzi. Alderaketa xume bat

Gure artean *darabilgun* eztabaidari nolabaiteko kokagunea aurkitu nahirik aurrez aurre jarriko ditugu bi idazle anonimo. Han eta hemen, babak eltzetik edo lapikotik atera, emaitzak antzerakoak izan ohi direla frogatu asmoz. Horretarako Gregorio Mujikaren ustez euskararen usainik ez daukan itzulpenaren garai bertsuan egin zen beste itzulpen bat aipatu behar dugu. Eta da, hain zuzen, M^a Lurdes Odriozola andereak ezagutzera eman zuen lana¹³⁴. Testu hau guztiz aproposa zaigu esan nahi duguna frogatzeko. Alde batetik esana dugu *gurearen* sasoi bertsukoa dela: Eibarkoa 1758 urte ingurukoa, beste hau 1787-89koa. Biak dira itzulpenak, eta bion egileek langintza horretan *oso sarri* aritu ez diren pertsonak dirudite. Itzultzaileok, bada, baldintza oso berdintsuekin ekiten diote lanari. Itzulpenaren zailtasunak antzerakoa ematen du. Batak Udal bateko Ordenantzak itzuli behar ditu, besteak aingurak fabrikatzeko arau batzuk. Aginduriko lanaren luzerak ere ez du alde handirik. Itzulitako euskalkia da desberdina. Bizkaieraz bata, gipuzkeraz, bestea. Jar dezagun aurrez aurre bi testu horietako parrafoen bat.

Batak dio:

1.- *Jaunac, en resumida cuentas, onec esan gura dabena da, ze esteila izan inorbere atrebiduba, da adelantauba, elejizera. Alcateric personaric, seiña*

¹³⁴ (Odriozola, 1991). 1788ko azaroaren 7an aginduriko itzulpena. Don Juan Antonio de Enriquez-ek -Comisario Ordenador de Marina de Guipúzcoa- agindua.

baitta espada persona onrauba, Idalgua Aberaza, da Erraizac daucasana, da guison Abonauba da oficio Charric esttaucana, baita bere esteila izan oficialic edo oficialeric soldau danic, Erregue maggesttariaren errejimentuban serbicen dabenic estta bere Idacortten da escribicen eztaquichanic eta bardin Iottenbadau, alacoric, izangodabela, vimilla marabidiren multia, da Iaquinda egondella.

Besteak, berriz:

2.- Prebencioac, eta adberttenciac, paratzen diranac, maisu Trabajatu beardituztenenzatt Ainguraz, Erregueren Armadaracotzat.

1º Eduqui beardute beti chit presente, ezen. Ainguren ondo trabajazeco moduan, eta aien seguridadean, consistizen duela ez becarriq (sic) Maisuaren interesac eta credituac, Nagusi obligacioan sarturic daudenenac, Provincia chit Noble Guipuzcoa onetacoarenac, zeñada bacarra Espaiña gucicoettan duena fabrica genero au, baita ere erregueren serbicioa eta principalmente, asco gende ofrecizen diranac beren personen peligro andian....

Grafia guretzat noski kaotikoa, erdaratiko hitzak erruz baina joskera - Eibarkoaren kasuan behintzat- inor ez lotsatzeko modukoa¹³⁵.

¹³⁵ Antzekotasun harrigarri samar batzuk kenduta (esaterako *tt* ugari idazki biotan) lexikoa da noski begietara egiten duena. *Makilatu, apaindu* gabeko hitzak dira. Erdaratiko hitz batzuk baino ez ditugu erakutsiko. Gipuzkerazko testuan daudenak plazaratuko ditugu soil-soilik beste testukoak ezagunak baititugu aspaldidanik. Hona hemen batzuk gure ustez aipagarrienak: *trabajatu, seguridade, consistizen, principalmente, peligro, suzedituco, defectto, reparo, correspondizen, cuidado, preciso, unitua, dificultadade, frescoac eta umedoac, mazizatua hueco, notadua, cuidatu...*

Eztabaida garbi geratu dela esango nuke. Itzultzaileok ez dira oso adituak, seguruenik letra gutxikoak. Erakusten diguten emaitza bera ere ezin oso desberdina izan. Nork pentsa zezakeen besterik? Ez da izan, beraz, gure historian besteak baino euskalki dotoreagorik¹³⁶. Dena subjektibitate hutsa. Zein den funtzionalagoa, zein zaigun baliagarriagoa garai konkretu batean, etc, etc., hori aztertzea ez da lan honen helburua.

¹³⁶ *Libertatea, higualitatea edo Bardintasuna, Tiraneco guerla. Populuaren Baquia*; esaten omen zuten Frantziako Iraultza Burgesaren garaian Vinson-ek gogoratzen digunez. Gure testu bi hauen mendean bertan, hain zuzen.

4.3. “Estado religioso de Eibar” *IDEARIUM* aldizkariaren inkesta bat¹³⁷

Al exponer el estado religioso y moral de este pueblo, su verdadera fisonomía espiritual, quisiera proceder con máxima objetividad, sin recargar el cuadro de tonos excesivamente sombríos, pero tampoco de optimismos exagerados y desplazados enteramente de nuestra realidad.

Así es posible que esta semblanza religioso-moral choque acaso con juicios prematuramente formados y expuestos; excesivamente favorables, sacados tal vez de lo que parecían dar de sí ciertos días y actos de exaltación religiosa.

Y para que el lector no se sorprenda ante ciertos contrastes que irá viendo, bueno será advertirle que en Eibar viven dos pueblos con fronteras morales y aun casi geográficas bastante definidas: el Eibar creyente y el Eibar anticlerical. Y así, quien vive aquí, verá una solemnidad religiosa con gran concurrencia, y al poco tiempo una manifestación roja con asistencia imponente.

A estos dos pueblos, pues, ha de ir viendo a través de esta crónica, el que tenga la paciencia de leerla, a quien también quiero advertir que si una especie de inconsecuencia y falta de virilidad religiosa es hoy general, adquiere mayor proporción en este pueblo, tal vez por la presión que ejerce aún sobre el sector católico la falta de tradición religiosa, el pasado abolengo liberal y el presente tono izquierdista y anticlerical que aún predomina.

He comenzado por afirmar que quiero proceder con toda objetividad; para ello, he procurado documentarme con toda escrupulosidad, y por los datos que voy a exponer han de ver los lectores de esta crónica el reflejo de una realidad a la que no debemos cerrar los ojos, aunque no nos sea del todo halagadora; porque cuanto más certero el diagnóstico más eficaz será el tratamiento.

Como índice harto elocuente para señalar el nivel de moralidad y religiosidad de un pueblo, comenzaré por el de natalidad en estos últimos años.

Años	Nacidos	Bautizados	Sin bautizar
1931	201	198	3
1932	202	192	10
1933	198	190	8
1934	158	157	1

He aquí un cuadro que marca por sí sólo la descomposición moral de un pueblo: Eibar, una población que cuenta alrededor de 14.000 habitantes, con solo 158 nacimientos, sin que las perspectivas que ofrece este año sean más halagüeñas, ya que hasta la fecha a que se refieren mis comprobaciones, 10 de agosto, el número de nacidos sólo llegaba a la cifra de cien, lo que hace suponer que los cuatro meses que restan del año posiblemente no alcanzarán la cifra del año

¹³⁷ *Idearium* (1935-10, 399-410).

anterior.

Como explicación de este hecho se invocará seguramente la crisis económica, la situación apurada de muchos hogares. Influirá todo esto desde luego, pero tengo la convicción de que no está ahí la verdadera explicación, y quien viva en Eibar y pueda auscultar un poco su vida familiar y social, señalará sin duda alguna otra causa a esta cifra vergonzosa.

En Eibar existe desde luego el problema del paro obrero y de la crisis industrial; pero será sin duda alguna uno de los pueblos menos afectados por la misma, ya que por la modalidad especial de la industria de este pueblo serán raras las familias en las que todos sus miembros se hallen en paro forzoso; si no es el padre, será el hijo o la hija quien estará ganando su salario. La prueba de esto la dan los espectáculos, bares y establecimientos de bebidas siempre llenos; el éxodo de una verdadera masa humana los días festivos. Un dato: el 15 de agosto hubo en la estación de Eibar seis mil y pico pesetas de ingreso; el domingo siguiente, cuatro mil y pico, aparte de autocars y coches de turismo. Otro dato, bien aleccionador por cierto: en los últimos diez meses el partido socialista ha recaudado en Eibar 75.000 pesetas para los presos de la revolución de octubre. Por esto repito que no me satisface la explicación que quiera buscarse en los apuros del vivir. Crisis, estrecheces más que agudas y con carácter endémico desde hace años vienen padeciendo los pueblos de la costa, y puedo ofrecer el dato de Ondárroa con una población que no llega a la mitad de Eibar y con un movimiento de natalidad que oscila entre 160 a 180 al año.

Descartada esa explicación, sólo queda esta otra en toda su realidad descarnada: que el egoísmo sensualista, manifestando en las prácticas anticoncepcionistas, están corroyendo las entrañas morales de este pueblo.

Defunciones

Años	Muertos	Entierros ecle	Id. civiles
1931	164	155	9
1932	156	145	11
1933	142	140	2
1934	142	123	19

Observará el lector cierta desproporción en los entierros civiles de un año a otro; pero tenga presente la advertencia ya hecha de que dentro de Eibar existen dos pueblos; y según que la mortalidad haya caído más en uno que en otro, varía también el número de entierros civiles. Además, y como explicación del número correspondiente a 1934, téngase en cuenta la revolución de octubre en que murieron cinco jóvenes socialistas.

Prensa

Respecto a la prensa que se lee en este pueblo he hecho el recuento exacto de un día, el 21 de agosto, ya que él reflejará, con ligeras variaciones, el balance general. En ese día se vendieron en Eibar:

540 ejemplares de «El Liberal» de Bilbao.

510	»	de «La Voz de Guipúzcoa».
165	»	de «Euzkadi».
125	»	de «Excelsius»
115	»	de «El Pueblo Vasco» de Bilbao.
85	»	de «El Día».
60	»	de «La Gaceta del Norte».
45	»	de «El Pueblo Vasco» de San Sebastián.
24	»	de «La Constancia».
20	»	de «El Noticiero».
18	»	de «Diario Vasco».

Aparte de estos diarios se venden también «Heraldo», «El Sol» y «La Voz» de Madrid; algunos pocos numeros de «El Debate», «Informaciones» y «Ahora»; muy abundantes las novelas y publicaciones pornográficas, repartidas muchas de ellas a domicilio.

Organizaciones sindicales.- El Sindicato metalúrgico (U.G.T) con 1.400 sindicados; Solidaridad de Trabajadores Vascos con 935; Sindicato Católico con 87.

Vida parroquial

La actividad de la parroquia de Eibar no es que sea de una vitalidad anquilosada precisamente. Este parroquia recoge con frecuencia dentro de sus amplias naves una gran concurrencia una gran concurrencia de fieles. Viajeros que pasan por Eibar en los días festivos y asisten a ciertas misas quedan muchas veces sorprendidos de lo que ven, y aquí está tal vez la explicación de ciertos juicios halagüeños en exceso, porque el espejismo que ejerce la visión de una muchedumbre nos hace olvidar la otra masa que queda fuera.

Esta parroquia, además de tener un año bien poblado de novenas, triduos y distintas solemnidades que mantienen en constante actividad al núcleo piadoso de la feligresía, organiza anualmente distintas semanas de ejercicios espirituales para todas las edades y sexos (ejercicios muy concurridos por cierto); semana para niños y jóvenes de ambos sexos y semana para casados con horas y actos distintos para cada condición y estado.

Esta vitalidad parroquial se refleja en el numero de comuniones que el año pasado -por citar alguno- llegó a 99.200 sólo en la parroquia; en la generosidad tan admirable de esta «saqueada» feligresía que, con su óbolo pequeño pero constante, ha contribuído a la obra de las Escuelas Católicas con 4.063,95 pesetas hasta la fecha; a la obra de las misiones con 1.975 el último año; a la restauración del Santuario de Arrate con 39.000 pesetas y para la educación cristiana de la juventud entre el colegio viejo y nuevo en estos doce años con 125.508 pesetas; en que cubrió con creces la primitiva asignación de la cantidad correspondiente al dinero del culto y clero de 15.000 pesetas y sigue cubriéndolo la actual de 19.000 pesetas. Todo esto refleja indudablemente generosidad e inquietud religiosa; ello revela sin duda un importante aspecto de la vida cristiana en este pueblo donde no todo ha de ser sombras; vitalidad que podemos ir viendo a través de sus

organizaciones parroquiales.

Al hablar de éstas, comenzaré por la que es base y fundamento de la vida cristiana, por la del catecismo.

Durante el curso pasado han recibido instrucción catequística en los diversos centros (Parroquia, colegios, Málzaga), unos 1.105 entre niños y niñas. El catecismo es diario alternando los días entre niños y niñas, siendo ayudados en esta ardua labor los sacerdotes, por un plantel de 62 señoritas catequistas, a las que es de justicia rendir desde estas líneas, ante toda la Diócesis, el agradecimiento profundo de la parroquia de Eibar, por su benemérita y desinteresada ayuda y abnegación.

El censo escolar, y por lo tanto el que debiera ser censo catequístico, es de unos 2.000; si sólo se mira, pues, a esta cifra, el número de niños que viven alejados del catecismo es grande. Pero creo que este número no es el verdadero por lo que voy a decir. A pesar de cuanto se insiste y de la campaña que se hace anualmente en pro del catecismo, existe una gran desidia en muchas familias y padres en este punto; sólo muestran alguna preocupación el año en que sus hijos han de hacer la comunión solemne, que en esta parroquia tiene lugar a los once años. Para muchos, por lo tanto el estudio del catecismo se reduce a ese año. La cifra de los que cada año hacen de esta cifra, se puede afirmar que el número de los que se quedan sin instrucción religiosa en absoluto será un 28%.

A la sombra del catecismo funciona la Mutualidad Catequística que, fundada hace dieciséis años, cuenta ya con 1.484 mutualistas con un capital de ahorro hasta junio de 448.979 pesetas.

Congregaciones

Existen la de Hijas de María (950), Jóvenes de la Inmaculada (350), ambas con su sección de aspirantes para menores de quince años, bajo el patrocinio de la Santísima Virgen de Arrate, con sus cultos mensuales; Apostolado, Adoración, Tarsicios, Madres Cristianas con su sección de beneficencia domiciliaria que lleva repartidas desde su fundación (abril de 1924) 27.121 pesetas a familias pobres y niños del catecismo.

Tal vez parezca exigua esta cifra, pero advertiré que en Eibar no existen socios ilustres, no hay grandes donativos, toda la actividad parroquial tiene que moverse premiosamente a base del simple perro chico.

Cumplimiento pascual

No es fácil establecer una proporción exacta del cumplimiento pascual. El eibarrés es por temperamento hostil y reacio a toda ordenación y disciplina. Aun en el orden material este individualismo, una verdadera anarquía industrial y comercial, causa en parte de las dificultades por que ha atravesado a menudo su economía, ha sido la característica de este pueblo.

Aunque se ruega y se encarece que entreguen todos la cédula del cumplimiento, son bastantes los que no llenan este requisito que nos podría servir de índice exacto. Sin embargo, compulsando

y estudiando todos los datos a este efecto, se puede afirmar que el cumplimiento pascual de Eibar se acerca en conjunto a un 60%: 40% de varones y 70-5% de mujeres. Como se ve, de las cifras de asistencia al catecismo a las del cumplimiento pascual existe bastante diferencia, y es que la edad postescolar es el gran escollo en que naufraga la juventud eibarresa, abandonando poco a poco las prácticas religiosas y hasta sus mismas creencias.

Causas de este abandono religioso

Aparte de las generales y que concurren en todas partes, citaré algunas que particularmente influyen en este pueblo:

1ª. La influencia, verdaderamente tiránica que ejerce la Casa del pueblo que es la que controla aun la vida de esta ciudad; el socialismo eibarrés es casi exclusivamente anticlericalismo y sectarismo: su propaganda, que ha sido intensa, sus mítines, conferencias, hojas, etc. rezuman siempre ataques a la Iglesia y sobre todo a su Jerarquía. 2ª. Esa especie de influencia atávica que es el lastre del que aún no se desprende definitivamente el eibarres, aunque habrá que reconocer que en ello se ha avanzado bastante; me refiero a la presión que ejerce aún el pasado liberal que ha venido a desembocar en el actual socialismo. 3ª. La ausencia total de vida familiar; en Eibar apenas existe autoridad paterna, la «democracia y la igualdad» han llegado hasta lo íntimo del hogar; en él, cada cual vive su vida, más de fonda que de hogar. La casa sólo para la satisfacción de las necesidades físicas; fuera de eso todos se lanzan a la calle, la taberna, al café, al centro político o al cine; así diariamente, en turbia promiscuidad de sexos hasta muy avanzadas horas de la noche, con funestas consecuencias para la moralidad y religiosidad. 4ª. El carácter de capitalidad que tiene este pueblo respecto a su contorno, por el que atrae a sí la juventud libertina de otras localidades que aquí, libre se la presión del ambiente de sus pueblos, viene a dar rienda suelta a sus desahogos en espectáculos, bailes y casa de lenocinio.

Ademas de éstas, para resumir: el rendimiento abundantemente lucrativo durante muchos años de la industria armera que trajo consigo un aumento de vicios: la auto-suficiencia característica del eibarres, lo que se denomina gráficamente «satisfacción», que reúne en sí el alto concepto de propia suficiencia con el bajo nivel general cultural de este pueblo. Un dato bien elocuente: en los últimos 5 años escasamente llegan a una docena los hombres que han hecho una carrera, y Eibar cuenta con alrededor de 14.000 habitantes: ignorancia, presunción, inmoralidad, campo abonado a la propaganda antirreligiosa.

Ahora bien, ¿qué podría hacerse para más eficacia a la labor de su recuperación espiritual?

Contando con medios para ello, combatir en su mismo terreno los resortes en que apoya su eficacia propaganda anti-religiosa: la ignorancia religiosa y la inmoralidad ambiente, dotando a este pueblo de centros de enseñanza católica y de un cine moral.

Existen dos colegios: uno para niños y otro para niñas con una matrícula de 250 el de niños y 150 el de niñas, donde se da desde la enseñanza elemental hasta el bachillerato y comercio, cuya influencia se viene notando en la juventud eibarresa, a pesar, claro está, de

las inevitables defecciones.

El colegio de niños es un hermoso edificio de nueva planta, admirablemente orientado y distribuido; edificado sabe Dios a costa de que sacrificios, esfuerzos y combinaciones, desenvolviéndose siempre dentro del estrecho marco de las posibilidades económicas de las familias de los colegiales: mediante suscripción de obligaciones de 250 pesetas sin interés; recurriendo a hipotecas sobre el mismo edificio escolar, gracias al esfuerzo, tenacidad y celo nunca suficientemente agradecidos del Sr. Párroco y Junta Propulsora de la Enseñanza en favor de la educación religiosa de nuestra juventud. Porque Eibar, habrá que decirlo, no es tan afortunado como otros pueblos de menores necesidades en este aspecto, que, sin embargo, Mecenas generosos que los han dotado espléndidamente de Escuelas Católicas, aquí todo se ha de hacer merced a propios recursos, merced al constante desembolso de la perra chica.

Por eso, si se contara con medios de dotar a este pueblo de varias escuelas católicas y sobre todo de poder ampliar el colegio actual en forma que pudiera acoplarse a él una especie de escuela de Artes y Oficios al estilo salesiano, donde se pudiera enseñar la mecánica y ajustaje que hoy lleva tantos jóvenes a la Escuela de Armería, creo que serían de gran utilidad para la conservación de nuestra juventud.

Digo otro tanto respecto al cine: es este un elemento altamente desmoralizador y descristianizador en Eibar; elemento que está haciendo verdaderos estragos en nuestra juventud y no hay dique posible a contener la desbordada pasión con que arrastra este espectáculo. Por necesidad hay que darle un derivativo.

Si se pudiera contar con un salón amplio, adecuado y con un comfort ventajoso respecto a los demás, donde se dieran programas atrayentes y de altura, pero controlados por personas de provada solvencia moral, se podría conseguir mucho.

He aquí expuesto a grandes rasgos el panorama religioso eibarrés. ¿Sombrío? ¿más despejado de lo que se creía? Lector amable: yo me he limitado a ser mero cronista de la realidad.

Mateo de Uriarte

Gasteizen *Organo del Montepío Diocesano de Vitoria*-k argitaratzen zuen aldizkari honek bere bizi laburrean -1934-1936 bitartean baino ez zen aritu izan-hainbat azterketa argitaratu zituen. Beroietan Euskal Herriko zenbait herri eta eskualdetako erlijio egoera aztertzen zen. Irun, Bizkaiko Meazterriak, Markina, besteak beste. Ikusten denez soziologikoki aski desberdinak ziren herriak kontuan hartzen ziren. Datuok gehienbat erlijio-*praktikari* edo elizkoitasunari zegozkion ez inondik ere gizabanakoaren jarrerari zuzenduak. Horretaraino deus esan beharrik ez. Areago, aipatu herri eta eskualdeetako *encuesta* haiek *normaltzat* jo daitezke. Datuak eskaintzen ziren eta jarraian aholkuak ematen elizgizonei, batez ere, bertako fedea jaso zezaten.

Baina hara non Eibarko *estado religioso* ikertzera datorren (?) Mateo de Uriarte jaunak dioenari jaramon egin badiezaiogu Eibarko egoera ezin zitekeen beste inongoarekin aldera. Datuak biltzera zetorkeen baina aldian-aldian isuri zituenak saihestezinak dira. Joan gaitzen atalik atal merezi du eta.

Hasteko, bi Eibar daudela esaten zaigu. Bata elizkoia, bestea, berriz, ezkertiar eta antiklerikala. Eta jarraian dioena da, nere ustez, bere lanean objektibotasunik handienaz esaten duena: “En Eibar viven dos pueblos con fronteras morales y aun casi geográficas bastante definidas. Y así, quien vive aquí, verá una solemnidad religiosa con gran concurrencia, y al poco tiempo una manifestación roja con asistencia imponente”. Horra ezin hobeto adierazia herri baten iritzi-aniztasunaren gauzatzea.

Baina inkestagileak ikusi gogo lukeenak traditu egiten du bera. Hain zuzen, bigarren honek *-gorriak-* bestea *garaitu* ohi duelako arduratsu baitakusagu. Eta non nabaritzen da hori? Bada, esaterako batiuetan. Gutxi jaio eta gutxi bataiatu. 1934 urtean bertan 158 jaio eta 157 batiu. Ondarroan bertan -Eibarren aldean biztanlegoaren erdia ere ez duena- 160-180 haur inguru jaiotzen omen da urtero. Krisia eta langabezia ote egoera *larri* haren arrazoiak galdetzen dio bere buruari inkestatzaileak. Azkar aurkitu bide du erantzuna. Nola ba bestela: “los espectáculos, bares y establecimientos de bebidas siempre llenos”¹³⁸. Asteburuetan, gainera, hainbat jende ateratzen da herritik. Eta datuak eskaintzen ditu tren, autobus etabarrenak.

Egia -izan daitekeen bezain gordina izanik ere- esan egin behar da, diosku aurrerago Uriarte jaunak. Nonbait, eibartarren berekoikeria da haur gutxi jaiotzearen arrazoietako bat. Bere hitzetan zehaztuz: “el egoísmo sensualista manifestado en las prácticas anticoncepcionistas”. Heriotzak datoz noski geroxeago aitatuak. Ehorzketa zibilak kezkarri dira: 1934 urtean, 142tik 19 izan omen ziren. Jarraian egunkari eta aldizkarien txanda da. 11 egunkari desberdin saltzen ziren orduan Eibarren Madrilekoak aparte. Baina benetan kezka-iturri ondoko irakurketak ditu: “muy abundantes las novelas y publicaciones pornográficas, repartidas muchas de ellas a domicilio”¹³⁹.

¹³⁸ Azkuek berak ere 1898an *inpresio* berbera hartuko du: “Zarata ta barailea zer direan eztakienak, betoz Eibarrera iaiegun bazkal-ostean, sartu beitez kafetse batean, da gortuten eztan belarria ona da” (201. orrialdea).

¹³⁹ Ondoko hau esaten duenean bezala: “El eibarrés es por temperamento hostil y reacio a toda ordenación y disciplina. Aun en el orden material este individualismo, una verdadera anarquía industrial y comercial, causa en parte de las dificultades por que ha atravesado a menudo su economía, ha sido siempre la característica de este pueblo”. Eta hori zer dela eta Bazkokoa oso gutxi egiten dela esplikatzeke. (407. orrialdea).

Ikusten denez, datu objektiboak eta subjektibitate handiena nahasten ditu. Ondoko hau esaten duenean bezala:

El eibarrés es por temperamento hostil y reacio a toda ordenación y disciplina. Aun en el orden material este individualismo, una verdadera anarquía industrial y comercial, causa en parte de las dificultades por que ha atravesado a menudo su economía, ha sido siempre la característica de este pueblo.

(Ibid.: 407)

Eta hori guzti hori Bazkoko oso gutxi betetzen dela argitzeko. Ondoren datorrenak baina, gure ustez, gure inkestatzaileren kezka arindu behar zukeen. *Vida parroquial* deitu atalean (403. orrialdea), hain zuzen, Eibarko parrokiari dela hona zer esaten digun: “La actividad de la parroquia de Eibar no es que sea de una vitalidad anquilosada precisamente. Esta parroquia recoge con frecuencia dentro de sus amplias naves una gran concurrencia de fieles”. Are gehiago: “Viajeros que pasan por Eibar en los días festivos y asisten a ciertas misas quedan muchas veces sorprendidos de lo que ven”. Jarraian dakartzan datuek esandakoa berresten dute: kulto handiko eliza da Eibarkoa. Eliztarrek diru asko ematen dute. Haurren esku-hartzea bera ere ez da txikia. Arrazoi hauengatik, beraz, Eibar gizarte anitzpentsakerako, zabal eta libre samarra zela aitortzera eraman beharko zukeen lan honen egilea hasieran esan dugun bezala. Baina ez. 1935an oraindik gizabanakoak noiznahi izan behar lukeen pentsakera-askatasunean ez da sinesten Eliz-Erakunde haietan. Berriro ere Bazko-txartelaren datuak emango dizkigu. Eskolaroa amaitu ostean omen ziren eibartarrak elizatik aldentzen. Eta horrela azken atalean sartuko gara. Uriarte

jaunak “Causas de este abandono religioso” deitzen dituen horietan Eibarrerako -”aparte de las generales y que concurren en todas partes”- hona zeintzuk azpimarratzen dituen:

1.- *Casa del pueblo*-ren eragina: “la influencia verdaderamente tiránica que ejerce. El socialismo eibarrés es casi exclusivamente anticlerical y sectario”¹⁴⁰.

2.- Iraganak dakarren zama astunak oztopatzen du eibartarra fedearen sarobera etortzea: “Esa especie de influencia atávica que es el lastre del que aún no se desprende definitivamente el eibarrés, aunque habrá que reconocer que en ello se ha avanzado bastante; me refiero a la presión que ejerce aún el pasado liberal que ha venido a desembocar en el actual socialismo”. (azpimarrak gureak dira). Honetaz aritu gara Eibarren antiklerikatasunaren jatorria aztertzerakoan.

3.- arrazoia hasieran eman ditugun asteburuetako exodoarekin lotzen duela dirudi. Eibartarra kale-zuloan bizi da; etxea soil-soilik dauka: “para la satisfacción de sus necesidades físicas; fuera de eso todos se lanzan a la calle, a la taberna, al café, al centro político o al cine”. Eta ez nolana: “en turbia promiscuidad de sexos hasta muy avanzadas horas de la noche, con funestas consecuencias para la moralidad y religiosidad”. Eta jarraitzen du. Eibarren: “apenas existe autoridad paterna, “la democracia y la igualdad”

¹⁴⁰ Gogora elizaren beste sektore batzuek ere lehenago gauza bera esana zutela. Gogora esaterako, 1.8. epigrafean, Valdour izeneko sindikalista katoliko hark zioena. Dena den, haren 1910eko lekukotasunak, subjektiboa bada ere, oso itxura desberdina du Agirrek eta Azkuek garai hartan, eta oraingo honetan *Idearium*-ekoek, erakusten dutenarekin.

han llegado hasta lo más íntimo del hogar”. Bere azken arrazoia laugarrena, alegia, honako hau litzateke:

El carácter de capitalidad que tiene este pueblo respecto a los de su contorno, por lo que atrae a sí la juventud libertina de otras localidades que aquí, libre de la presión del ambiente de sus pueblos, viene a dar rienda suelta a sus desahogos en espectáculos, bailes y casas de lenocinio.

Horra, bada, gure Sodoma eta Gomorra partikularra. Eta zergatik hori guzti hori? Nola bilakatu ote da Eibar horren lizun eta limuri? Armagintzak garai oparoak bizi omen dituelako eta horrek noski: *un aumento de vicios* baitzekarren: “La auto-suficiencia característica del eibarrés, lo que se denomina gráficamente “satisfacción”, que reúne en sí el alto concepto de propia suficiencia con el bajo nivel general cultural de este pueblo”. Beraz *farol* izate hori itxuraz aspaldidanik datorkigu. Bestea zaigu apur bat ezjakina. Alegia, gure: *ignorancia, presunción, inmoralidad*. Guztiak nonbait *campo abonado a la propaganda antirreligiosa*, dira. Ezin esan, bere datuak ikusten baditugu, horrenbeste irakurri, zinera eta tertuliara joaten den gizartea ezjakina izan litekeenik. Asko jota beste edonongoa bezainbeste izango da, ez gehiago ezta ere gutxiago.

Eta horren egoera larrian dagoen gizataldeak ba ote konponbiderik? Nola borroka *la ignorancia religiosa* eta *la inmoralidad ambiental* hori? Ebazpidea garbi dauka egileak: “Dotando a este pueblo de centros de enseñanza católica y de un cine moral”.

Kristau-eskolaren aldeko apostua garbia da, noski. “Eskola Armerixia” bera ere! susmopean agertzen da, hark eskaintzen zuen irakaskuntzak kritika zuzenik jasotzen ez badu ere, alternatiba argi adierazita dago, ulertu nahi duenarentzat, behintzat. Izan ere, nahiz eta bi eskola herrian izan, besteren bat behar litzateke, batez ere: “una especie de escuela de Artes y Oficios al estilo salesiano donde se pudiera enseñar la mecánica y ajustaje que hoy lleva tantos jóvenes a la Escuela de Armería, creo que sería de gran utilidad para la conservación de nuestra juventud”.

Horra laburbilduz Eibarrez 1935ko urri hartan idatzi zirenetako bitxi batzuk. Eta horrelakotan maiz gertatu ohi den bezala, aztertzaileak, berak dakarren ideologiari oso lerraturik datorrenean, artikulua honetan legez, erlijioaren egoera aztertzeetik -eta agian ia-ia ohartzeko- herri osoa auzitan jarriaz amaitzen du.

Bibliografia

- Añibarro, P., 1969, *Gramática bascongada*. ASJU-ren edizioa III. liburukia
- Agirre, Tx., 1966, *Garoa*. Laugarren edizioa, Aranzazu
- Altube, S., 1936, *La vida del euskera. Más sobre la vida del euskera*, Gaubeka Irarkola Bermeo.
-, 1960, “Eibartarrak eta euskera”, *Euskalzaleen Biltzarra Eibarren*, *Euskera* V, 61-65.
-, 1975, (1929), *Erderismos*, *Euskera* X, I-IV
- Arana, A., 1980, (1898), *Lecciones de ortografía del euskera bizkaino. Lenengo egutegi bizkaitarra*. Obra guztiak, Sendoa
- Askoren artean., 1960, “Euskalzaleen Biltzarra” (J. A. Mogel Eibar’ko semearen gorazarrez) in *Euskera* V, 23-180
-, 1978, *Bilintx (1831-1876), Conferencias y Concursos Literarios*, CAM, Donostia
-, 1992, *Bizkaieraren lekua gaur*, Euskal Ikaskuntzen Institutua, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo
-, 1986, *Euskara euskalkiak. Eibar 85*, Eibarko Udalaren argitalpena
-, 1988, *Bergarako euskera*, UNED, Bergara
- Azkue, R. M., 1969, *Morfología Vasca*, hiru liburuki, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo
-, 1989, *Latsibi*, Euskaltzaindiaren edizioa. 15. zkia
- Azurmendi, J., 1977, “Prólogo”, in *EUSKAL IDAZLEAK GAUR*, Lankide Aurrezkiaren argitalpena, 51-63

- Berriozabal, R., 1992, “Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusitik Bizkaierari ematen zaion tratamendu sozio-politikoak” in *Bizkaieraren lekua gaur*, 55-58
- Bustintza, E., “Kirikiño”, “*La Iglesia y el euskera*”, *Euzkadi* 1927
- Caro Baroja, J. 1978, “*En torno al centenario de Vilinch*” in *Bilintx*, 85-105
-, 1981, “¿Léxico, léxico inventado?” in *Homenaje a d. Odón Apraiz*, 107-116.
- Eleizalde, K., 1923, *Morfología de la Conjugación Vasca Sintética*, Elexpuru, Bilbo
- Etxebarria T., 1965, *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*, Euskaltzaindia
-, 1989 (1968), *Viaje por el país de los recuerdos*, Eibarko Udala
-, 1992, *Recordando la guerra, la cultura del exilio vasco*, Edición de J. A. Ascunze, E.H.U. Donostia
-, 1993 (1967), *Ibilarixanak*, Eibarko Udala
- Garate, J., 1935, *Ensayos euskarianos*, Mayli, Bilbo
- Garate, G., 1988, *Erdarakadak*, Mensajero, Gero, Bilbo
- Guisasola, J., “Gutunak”, *Euskal-erria* aldizkarian idatzitako artikuluak 1882-1892 urteen artean. Gipuzkoako Diputazioko Liburutegia.
- Ibiñagabeitia, A., 1959, *Eibar-22*
- Iraola B., 1962, *Oroitzak eta beste ipui asko*, Auspoa, 9. zkia, Itxaropena, Zarautz
- Irazusta, J.A., 1991 (1946), *Joñixio*, Klasikoak, Euskal Editoreen Elkarte
- Irigoyen, A., 1992, “Bizkaieraren lekua Bizkaiko testu, idazle eta kultura gizonen artean” in *Bizkaieraren lekua gaur*, 35-39
- Iturriotz, A., 1955, “Etxaitar jaunari”. *Euzko Gogo*- VI
- Kardaberaz, A., 1974, *Obra guztiak*, La Gran Enciclopedia vasca
-, 1964 (1761), *Euskeraren berri onak*, Auspoa 37

-, 1973 (1801), *Jesus Maria ta Joseren devociñooco...Iracurle bizcaitarrari*, obra guztiak, La Gran Enciclopedia Vasca
- Lakarra, J., 1992, “Bizkaieraren lekua beste euskalkien artean, iraganeko garaietan”, in *Bizkaieraren lekua gaur*, 15-34
- Larramendi, M.,1979 (1729), *El Impossible Vencido*, Salamanca, Ed. Hordago, Donostia
-, 1984 (1745), *Diccionario Trilingüe*
- Larrañaga, P., 1930, *La moral vasca, usos y costumbres*, Escuelas Gráficas, Bilbo
-, 1976, *Contribución a la historia obrera*. Bi liburuki. Auñamendi 111, Donostia
- Mitxelena, L., 1960, *Historia de la literatura vasca*, Minotauro, Madril
-,1964, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Auñamendi, Donostia
-,1972, *Idazlan hautatuak*, Etor, Bilbao
-,1981, “Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak” in *Euskal Linguistika eta literatura: Bide berriak*. Universidad de Deusto, Bilbo, 259-278
- Mogel, J.A., 1966, *Peru Abarka*, Azkueren edizio elebiduna, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao
-, 1987, *Cristaubaren icasbidea edo doctrinia cristiana*, Euskaltzaindiaren edizioa
- Mokoroa, J. M., 1971, *Lengua vasca de hoy y de mañana*, Auñamendi, Zarautz
- Mujika, G., 1956 (1910), *Monografía Histórica de la villa de Eibar*, 2ª edición.
- Odriozola, M. L., 1991, “Normas para la fabricación de anclas”, *BAP*, XLVII 3-4, 400-405
- Orbe bertsolaria, 1992, 1884-1967. Ego Ibarra

- Ormaetxea, N., “Orixe”, 1960, *Karmel-X*, Irail-Urria
....., 1961, *Karmel-XI*, Urtarrila-Otsaila
- San Martin, J., 1960, “J. A. Mogel eta Urkitza, bere bizitza ta lanak”, in *Euskera*
V, 26-49
....., 1963, “B. Mogelen Ipuin Onak liburuari eginiko hitzaurrea”, *Auspoa* 28
- San Martin, J., Basauri, S., 1972, “Eibarko euskerari buruz”, *EGAN- XXXII*
- Sarasola, I., 1971, *Historia social de la literatura vasca*, Akal, Madril
....., 1975, *Euskal literatura numerotan*, Kriseilu, Donostia
- Soloeta-Dima., 1922, *Ensayo de la unificación de los dialectos baskos*, La
Baskonia, Buenos Aires
- Toledo, A., 1989, *Euskal elaberriaren sorrera*, Bizkaiko Foru Aldundia
- Tovar A., 1959, *El euskera y sus parientes*, Minotauro, Madril
- Unanue, J.M., 1990, *Eibar, gaiak, idazlanak*, Egoibarra
- Uruburu, L., 1992, “Bizkaieraren egoera OHO eta BBB irakaskuntzan” in
Bizkaieraren lekua gaur, 47-54
- Villasante, L., 1979, (1961), *Historia de la literatura vasca*, Arantzazu
....., 1988, *Euskararen auziaz*, Eleizalde Saila 8, Arantzazu
- Zavala, M., 1927, (1848), *El verbo regular vascongado*, *RIEV*-eko eranskina
- Zuazo, K., 1988, *Euskararen batasuna*, Iker 5, Euskaltzaindia.

ALDIZKARIAK

Kontsultatu diren zenbait aldizkari:

ADELANTE! Eibarko sozialisten hamabostekaria. 1901-1902 urteak

ARGIA: 1921ean sortutako astekaria

Eibar. Revista de un pueblo. Gerra ostean argitaratzen hasia. Hiruhilabetekaria

Euskal Erria aldizkaria

Euskalzale. R. M. Azkuek sorturiko *astean asteango* albistaria. 1897-1899

EUSKERA. Euskaltzaindiaren aldizkari ofiziala

Euzko Gogo. Bi hilabetekaria

Goi Argi. Herri-mailako aldizkaria. 1951-1952. urteak

Idearium. “Revista de investigación y síntesis de ciencia religiosa”. (Organo del

Montepío Diocesano de Vitoria) 1934-1936

Karmel. Karmeldarren aldizkaria

Tierra Vasca. Exilioko aldizkaria, Buenos Aires

Azkenik, mende amaiera eta 1936 urtera bitarteko zenbait egunkari: *El Pueblo*

Vasco, La Constancia, La Voz de Guipúzcoa, El Día, Euzkadi, El Liberal, El

Diario Vasco

*Al danean al dan bezela ekin diote,
eibartarrek (euskeraz), burdin-langintzan,
saldu-erosietan, baita langilleen defentzarako
mitin ta itzaldi guzietan ere*

(Seber Altube)



Eibarko Udala
Euskara Batzordea